

"Adegi eta  
Diputazioa ezin  
dira ibili elkarri  
harrika"

Migel Lazpiur  
Enpresaburua | 6



Oso gutxigatik,  
Malen Ruiz de  
Azua kanpoan

Munduko Junior  
Txapelketako finalera  
ezin izan da iritsi | 20

Arrasateko erdigunean TAO  
aplikatzen hasiko dira urrian | 10



Leintz Gatzagako erretiratuen  
elkarreak 25 urte bete ditu | 9



Etxeko ateraino eramaten dituzte  
jatordu on eta osasuntsuak | 2



JAGOBA DOMINGO

## ARRASATEKO ATXABALPE, EIBARREN ENTRENAMENDU ZELAI

Berdegunea eta aldagelak egokitu eta  
azarotik aurrera erabiliko dituzte  
armaginek, denboraldi historikoan | 20

IRAILAREN  
TERA ARTE,  
PARENTESIA

Hurrengo GOIENA  
irailaren 1ean,  
astlehena,  
argitaratuko dugu.  
Ondo izan!

## CNA Taldeak aurre hartu du Fagorren jabe egiteko

Konkurto-administratzaileek haren alde egin dute  
epailearen aurrean; erabakia, datorren astean | 5

ABUZTU OSOAN ZABALIK

ORDUTEGIA

Astehenetik ostiralera  
09:00-18:30

Larunbatak 09:00-13:00

Lirain, urte osoan zurekin!

www.lirainestetika.com

LIRAIN  
ESTETIKA-ZENTRUA



943 79 52 17

Bizkaia Foroa 11  
48900 ARRASATE

RPS: 48/14. Ez da osasun zentroa.

SINADURAK



Galerna, ekialdetik | 7  
ALEX LABAIEN



Iratzargailuari pila kenduta | 7  
AITZIBER ARANBURUZABALA



Gora Antzuolako jaixak! | 17  
ALAITZ JAUREGI



Opor giroan, gertaera latzak | 32  
AGURNE BARRUSO

# Otordu on eta osasuntsuak, etxeko ateraino

- ▶ Oñatiko Bidebarri zentrotik aste osorako bazkari eta afariak banatzen dira
- ▶ Zerbitzua nagusiek erabiltzen dute, gehienbat, baina edozeinendako da
- ▶ Dietista batek antolatzen ditu menuak norberaren baldintzen arabera

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Bazkaldu edo afaldu, modu osasuntsuan eta kalitatezko produktuekin, norberaren beharretara propio prestatutako modura, eta norberak ezertxo ere egin gabe –erostera joan, janaria prestatu, gerokoak garbitu...– 4,55 euroren truke egin ahal izanez gero, zenbaterik esango lukete baietz, bi aldiz pentsatu gabe? Bada, aukera hori dagoeneko badago Debagoienean eta, hala ere, oraindik ez du jende askok erabiltzen. Oñatiko Bidebarri enplegu zentroak (giza txertatze enpresa da) ematen du eta Debagoieneko eta inguruko udaletako gizarte zerbitzuek gomendatzen diete adinekoei, batez ere sukaldean ibiltzeko mugak dituztenei edo, beste barik, bizi kalitate hobea izan dezaketenei.

Sistema oso samurra da: bazkariak, afariak edo bazkariak eta afariak jasotzeko izena eman daiteke, bakoitza dagokion prezioan. Errenteriako Sutondo enpresak prestatzen ditu jatekoak: bi plater eta postrea otordu bakoitzeko. Plater bakoitza hutsean ontziratuta dute eta bezero bakoitzari dagozkion aste osoko jatekoak kaxa baten bidaltzen dituzte Zubillagara. Han, Bidebarriko langileek banaketa-kaxetan ipintzen dute dena, behar bezala ordenatuta –are erosoagoa izan dadin, azkenengo jan behar diren platerak kaxaren barrenean daude, eta lehenengo jan behar direnak, goian–, eta eguazten arratsaldean banatzaileak norberaren etxera edo bezeroak eskatutako lekura eroaten du aste osoko menua. Lehenengo otordua eguneko izaten da. Jatekoekin batera, eguazten eguaztenera arteko menua dator astero, orri baten inprimatuta.

Gureak taldean sortutako *catering* enpresa da Sutondo eta honako sistema, batez ere, Donostialdean dago zabaldua.

## Garbantzua eta hostopila

Etxez etxeko otordu zerbitzu horrek hemeretzi erabiltzaile ditu gaur egun –Oñati, Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Antzuola

**DATUAK**  
**4,55**  
EURO

Batez beste, 4,55 euro (BEZa ere kontatuta) kostatzen zaio bezeroari Sutondok egindako afari edo bazkari bat, bi plater eta postrearekin.

**20**  
BEZERO

Zerbitzua eskaintzen hasi zenetik, beti hogei bat bezero izan ditu. Batzuek erdibideko soluzio gisa erabiltzen dute egoitzan edo eguneko zentroan hasi arte.

**6**  
HERRI

Sei herritako bezeroak ditu orain *catering* zerbitzuak: Oñati, Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Antzuola eta Soraluze. Hemendik kanpo, batez ere Donostian dago errotuta.

**6**  
HILABETE

Catering zerbitzua probatzen dutenek, normalean, jarraitu egiten dute eta erabiltzaile leial bihurtzen dira. Batez beste, sei hilabetetik gora ematen dute bezero gisa.

eta Soraluzeko jendea dago orain–, eta beti hogei bueltan ibili izan direla esaten du Bidebarriko arduradunak, Jon Igartuak. Oro har, jendea pozik dabilela diosku: "Normalean, ez zaigu kezarik etortzen, eta hasten denak jarraitu egiten du. Egoten den kexa bakarra hau da: barazki larregi daudela esaten dutela batzuek!".

Izan ere, zerbait badira, osasuntsuak dira bazkari eta afari horiek: Sutondo enpresako dietista batek norberaren beharrak eta osasuna kontuan hartuta diseinatu dituen menuak. Menu batzuk estandarrik dira; beste batzuk gatz gutxirekin egindakoak dira –nahiz eta Sutondoko plater guztiak dauden gatz gutxirekin eginda, behar bereziak dituztenek eska dezakete oraindik gutxiago botatzeko–, diabetikoendako menuak ere egiten dituzte, azido urikoa zaindu behar dutenendakoak...

Adibidez, 65 urtetik gorakoendako, egunean bazkaltzeko garbantzua eta arrosa eta, gero, urdaiazpiko eta gazta-hostopila tomatearekin; bukatzeko, jogurta. Afaltzeko, minestrone-zopa eta hanburgesak patatekin; postreko, fruta. Egubakoitzean, horrek berak azalorea olio errearekin eta azenarioarekin jango du lehenengo; gero, arraina piperradarekin, eta fruta; eta afaltzeko, esparrago-krema eta frijitu bariatuak, eta jogurta. Asteazken zehar, makarroiak, arrautzaztatutako oilasko-bularkiak, entsaladilla errusiarra, saiheski erre, berakatz-zopa, atun-enpanadillak, zerbak (azelgak) patatekin, dilistak (lentejak) barazkiekin... jango ditu, egunaren arabera.

Bidebarri, zerbitzu horren arduraduna Ibai Urrutia da, eta, haren esanetan, "normalean, udan, asteko menuak bi barazki-plater –bat, entsalada–, arroz bat eta pasta edo patata-plater bat izaten ditu; afaltzeko, zopak, kremak edo fideoak, baita arraina edo arrautzak ere. Afariak oso arinak izaten dira. Postre gisa, beti fruta edo jogurta".

Neguan, zertxobait aldatzen da eta hiru barazki-plater, bi



LEIRE KORTABARRIA

**ERRENTERIATIK OÑATIRA** Hutsean ontziratuta eta plater bakoitzaren iraungitze-datarekin, bezero bakoitzaren aste osoko otordua aparte bidaltzen ditu Errenteriatik Sutondo enpresak Bidebarri, Zubillagara.

lekale eta patata-plater bat (patata beste jateko mota batekin) izaten ditu menu tipiko batek.

Arduradunek diotenez, erabiltzaile batzuek orriak dakarren menua "zorrotz" jarraitzen dute eta beste batzuek gustura aldatzen dute ordena.

## Sanoa eta kalitatezkoa

Jon Igartuak esaten duenez, "oinarriko sukaldaritza-platerak dira, egunero bazkaltzeko edo afaltzeko janariak; ez da sukaldaritza elaboratua edo artistikoa egiten. Produktu sanoak dira eta kalitate txukunekoak". Oro har, egunero-egunero gustura jateko moduko gauzak dira, dieta oso eta orekatua jarraitzen laguntzen dutenak.

Barietatea ere ziurtatuta dago. "Astetik atera menu desberdina du erabiltzaile bakoitzak; hilean behin errepikatzen da bakarrik", diote arduradunek.

Norberak gustuko ez dituen edo zerbaitegatik jaso nahi ez dituen janariak ez jasotzea ere eska dezake eta hori kontuan izaten dute arduradunek. Adibidea ipintzen dute: "Gizonezko

batek ortua dauka eta garaiko barazkirik ez du nahi izaten, berak nahikoa badaukalako".

Bestalde, ontzia ireki eta janaria txarra baldin badago, abisatu eta aldatu egiten diote Bidebarri: "Sutondotik beti bezero bakoitzarendako kaxak eta, horiez gain, ordezkot piezak dituen beste kaxa bat bidaltzen dizkigute. Horrela, zerbait txarra badago, segituan alda daiteke, nahiz eta hori oso oso gutxitan gertatzen den".

## Hozkailuan, ez izozkailuan

Janariak behin ere ez daude izoztuta; denak daude berotu eta jateko gertu, eta erabiltzaileak ez du beste ezer egin edo gertatu behar. Zazpi eguneko iraungitze-epea dute eta hozkailuan gorde behar dira, baina ez izozkailuan. Ontzi bakoitzean dakar plater horren iraungitze-data zein den.

Ontziak erabilerak bakarrekoak direnez, bertatik jan daiteke eta gero birziklatzera bota (elikagaiak dituztenez, enpresak ezin ditu berriz erabili). Bukatzerakoan, bakar-bakarrik mahai-tresnak garbitu beharko dira.

## Zerbitzua, begirada baten

### EDOZEINENDAKO

Hasieran, 65 urtetik gorakoendako zen, baina gaur egun edozeinek eman dezake izena. Erabiltzaile gehienak nagusiak dira, baina ez denak.

### HIRU PLATER

Bazkari eta afari guztiak bi plater eta postrea –fruta edo jogurta– dute. Afariak arinak izaten dira.

### URTAROKO GAUZAK

Neguan, hiru barazki-plater, bi lekale eta patata-plater bat (patatak beste janari batekin) izaten dira asteko menuan; udan, bi barazki-plater, arroz bat eta pasta edo patata-plater bat.

### PERTSONALIZATUTA

Gaixotasunen bat duenak hala esan behar du, menuak komeni zaion eran presta ditzaten. Menu estandarrik ere gatz gutxirekin eginda daude, hala ere, osasuntsuagoak izateko.

### NORBERAREN GUSTURA

Gaixotasunik edo alergiarik izan ez arren, janari motaren bat nahi ez duenak halakorik ez jartzeko ere eska dezake.

### ASTE OSOAN ONDO

Plater bakoitza hutsean ontziratuta dator Sutondotik. Normalean, zazpi eguneko gorde daiteke. Ez dira izoztu behar; denak hozkailuan gordetzeko dira.



2

**BAKOITZAREN JANARIAK ANTOLATU** Bidebarrin, Juanek (argazkian) edo beste langile batek bezero bakoitzaren janaria kaxa baten antolatzen du, lehenengo jan behar dituenak goian eta azkenengoak barrenean ipinita. Horrez gain, aste osoko menua dakarren orria ipintzen du kaxa gainean.

#### Prezio lehiakorra

Dagokionean, hileko faktura ere jasoko du bezero bakoitzak. Batzuek bazkariak bakarrik dituzte kontratatuta; beste batzuek, bazkariak eta afariak. Afariak bakarrik hartzeko aukera ere badago.

Prezioaren gainean, honako hau esaten dute Jon Igartuak eta Ibai Urrutiak: "Sutondok bere sukalde industrialean egindako janariak dira. Astean behin banatzen dela kontuan hartuta, kostuak doitu egiten dira eta bazkari bat, bi plater eta postrearekin, 4,55 euro da, BEZa barne. Oso merke irtetzen da. Jendeak ikusten duen 4,55 euroko prezio horren truke

kentzen da erosketak egitea; bestetik, janariak etxean izan behar izatea, alferrik galtzeko arriskuarekin; sukaldean ibili behar izatea; garbitzea; energia-kontsumoa; lana..." Hori gutxi balitz, bazkaria eta afaria, biak hartuz gero, azken prezioa oraindik txikiagoa da.

Igartuak honako hau komentatzen du: "Inoiz baino sukalde hobeak ditugu, baina inoiz baino baliabide gehiago ere bai, horien erabilera merkatzeke. Sukaldea noizean behin erabiliko dugu, baina beste baliabide batzuk daude eguneko otorduak egiteko".

Edozein momentutan eman daiteke izena, Bidebarrin bertan


edo norberaren herriko gizarte zerbitzuan galdetuta, eta zerbitzua astebetean proba daiteke, inongo konpromisorik gabe; gustura egonez gero, gura den arte jarrai daiteke. "Konpromisioa aste baterako bakarrik da", azpimarratzen du Ibai Urrutiak. Uztailen, Bergarako bi lagun zeuden proba egiten.

#### Asteroko bisitari ezaguna

Orain arte bezero mordo ez, baina oso leialak izan ditu *catering* zerbitzu horrek. Gehiago zergatik ez dituen galdetuta, honako uste hau azaldu du Jon Igartuak: "Hasieratik adineko jendeari zuzendu genion zerbitzua, eta, halakoetan, ahoz ahoko notiziek eta gomen-dioek balio dute; erabiltzaile batek beste pertsona nagusi bati esateak astero-astero etxera eroaten diotela bazkaria eta zein ondo gertatzen duten".

Normalean, izena emateko inizatiba norberak edo bere familiarik izaten du, edo gizarte zerbitzuetako langile batek proposa diezaioke. Jendeak ondo hartzen du proposamen hori; izan ere, bakarrik bizi diren eta horrela jarraitu nahi duten adinekoen kasuan, soluzio ezin hobea izan daiteke, lan bat gutxiago eduki eta oraindik burujabe izateko.

Zerbitzua orain dela bi urte jarri zen martxan lehenengo aldiz, eta, orduan, pertsona nagusiei lehentasuna ematen zitzaien. Honela azaltzen du Jon Igartuak: "Udalak eta gizarte zerbitzuek kalera irten ezin zuen edo sukaldean gaizki konpontzen zen adineko jendearendako bultzatu zuten zerbitzua, aste osoko janaria ontzian, etxean izan zezan".



3

**ETXEKO ATERA** Banatzea bakarrik falta da. Eguazten arratsaldeetan egiten du hori Juanek. Debagoien osoan eta Sorraluzen, norberaren etxean edo bezeroak eskatutako beste lekuren baten uzten du enkargua.

Gaur egun, interesa duen edozeinek eman dezake izena, nahiz eta, gaur egun ere, erabiltzaile gehienak adineko biztanleak diren. Hala ere, "badago jende gaztea ere", Jon Igartuaren esanetan, eta "sukaldean ibili nahi ez duen edozeinek" eman dezake izena.

Horrez gain, beste abantaila bat: urteko aste guzti-guztietan jasoko ditu bazkariak eta afariak etxean, behin ere hutsik egin gabe. Zerbitzu horrek ez ditu oporrak ez jaiegunak hartzen. Abuztuan ere berdin-berdin banatuko diete jatekoa altan daudenei, kontrakoa abisatu ezan.

Inoiz gertatu izan da Urteberri eguna eguaztena, banaketa eguna izatea. Kasu horretan, banaketa eguna asteko beste egun batera aldatzen da, erabiltzaileei aurrez abisatuta; horrela, Bidebarriko

langileek ere jai har dezakete egun horretan.

Bestalde, Gabonetan edo beste jai berezi batzuetan ere, kontrakoa ez bazaie esaten, ohiko moduan banatzen dituzte janari-kaxak. Ibai Urrutiak dioenez, Gabonetan bereziki, "erabiltzaile askok familiarekin bazkaltzen eta afaltzen dute eta egun horietan otorduak ez bidaltzeko abisatzen dute".

Adinekoekin pentsatze hori dietaz haratago doa: hala, banatzailea beti pertsona bera, aurpegi bera izaten da eta nagusien konfiantza irabazten du astetik asterako bisitarekin. Anekdotak ere badaude, arduradunek kontatzen duten moduan: "Azkenean, banaketa besterik ez bada ere, harremana sortzen da eta banatzailea kafea hartzera eta guzti gonbidatzen dute".

#### KONTAKTUA

**943 71 64 79**

BIDEBARRI

Oñatiko Bidebarri enpresa arduratzen da janariak banatzeaz. Izena emateko, deitu hara eta galdetu Ibai Urrutiarengatik edo bidali mezua [info@bidebarri.org](mailto:info@bidebarri.org) helbide elektronikora.

#### ESANAK

**"Prezioaren truke kentzen dira hainbat lan: erosketak, sukaldeko lana, garbitzea..."**

JON IGARTUA  
BIDEBARRIKO ARDURADUNA

**"Proba egin nahi duenak astebete bakarrik egon behar du, beste konpromisorik ez dugu eskatzen"**

IBAI URRUTIA  
'CATERING' ZERBITZUKO ARDURADUNA

**75**  
MUSIKA  
HAMABOSTALDIA

**ARANTZAZUKO  
SANTUTEGIA**

OÑATI

**KALAKAN  
EASO ABESBATZA**

**Abuztuaren 7an**  
19:00etan  
Arantzazuko Santutegian

**SARRERAK SALGAI**  
Prezioa: 15€ / 10€  
Arantzazuko Santutegian  
[www.quincenamusal.com](http://www.quincenamusal.com)

**BABESLEA:**

Laguntzailea:

[www.quincenamusal.com](http://www.quincenamusal.com)

Ikus itzazu argazkiak, inon baino lehenago Asteleheneko Goienan!

# UDAKO ARGAZKIEN X. GOIENA LEHIAKETA

## Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!

Argazki guztiak fotoblog honetan: [blogak.goiena.eus/argazkiak](http://blogak.goiena.eus/argazkiak)

Baita hemen ere: udakoargazkiak udakoargazkiak



XABIER ATXA ZUGASTI. 2013ko Sari Nagusiaren irabazlea.



ARKAITZ LASKURAIN. 2013ko bigarren sariaren irabazlea.

Har ezazu parte!



MIKEL ZAMORA. 2013ko hirugarren sariaren irabazlea.

### Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
  - Egilearen izen-abizenak eta herria.
  - Harremanetarako telefonoa.
  - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
  - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 11tik irailaren 21era arte (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blogean. Botoa ematen parte hartzen duten guztien artean beste sari bat zozketatuko da.

- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: [argazkiak@goiena.com](mailto:argazkiak@goiena.com) helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otalora Lizentziaduna 31, Arrasate

- Egoitzara ekartzekotan, gutun-azal batean sartuta, CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 13an jakingo dugu, asteleheneko Goiena paperean.

- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera asteleheneko Goiena paperean eta Goiena.eus-en sortuko dugun foto-blogean. Goiena telebistan, Facebook-en ([www.facebook.com/udakoargazkiak](http://www.facebook.com/udakoargazkiak)) eta Twitter-en ([www.twitter.com/udakoargazkiak](http://www.twitter.com/udakoargazkiak)) ere erakutsiko dira argazkiak.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilari profesionalak osatuko dute eta argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

#### HAR EZAZU PARTE SARE SOZIALETAN!

- Twitter eta Facebook bidez ere parte har daiteke lehiaketan, honela:
  - **Twitter bidez**, [@udakoargazkiak](https://twitter.com/udakoargazkiak) helbideari aipamena eginda argazkia bidaltuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
  - **Facebook bidez**, [facebook.com/UdakoArgazkiak](https://www.facebook.com/UdakoArgazkiak) orriaren horman argazkia partekatuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
- Twitterrez eta Facebookez aurkezten diren argazkiak lehiaketako blogean agertuko dira, baina daukaten kalitatearen arabera argitaratuko dira Goiena paperean. Hau da, ez badaukate paperean argitaratzeko moduko kalitatekerik, ez dira argitaratuko euskarri horretan, baina sari nagusirako kontuan hartuko dira.

### Sariak

#### 1. saria

**Nikon D3100 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.**

- 14,2 megapixel.
- Full HD bideo-grabazioa.
- 3 hazbeteko pantaila.
- Auto-fokatzeko sistema, 11 puntukoa.
- ISO 100-3200 sentsibilitatea.
- Integratutako edizio funtzio ugari.



**2. saria:** Orioko Aisia hotelean, zirkuitu termala eta bazkaria edo afaria. Arrasate Bidaia-en eskutik.



**3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.



**Herritarren saria:** SPC 5604S liburu elektronikoa irakurgailua Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.



**Boto emaleentzat saria:** Munduko kafe ezberdinen otarra, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA:

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

**KB**  
photoestudio  
[www.kbphotoestudio.com](http://www.kbphotoestudio.com)

ARRASATE BIDAIAK

**GURE AMETSA**  
JATETXEA

Arrasateko hipermerkatua  
**EROSKI**  
zurekin  
**karibu**  
munduko zaporeak  
[karibumundukosaporeak.com](http://karibumundukosaporeak.com)

# Fagor Etxetresnen jabe berria zein izango den, jakitear

Datorren astean hartuko du Pedro Malagon konkurtso-epaileak erabakia

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Amaitzean da Fagor Etxetresnen salmentaren afera. Urriaren urtebete da kooperatiba horren "erorketa" ageriko egin eta osteko itxiera gertatu zela; eta ia hama bi hilabetez administrazio konkurtsoan murgildu eta Fagorreko hainbat "ezkontideren" eskaintzekin gora eta behera ibili ondoren, erabakia hartzeko bezperan, halako biren artean aukeratu behar du Pedro Malagon konkurtso-epaileak etxetresnen negozioa saltzeko: Kataluniako CNA (Cata) edo Aljeriako Cevital. Bien artean, baina, preferentziak argi daude: CNA nahia go dute, bai administratzaile konkurtsalek, baita Fagor Taldeak berak ere.

## "Marka nahiko gaizki"

Edozein modutan, azken erabakia Pedro Malagon Donostiako Merkataritza Arloko epailearen esku dago, eta hark datorren astera arte du erabakia hartzeko.

Arantza Tapiak, Eusko Jaurjaritzako Ekonomia, Garapen eta Lehiakortasun sailburuak, dagoneko eskatu dio epaileari ahalik eta lasterren hartzeko erabakia, Fagorren egoera ez delako ona: "Marka nahiko gaizki dago dagoneko, gauzak konplikatu egin dira, inongo aktibitatearik gabe dago Fagor bera, eta espero duguna da hau prozesu hau bukatuta, erabakitzea nor den onena, nork jarraituko duen aktibitatearekin eta irailatik aurrera hori posible egin ahal izatea".

## Fagor Taldea CNArekin pozik

Fagor Taldeari dagokionez, berriz, bertako iturriak pozik azaldu dira Fagor Etxetresnengatik CNAk egindako azken eskaintzarekin,

bereziki lanpostu kopuruari dagokionez: "Fagor Taldeak eskatutako minimoak baino gehiago dabilta eskaintzen". Jabe berria CNA baldin bada, Fagor Taldearekin aurre-akordioa eginda dauka eta gauzak "lotuta" dituela esan du Fagor Taldeak. Cevitalek, ordea, ez dauka aurre-akordiorik.

Fagor Taldeak argi utzi zuen Fagor Etxetresnengatik lehian zeuden enpresei lanpostu aldetik baldintza batzuk eskatuko zizkiela; marken jabe izateak negoziatzeko indarra ematen dio Fagor Taldeari. Bada, CNAk egindako behin betiko eskaintza ontzat ematen du Fagor Taldeak alde horretatik: "Guk eskatutako gutxienekoa baino gehiago dabilta eskaintzen". Edozelan ere gogoraz dute adjudikazioa uztaile-

ren 29an izango dela. "Eta jabe berria CNA baldin bada, aurre-akordio bidez dena nahiko lotuta dauka", esan dute Taldeko iturriek. Gero, hilabete izango dute aurre-akordio hori behin betiko bihurtzeko eta sinatzeko.

## Administratzaileen aholkua

Konkurtso administratzaileei dagokionez, haiek zuzeneko eskaera egin diote Malagoni, CNAREN eskaintzaren alde erabaki dezan. Atzo (eguna) hainbat komunikabidetan esandakoaren arabera, CNAk eskaintza ekonomiko onena egin duelako, lanpostu gehien eskaintzen dituelako eta perimetro osoa hartzeko gertu dagoelako, hau da, Fagor Etxetresnen unitate produktibo eta negozio-lerro guztiak.

## Bi eskaintzaren artean aukeratu behar

### CEVITAL

- ▶ 28 milioi euro (aldi bakar batean ordaintzeko).
- ▶ 520 lanpostu hiru urtean.
- ▶ Garagartzako (Arrasate), Eskoriatzako eta Bergarako (erdia) plantak erosi gura ditu.
- ▶ Garbigailu, ontzi-garbigailu eta hozkailuen ekoizpen-negozioak Aljeriara eraman nahi ditu.
- ▶ Ez du aurre-akordiorik Fagor Taldearekin.
- ▶ Edesa, Fagor, Aspes eta Splendid markei eustea proposatzen du, plan industrial bati esker.
- ▶ Edesa eskuratzeko negoziatzen dabilzala eman du aditzera Sergio Treviñok.

### CNA (CATA)

- ▶ 42,5 milioi euro (horietatik 20 milioi euro aldi batean ordaintzeko).
- ▶ 705 lanpostu lehen urtean.
- ▶ Garagartzako (Arrasate), San Andresko (Arrasate) Eskoriatzako eta Bergarako (erdia) plantak erosi gura ditu.
- ▶ Negozio guztiek gure eskualdean aurrera egiteko asmoa erakutsi du, baita San Andresko hozkailuen lerroarekin ere.
- ▶ Fagor Taldearekin aurre-akordioa lotuta dauka.
- ▶ CNAk Edesa marka eskuratzea proposatzen du, baina ez du eskaintzarik egin Basauriko plantagatik.

# Ustez emazte-ohiari eraso egin dio lantegian, labanaz

Eguazten gauean izan zen ustezko eraso, emakumea lanean zebilela, Coprecin

U.M. | ARETXABALETA

Ustez Aretxabaleako gizonetako batek bere emazte-ohiari eraso egin dio, azken hura Coprecin lanean ari zela, gaueko txandan.

Ustez labankada bat ematen ahalegindu da, baina, Goienak jakin izan duenez, Copreciko segurtasun langileari esker, emakumeari eragindako zauria ez da larria izan.

## Emakumeak deitu zuen

Eguazten gauean gertatu zen ustezko eraso. Segurtasun Sailak esandakoaren arabera, eguaztenean 22:15ean deitu zuen emakumeak berak SOS Deietara erasoaren berri emateko. Fabrikako lankideek lagunduta zegoen ordurako. Ertzaintza bertaratu egin zen, eraso egiaztatzeraz, eta emakumea Eskual-

deko Ospitalera eraman zuten. Zorionez, baina, zauri arinak bakarrik eragin zizkion gizonak emakumeari, labanarekin. 50 urte inguru ditu eraso jaso duen aretxabalearrak.

## Urruntze-agindua

Atzo (eguna) artikulua hau idaztean, oraindik ere gizonetakoaren bila zebilen polizia, eraso egin ostetik ihes eginda zebilen-eta. Horrenbestez, gertakariaren ikerketak zabalik segitzen du.

Bestalde, lehenagotik ere bere bikotekidearekin arazoak izandakoa da ustezko erasotzailea, emaztearekiko urruntze-agindua ezarrita izan du-eta.

Edozein ere, Segurtasun Sailak esandakoagatik, iaz bukatu zitzaion urruntze-agindu hori.



UBANE MADERA

## 57 aparkaleku gehiago

Debagoieneko Ospitale inguruan 57 aparkaleku egokitzeko lanak egiten dihardute. Atzeko parteko eraikin bat bota egin dute eta ia 1.000 m<sup>2</sup>-ko orubea erabiliko dute aparkalekuendako. 2012an Ospitalearen eta Arrasateko Udalaren artean sinatutako hitzarmenean jasota zegoen obra hori. Urtebeteko atzerapena du, beraz.

# Debagoienean hizkuntza eskola sortzearen alde da eskola publikoa

Zuzendaritza eta proiektu berriekin estreinatuko du ikasturtea Goieskolak

U.M. | DEBAGOIENA

Berrikuntzekin estreinatu behar du 2014-2015 ikasturtea Debagoieneko eskola publikoaren sareak, Goieskolak. Berrikuntzekin, bi arlotan: batetik, sei udalerritako eskoletako zuzendaritza taldeak berritu egin dituzte. Eta bestetik, datozen urteotarako hezkuntza proiektu berria landu dute.

## Sei herritan

Zuzendaritza talde berriei dagokionez, Goieskolaren Debagoie-

neko honako herri hauetako zentroetan izendatu dituzte zuzendari berriak: Arrasate Herri Eskolan, Beñardo Balerdi; Aretxabaleako Kurtzebarri Eskolan, Dorleta Gaztañaga; Eskoriatzako Luis Ezeiza Eskolan, Jaione Garai Ibabe; Antzuola Eskolan, Izaskun Azpiazu Elkoroberezibar; Elgetako eskolan Nora Olabide eta Aramaioko San Martin eskolan Elisabet Izagirre.

Horrez gainera, joan den uztailaren 1a ezker, Beñardo Balerdi

arrasatearra da Goieskolako presidentea; eta Emmanuel Igartua elgetarra, berriz, izendatu dute Goieskolako koordinatzaile.

## Hizkuntza eskola

Zuzendaritza berriak, era berean, erronka-proiektu berriak landu ditu ikasturtea abiarazteko eta hurrengo urteotarako, bi lerro nagusirekin: hizkuntza eskola proiektua eta haur-eskolaren esparruan talde-lana sortzea, hain zuzen ere.

Hizkuntza eskola proiektuari dagokionez, helburu argi bat dute buruan Goieskolako arduradunek. "Hizkuntza eskola talde-lana sortu, eskualdean hizkuntza eskola egon dadin Eibarko hizkuntza eskolaren adar bat Debagoienean izateko", adierazi du Beñardo Balerdik, Goieskolako presidentea berriak.

## LOMCEren kontra, batera

Haur eskolari dagokionez, berriz, lau helburu lortu gura dituzte eskualdeko eskola publikoko arduradunek: "Partzuergoaren eta eskola publikoaren arteko lotura lortzea; Haur Eskolak eta Haur Hezkuntza uztartzea eskola publikoan; tasak, ordutegiak eta egutegiak bateratzea eta LOMCEren kontra lan komuna egitea, indarra lortzeko", esplikatu du Balerdik.

## 4.800 ikasle

Hori guztia abian jarriko dute ikasturte berriarekin batera, irailaren 9tik aurrera. Goieskolak diharduten 4.800 ikasle orduantxe hasiko dira 2014-2015 ikasturteko egutegiarekin. 450 irakasle arduratuko dira haien hezkuntzaz eta horiez gainera, kanpoko beste 70 langilek osatuko dute lantaldea. Debagoienean bederatzi herritan (Aramaioko barne) hamalau ikastetxe ditu Goieskolak. Herri txikietan (Leintz Gatzagan, Eskoriatzan, Aramaion, Antzuolan eta Elgetan) Haur eta Lehen Hezkuntza eskaintza du euskal eskola publikoak. Herri handiagoetan, berriz (Aretxabaletan, Arrasaten eta Bergaran), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ere lantzen dute eta Arrasaten eta Bergaran nagusiendako eskaintza ere badu, Nagusien Eskolen bitartez.

Migel Lazpiur | Enpresaburua

# "Urte txarrak pasatu ditugu, baina, nazioartean lehiatzen ikasita, arazoak konpontzen dabilta"

- ▶ Lazpiur SA enpresako ugazabak krisitik irteteko aplikatu dituzten neurriak jakinarazi ditu
- ▶ Alemaniako forjako erreminten kongresu baten izan dira, eta "harreman onak" egin dituzte

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Confebask eta Adeg enpresaburu enkartetako buru izan zen Migel Lazpiur (Bergara, 1942). Gaur egun, bere enpresari lotua dago: Bergarako Lazpiur SA. Krisitik irteteko ahaleginak egin dituzte eta badoaz aurrera. 100 urte betetzen dituzte aurten. Alemaniako forjako erreminten kongresu baten izan dira. Horri buruz dihardu.

**Zeren inguruan egin zenuten Berlingen hitzaldia?**

Hitzaldi teknologikoa izan zen. Forjarako erreminten fabrikaziorako joeren gainean jardun genuen. Gure enpresak jarduten duen alorrean, Alemaniako kongresuan izan zen bakarra izan zen Lazpiur.

**Bi produktu-lerro ditu Lazpiurenpresak, eta bata da forjako lanabesena, ezta?**

Hala da. Batetik, makineria edo ekipo-ondasunak egiten ditugu, eta, bestetik, prezisio handiko forjarako tresneria. Hiru teknologia mota darabilgu horretarako, hotzean, bero ertainean eta beroan, horiekin egiten ditugu -eta trokelak. Mundu osoko 25 lurraldetarako.

**Lazpiurrendako zer da era honetako kongresu baten parte hartzea?**

Batetik, harrotasun apur bat sentitzen dugu, ohorea delako guretako horrelako foro baten parte hartzea. Bestetik, marketingaren ikuspuntutik ere oso garrantzitsua da.

**Bezeroekin edo hornitzaileekin harremanak egiteko aprobetxatu duzue?**

Bai, bai, alde horretatik, oso foro garrantzitsua izan da. Mundu osoko 800 bat enpresa zeuden han. Herrialde guztietakoak. Eta hori baliatu genuen enpresa askorekin hartu-emanak egiteko. Orain, harreman horiek sakontzen dihardugu. Nahiko genuke etekinen bat atera hortik, bide berriak ireki. Lana eman digu, eta ondo gertatu behar izan digu aurkezpena, baina oso pozik gaude emaitzarekin.

**Forjaren sektoreak zenbateko garrantzia dauka ekonomian?**

Oso garrantzitsua da. Automozio sektorea, batik bat, baina beste hainbat alor ere batzen ditu. Mundu osoan dauka eragin zuzena. Suspertzen ari diren herrialdeetan -eta asko zabaltzen ari da. Aukera berriak sortzen ari dira.

**Confebaskek hobetu egin ditu 2014rako Euskal Autonomia Erkidegorako aurreikuspen ekonomikoak. Zergatik uste duzu dela hori?**



Migel Lazpiur martitzenean Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

Egoera ekonomikoak hobera egin duelako eta hori igartzten hasi garelako. Guk geuk ere hobera egin dugu. Lauzpabost urte larri pasa ditugu, baina munduan barrena ibiltzen ikasi dugu eta arazoei aurre egiten gabilta. Munduko 25 herrialdetan saltzen dugu gaur egun. Gerrek edo bestelako nazioarteko gorabeherak ere eragina izaten dute ekonomian, baina uste dut gauzak ondo egin ditugula, nazioartera zabaltzea ondo egiten dihardugula, eta hori oinarritzakoa da gauzak ondo egiteko. Jakina, barruko merkatua ezin dezakegu albo batera laga, baina ezinbestekoa da kanpoan ondo saltzea. Nazio bakoitza mundu bat da: ohitura, moneta, legeak... ezberdinak dira. Ezinbestekoa da horiek denak ondo ezagutu, harremanak egin, mugitzen jakin...

**"LABek ez du lortzen ELAren guardasolpetik irtetea"**

**"Altzairugintza galtzeko arriskua dago, eta herri arazoa da"**

**Krisiak industria-ehuna izorratu du. Zein da euskal industriaren egoera orain?**

Kalte handia egin digu. Lehen urteetan ez horrenbeste, baina luzera bai. Sarea kaltetu du. Eta orain, denon artean, erakunde, enpresaburu, langile, gizarte... guztiok elkarrekin, industria sarea berregin behar dugu. Kostako da, baina denon borondatea eta indarra beharrezkoak dira.

**Zenbat lagunek diharduzue gaur egun Lazpiurren?**

100 lagunekoa da gure enpresa. Gaur egun 95 izango gara.

**Krisiaren eraginez murriztu behar izan duzue lantaldea?**

Krisiagatik ez dugu inor bota enpresatik. Erretiro aurreratua hartu dituzte nahi izan dutenek. Gero, batzuk beren borondatez joan dira, arrazoi ugari tarteko. Eta hori egin dugu lau urtean dirua galtzen egon garen bitartean, emaitza negatiboekin. Urte onak izan genituenez, 2007an pentsatuta geneukan fabrika handitzea eta %15 gehiago fakturatzea. Baina %15 gutxiago fakturatu genuen. Eta hurrengo urtean, 2008an, geneukan proiektu gehienak bertan behera geratu ziren eta pentsatutakoaren erdia fakturatu genuen. Hortik aurrera gora egin dugu, poliki-poliki, asko kostata.

**Zela lortu duzue hori?**

Galdera hori berori egin zidan Patxi Lopezek, lehendakari zela. Sozialista ez nintzela, baina gure lehendakariari errespetua zor

geniola esaten nion. Erantzun nion hiru gauza egiten ari ginea krisiari aurre egiteko: batetik, gerrikoa ahal den gehien estutu; bigarren, kanpora irten saltzera, mundu zabaleko merkatuan egon zitezkeen aukera guztiak aprobetxatzera; eta, azkenik, pertsonak zaindu. Askok kostatu zaigu langileak formatzea, eta hori altxorra da.

**Txakurra eta katua bezala dihardute Adegik eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Zer gertatzen da?**

Aurreko foru gobernuekin ondo konpontzen ginen. Askok egiten genuen berba eta arazo edo akatsak konpontzen genituen. Orain, apur bat aparte nago eta ez dakit zer gertatzen den zehazki, baina harreman onak behar dira, ezinbestez. Uste dut Gipuzkoako Diputazioak ez daukala sentiberatasun berezik Adegirekiko.

**"CCOOekin eta UGTrekin errazagoa da akordioetara heltzea"**

**"Ezin dira ibili elkarri harrika Adegik eta Gipuzkoako Diputazioa"**

Hemen bakoitza bere aitarena eta amarena da. Enpatiarekin eta borondatearekin, eta asko hitz eginda, konpon daitezke arazoak.

**Eta sindikatuak?**

ELAk dihardu gaizki. 2000. urtea ezkerro gaizki. Eta krisian gaudenez gero ere bai. Askok egin dut berba haiekin. Txiki Muñozki esaten nion borroka zela haien estrategia, baina etorkizunean ere bide horretatik joatea egoki ikusten zuen. Baietz esaten zidan. Oker daude, nire ustez. Enpresak eta egoera bestelakoak dira, baina, hala ere, ELAk ez du egoera berrira egokitu nahi. Horrela ez goaz inora. Eta LABek ez du lortzen ELAren guardasolpetik irtetea. UGTrekin eta CCOOekin errazagoa da hitz egin eta akordioetara heltzea. Gogorra da, gero!

**Bergara aldeko Enpresare ekimeneko kide zara. Zer iruditzen zaizkizu horrelakoak?**

Esperantza handiak ditut. Uste dut atera daitezkeela gauzak hortik. Helburua da bertako enpresei laguntzea eta ekimen berriak bultzatzea.

**Bergarako bi enpresa esanguratsu, Candy eta Arcelor, ez daude beren onenean.**

Biak ere kanpoko kapitalen mendean daude. Eta hori ez da ona. Arcelorren kasuan, duela bizpahiru urte saiatu ginen esku-ratzen eta altzairutegia berriro abian jartzen. Proiektua ere bage-neukan indiarrei erosteko, eta finantzazio moduak ere bai: enpresaburu batzuk, Kutxabank eta Eusko Jaurlaritza. Mittal multinazionalaren eskuetarik euskal eskuetara pasatzea zen helburua. Aurkeztu genuen proiektua eta interesarekin ikusi zuten Jaurlaritzan, baina ez zen atera. Altzairutegiak ez zebiltzan ondo, eta erosteko unea izan zitekeen. Enpresa eta teknikari talde bat gertu ginen. Euskadiren Barne Produktu Gordinaren %8 altzairutegi horien esku dago. Eta lehen mailako transformazio materialak kontuan izanda, %16. Hori galtzeko arriskuan dago, kanpoko enpresen esku utziz gero. Herri arazo bat da. Saiatu gara, baina... irudipena daukat batzuetan ez ditugula gauzak ondo egiten. Gipuzkoan, Adegik eta Diputazioa elkarri harrika...

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



## ZABALIK

ALEX LABAIEN  
goiena.eus/komunitatea/



## Galerna, ekialdetik

Eta galanta. Domekako *Berria*-ri harrapatu diot izenburua. Ez hark zerabilen moduan, Hondarribiaren estropadari eta zapatu arratsaldeko eguraldiaren bat-bateko zakarraldiari erreferentzia egiteko. Aurreko orrialdeetan zekartzan kronika eta iritzi-zutabe banak nahastu zizkidaten barrenak.

Ane Irazabalen kronika etsiak, lehenengo. "Bihar eguerdirako etxetik alde egin; bestela, zuen bizitza arriskuan jarriko duzue", "Eremu honetako biztanle guztiek beren etxeak utzi behar dituzte. Ez diegu zibilei eraso nahi"... Horrelako mezuak jaurtzen dizkiete hegazkin juduek gazatarrei, erasotzaile ahalguztidunaren bihozberatasunaren adierazle. Zer egin, nora jo ote lezake kaiolan giltzapetuak?

Gerra psikologikoa darabil Israelek ere: ahulena jo, zibilak zigortu, desesperazioa eragin... Hala ere, etsaiaren indarra, amorrua eta bortizkeriazko erantzuna areagotu besterik ez du egiten. Mendekua mendekuaren gainean. Gurpil zoro beldurgarria, belaunaldiz belaunaldi kutsatua, alde batekoen nahiz bestekoaren artean. Ez da zintzoen eta gaiztoen arteko borroka, giza izatearen botere- (eta mendeku-) egarri aseeginaren isla baizik.

Ondoren, Iñigo Aranbarriaren zutabea jo nuen begiz: *Sderot zinema*. Allan Sorensen kazetari danimarkarraren argazki batzuk aipatzen zituen. Sderot israeldar herriaren inguruko muino baten dago jendea, hondartzako jarlekuetan, jaietako suzko erroberiei begira balego bezala, irribarretsua, gustura... Espektakulua, baina, ez da artifiziozkoa: Gazara jaurtitako bonbek eragindako leherketak. Berriro ere, errealitateak gainditu egin du fikzioa.

Boteretsuaren eta ahularen arteko borroka da hau. Hildakoen kontagailua: bi astean, 340 palestinar hil dira; israeldarrak, hamarretik behera. 2008an, orain arte Gazan izan den inbasio bortitzenean, 1.400 palestinar hil zituzten; israeldarrak, 13. Ez dago orekarik, eta horrek, nire ustez, nabarmenago lagatzen du alde baten erantzukizuna. Inporta ote du nork duen *arrazoia*?

## USTEAK USTE


AITZIBER ARANBURUZABALA | aaranburuzabala@goiena.com

## Iratzargailuari pila kenduta

Asturias, Galizia eta Portugalerako norabidean jarriko dugu aurtun furgoneta. Tokian tokiko bizilagunei kasu eginda osatuko dugu ibilbidea. Hala ere, batzuetan dudatan jartzen dut ea ezagutzen ditugun kanpotik datozenei gomendatzen dizkiegun tokiak; izan ere, aurreko baten txoko honetan aipatu nuen iparraldeko Ainhoa laguna, gurera etorri zela aitzakia hartuta barneratu ginen lehenekoz Arrikruz kobatan. Gustatu zitzaigun, bai horixe, Araotzeko lur azpiko bisita; eta ederto borobildu genuen asteburua, patata-tortilla hartuta Usakora joanda. Egunerokotasuna apurtzea, horixe da oporren funtsa. Kendu egiozu zuk ere, bada, iratzargailuari pila!

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.eus/komunitatea/



## HANDIK ETA HEMENDIK

## Zulo beltza

Anjel Lertxundi Esnal  
berria.eus/blogak/lertxundi/

Idazleoi-eta bukatu omen zaigu pagotxa, baina kulpa ez du liburuaren krisiak, zientzialariak dira nonbait gure eginkizun goratsua hondatuko digutenak: material beltz-beltz bat garatzen ari dira, hain izango dena beltza, non ez omen dugun ikusi ere egingo. Halako materialez egindako traje eta zapata beltzak jantziko bazenitu, eskuak eta burua ikusiko litzaizkizuke, airean txerpolari. Besterik ez.

Baina ez ziguten ba esaten bizitzaren aldi ilunetan argi egitea dela gure lana? Obra gogoangarri askok argi egin ez du ba gaitza, gerra, abandonua edo miseria bezalako bizitzaren alde ilunetan?

Zulo beltz fisikoan argi metafisikoa egiteko ezintasunik etorriko omen zaigu hondamendia...

Behingoagatik, ordea, zientzialariak oso berandu datoz, botereak aspaldi asmatu baitzuen zientziak deskubrimendutzat dakarkigun izorramendua: gero eta errealitate beltzagoa fabrikatuz, alor ilunik gabeko errealitatea pintatzen digu botereak.

## Goza dezagun gehiago

Antonio Casado Da Rocha  
argia.com/blogak/

Karmen egunean erosi nuen eta aspaldi ez dut saiakera batekin honenbeste gozatu; kontu anitz interesgarri beteta baitago, erraz irakurtzen da "Euskaldun baten hizkuntza-bidaia" hau (Karmelo Ayesta: *Goza daiteke gehiago*, Utriusque Vasconiae, 2014).

[...] Gaur egun, lagun askorentzat, euskararen erabileraren erronka erantzukizun pertsonalean datza, norberaren hautu etikoa, eta badaude oraindik hori indartzeko jorratu ez diren bideak.

Hainbat iturri erabilia, Karmelok argudiatzen du gehienok ez dugula euskaraz egiten argudio arrazionalak eraginda, baizik eta euskara gure nortasunarekin bat datorrelako (79. orr.).

Motibazioa eta indarra lortzeko, identitatearekiko atxikimendua da gakoa, ez ezagutza maila. [...]

Ez dago euskal hiztun perfekturik; beraz, jardun dezagun *as if* euskaraz bizitzeko superbotea duten euskal

hiztunak bagina bezala; jauzi horrek euskaldunoko gaitu (41. orr.) eta benetan euskaraz bizi izateko beharrezkoak diren giza harremanak eta azpiegiturak (hizkuntza politikak eta legeak barne) ezartzera eramango gaitu. Esan gabe doa, hala sinisten dut nik ere, nire eskarmentuarekin bat datorrelako. [...]

## Gu

Erramun Turutarena  
ene.turutarena.net/

Iratzarri osteko eta lokartu aurreko waxapen artean bizi garenak. Twitter, blogosfera eta foroetako biztanleak. Gizmoen azken erabiltzaile hitzegileak. Diseinatzaile, programatzaile, maker, eduki sortzaile eta edale gogotsuak. Betaurrekodun gazte sentibera disfuncionalak.

Ez al ditugu zeruko izarrenak baino ederrago mugikor, tablet eta ordenagailuek osatzen dituzten argi konstelazioak? Ez al gaude GU argi guzti horien atzean. Eta horren erratuta ez bagina gure gorputza fisikoki kaltetzeraino internet gehiegikeriaz erabiltzen dugunok?

Pantailak gurekin daude.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagire

**Zuzendaria** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate

**Erredaktore burua** Urbane Madera

**Sailtako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo

**Argazkilaria** Imanol Soriano

**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza

**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.

**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.

**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

132 posta-kutxa

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

publi@goiena.com

**HARPIDETZA**

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000

**ISSN:** 2174-369X

**Tirada:** 20.100 ale

**Diffusioa:** 19.951 ale



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## Ez, ez, ez, 12 metro ez

### Zigor Quintanilla Elkorobarrutia

(Aretxabaletako Udaleko Kultura zinegotzia)  
Aretxabaleta

Aldarrikapen horrekin amaitu zen aurtengo San Juan bezperako gaua Aretxabaletan, kinttuek tantaia igo zutenean.

Hurrengo lerroetan, egun horretan gertatutakoak eta aurrez Udalak hartutako erabakiak laburbiltzen saiatuko naiz.

Tantaiaren igoerak dituen arriskuez jakitun eta bertara gerturatzen den herritar ororen segurtasuna bermatu nahian, Udalak erabaki batzuk hartu zituen.

Batetik, ikusle diren herritarrek babesteko, plaza guztia inguratzea erabaki zen. Barruko eremua tantaia igotzen dutenez bakarrik izango zen, eta ez herritarrek ibiltzeko.

Bestetik, tantaia igotzeak duen arriskua gutxitze aldera, tantaiari neurri bat jartzea erabaki genuen. Udak teknikariek bildu ostean eta plazan neurketa batzuk egin eta gero, tantaiari 15 metroko muga jarri genion.

Erabaki horiek hartuta, ekaineko bigarren astean aurtengo kinttuekin bilera bat izan genuen, eta bertan neurri horien berri eman genien.

San Juan bezpera egunean, kinttuek tantaia plazara ekarritakoan, tantaia neurtu eta nondik moztu behar zuten adierazi zitzaizen. Mozketa ez zen, baina, behar zen tokitik egin eta tantaia 15 metro baino gehiago izaten jarraitzen zuen. Ondoren, kinttuen eta Udalaren artean izandako gaizki-ulertu bategatik, lehenik kinttuek moztu zuten falta zen zatia, eta jarraian, kinttuek oraindik zati hori moztu gabe zutela pentsatuz, Udaleko ordezkariak beste zati bat moztu zuen.

Hemendik, beraz, eta aurreko astean eurekin izan nuen bileran adierazi nuen bezala, bakarmena eskatu nahi diet kinttuei Udalaren izenean, tantaia adostu baino txikiago geratzeagatik.

Dena den, uste dut hartutako neurriak beharrezkoak direla, eta datozen urteetan ere horie eustea interesgarria litzatekeela deritzot.

Besterik gabe, neurri hauek hartzea ulertuko delakoan, agur bero bat.

## Munduko Kopa

**Gorka Astaburuaga**  
Bergara

Azkenean bukatu da! Hori izan zen Brasilen bizi diren atzeritar askoren burutik pasatu zena pasa den igandean. Baina ez gaizki pentsa,

# GUTUNAK

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.  
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

munduko kopa baten inguruan suertatzen den giroa ikusgarria da, herrialde ezberdinetako milaka pertsona, pasio batengatik lotuta, non eta futbolaren herrialdean!

Brasil futbola da, kalean usain daiteke eta edozein izkinatan igarri, jende askoren eguneroko arropak euren talde maitatuarenak dira eta politikariek ere erabiltzen dute jendearen botoak lortzeko. Ezagutzen dudana herrialde bakarra non partidu egunean jendeak ez duen lanik egiten gerta daitezkeen arazoak ekiditeko.

Zoritxarrez, gauza asko ere estaltzen ditu, eta ilusioak iraun zuen bitartean ez zegoen inongo arazorik (orain dela lau urte antzerako zerbait gertatu zen ondo ezagutzen dugun herrialde baten), baina orduan, beti gogoan geratuko den finalerdia heldu zen, *Maracanazo* historikoa alde batera utzi zuena.

Poztasun bat ere badatorkit pentsatzen dudanean zelako lasaitasuna hartuko duen 1950eko Brasilgo atezainaren, Moacir Barbosa

Nascimentoren, familiak, 64 urtetan zehar bera izan da Brasilgo lotsarik handiena, kopa hura galtzearen errudun.

Munduko Kopa hasi aurretik milaka aldiz entzun genuen Kopa irabazita zegoela, ezinezkoa zela beste inork irabaztea, beste taldeekiko txistuak, irainak, eta abar. Uztailaren 8an herrialdea mutu geratu zen, inork ez zuen hitz egin nahi, munduko lotsarik handiena. Hurrengo egunean mespretxu egin zion bere taldeari. Hirugarren postuaren partiduan, gure baitan ezagutu genuen tristura hori, nire eskuman zegoen gizonak ezetz esaten zuen buruarekin, ez zela posible. Bakarrik esperantza bat buruan: "Mesedez, betiko etsaiak ez dezala Kopa gure etxean irabazi".

Eta orain zer? Urrian hauteskundeak datoz, eta Kopa irabazita, jendeak argi zeukan Dilmak boterean jarraituko zuela, baina orain zalantzak daude. Hain handia da futbolaren boterea herrialde honetan, gobernu bat defini dezake.

Gastu izugarriak egon dira Munduko Kopa egiteko, eta irabaziz gero, gobernuak, beharbada, dirutza hori justifikatzeko gai izango zen, baina orain? Berdin da, Dilmak berriz irabaziko du diru hori

hainbeste behar duten pertsonen botoarengatik.

Nire lankide batek esaten duen bezala: "Brasil da emakumeen, futbolaren eta korrupzioaren herrialdea", eta zoritxarrez, korrupzioak, beste gauza batzuen artean futbolaren erreminta duen bitartean, hain aberats den herrialde honek ez du behar duen aurrerapauso hori egingo.

Gutxienez, 2014ko Munduko Kopa bukatu da eta futbolaren duintasunagatik onenak irabazi du, eta ikusiko dugu zer gertatzen den atarian dauden Joko Olinpikoekin.

Hori beste istorio bat izango da...

## Fracking Ez aldarrikapena Urbiara

**Maritxu Goikoetxea Gonzalez de Lopidana eta Arantza Palacio Vijandi**

(Fracking Ez Gipuzkoako Plataforma)  
Debagoiena

Orain dela bi urte, Araban eta Bizkaian ekintza bat egiten hasi ziren herrialde bietako Fracking Ez plataformak. Bi herrialdeen arteko muga egiten duen eta enblematikoa den Gorbeia tontorrera eramanez izan dute aldarrikapena. Jende andana bildu izan da aurreko bi urteetan. Ekintzan parte hartu nahi genuen gipuzkoarrek hara joan behar genuen, hemen azpiegiturarik ez zegoen eta.

Zorionez, gauzak aldatu egin dira gure herrialdean. Herri askotan sortu dira taldeak eta hamaika lekutan ibili gara informazioa zabaltzen, sinadurak biltzen... eta pentsatu dugu: zergatik ez dugu zabaltzen deia gure herrialdean? Pentsatu eta egin.

Guk ere badugu mendi kuttuna eta, garrantzitsuen, hara gora aldarrikapena eramango duen jendea ere; beraz, uztailaren 31n Urbiara goaz. Bertako fondan egin dugu hitzordua, 12etan, eta argazkia egiteaz gain, sinadura bilketa ere egingo dugu.

Gure Herria ez dezaten kutsatu, ez dezaten txikitu eskatuko dugu ozen. Zenbat eta jende gehiago, are indartsuagoa izango da gure aldarrikapena.

Animatu zaitzete. Guztiok zaudete gonbidatuta. Egin dezagun Naturaren alde!

## Arrasateko Ospitaleko langileek, Debagoieneko bizilagunei

**Bego Saenz-Azkunaga, Gorka Gorostidi, Jokin Errasti eta Jose Conejo**

(Debagoieneko ESI/OSIko langileak)  
Arrasate

Debagoieneko ospitaleko langileok gure haserre aditzera eman nahi dugu, zentro horretako zuzendaritzak daraman politika dela eta.

2012an ospitale berria inauguratu zen eta diru asko inbertitu zen bertan; horrek itxaropen handia sortu zuen, bai bertako langileendako, eta baita erabiltzaileendako ere. Izan ere, eskualdean arreta eta zerbitzuak hobetzea ekarriko zuen, eta baita Autonomia Erkidegoan ere.

Errealitatea, baina, oso bestelakoa da. Emaizta hau izan da:

-Ospitaleko hainbat zerbitzu kendu dituzte (esterilizazioa, anatomia patologikoa eta, hemendik gutxira, laborategia).

-Murrizketak giza baliabideetan.

-Zuzendaritzarekin hartu-eman eskasa; hainbat unetan, errespetu falta izan da langileekiko eta haien ordezkariakiko.

Egoera hori dela eta, etorkizuna kolokan ikusten dugu, bai guretako, eta baita Osakidetza zerbitzuen erabiltzaileendako Debagoienean.

Hori guztia dela eta, ospitaleko langileok mobilizatzea erabaki dugu. Zuen laguntza eskatzen dugu, zerbitzu publikoen erabiltzaile zaretzen neurrian, guztion artean lor dezagun ospitalea izan dadila bere garaian proiektatu zena eta guztiok gura duguna.

## Eskerrik asko!

**Angelines Castellano**  
Arrasate

Nire ahizpa Pilarren gaixotasunak iraun duen bitartean laguntza eman diguten guztiei eskerririk asko, fase hau eramangarriago egitearren. Batez ere, zainketa

aringarrietako langileei eta familiako mediku Esther Auzmendiri hain adeitsu eta gertuko izateagatik, eta gainerako lagunei.

## Interbentzio sionistaren aurrean, Palestina askatu!

**Aizpea Otxandiano**

(Arrasateko Askapenaren izenean)  
Arrasate

Beste behin ere, estatu sionistak palestinar herriaren aurka hasitako eraso militar baten aurrean gaude, zoritxarrez. 1948ko okupaziotik bizirik dirauen zapalketa honetan, harresiak eta kolonia ilegalak eraiki edota hilketak eta atxiloketak burutzen dituzten horiek, konponbiderako pausoak eman ordez, zapalkuntza inperialistan sakontzen jarraitzen dute.

AEBek eta EBk beste aldera begiratzen jarraitzen dute, israeldarren basakeriei bizkar emanez. Komunikabide nagusiek, berriz, herritarrek desinformatzen dihardute. Bi parte berdinen arteko gatazka bezala plazaratzen dute eta benetako errealitatea estali, Israelgo estatu sionistak palestinar herriarekin egiten duen etengabeko zapalkuntza kontuan hartu gabe, eta bide batez, erasoari sostengua emateko baldintzak sortuz.

Jada ia 600 dira erail dituzten palestinarrek, milaka eta milaka dira euren etxeetatik alde egin behar izan baina leku segururik ez dutenak, 1.300 eraikinetik gora suntsitu dituztenak, eta beldurra oso azkar zabaldu da lurreko ofentsiba hasi zenetik. Gaza kartzela bilakatu da eta ez dute ihes egiteko toki segururik.

Egoera honen aurrean, palestinarrek ez dute beste biderik euren herria defendatzea baino. Gatazka desproporzionatu honetan, herri bati dagokion duintasun eta irmotasun guztiarekin, tinko heltzen diote beraien askatasun aldarri eta borrokari.

Eraso inperialista honen aurrean estatu sionista eta bere kolaboratzaileak salatzea da euskal herritarrok egin dezakeguna, hau baita palestinarrei gure babes eta elkartasuna adierazteko modurik eraginkorrena. Boikot Desinbertsio eta Zigorren (BDZ) kanpaina sakondu behar dugu sionismoak lekurik izan ez dezan gurean eta palestinar herriari bere askapen borrokan laguntzeko.

Beraz, Askapenaren izenean BDZren kanpainarekin bat egitera gonbidatzen zaituztegu eta, era berean, egoeraren larrialdia salatzekei egiten dugu. Egin diezaiozun boikota Israeli!

Gora Palestina askatuta!



# HERRIAK

LEINTZ GATZAGA

## Toki Eder erretiratuena elkartearen 25 urte, eta aurrera

Lazaro Barandiaran presidente duen zuzendaritza batzordeak hartu du elkartearen gidaritza oraintsu

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Santiago kalean du egoitza Gatzagako Toki Eder erretiratuena elkarteak. Gaur egun hemeretzi bazkide ditu, eta oraintsu berri-  
dute zuzendaritza batzordea. Elkarte apala da, aparteko zaratari-  
k ateratzen ez duena, baina badakite ospakizunak antolatzen tokatzen denean, eta oraingoan halaxe izan da; izan ere, elkarteak 25 urte bete ditu aurten.

Joan den astean ospatu zuten 25. urteurrena Toki Ederko kideek. Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsiodunen Elkartearen presidentea Jose Riviere gonbidatu zuten ekitaldira eta hark oroigarria eman zien. Lanean jarraitzea animatu zituen, gainera, zera esanda: "Elkar-  
te txikia zarete, baina Debagoie-  
neko gainerakoekin bat egiten jarraitu, erretiratuok asko dugula-  
ko esateko oraindik. Pentsioen eta botiken koordainketaren gai-  
neko kontuak, esaterako, argitze-  
ko ditugu". Eugenio Osoa alkateak, berriz, eskerrak eman zizkien urteotako jardunagatik. Ondoren,



Antonio Alvarez, Marcelina Plazaola, Matilde Arrese eta Teodoro Plazaola. Sorreratik elkartearen dauden lau bazkideak. | M.A.

sorreratik elkartearen dauden lau bazkideak omendu zituzten. Eta bukatzeko, elkarrekin bazkaldu zuten guztiek elkartearen bertan.

### Auzolanean berritze lanak

1989ko urtarrilaren 15ean sortu zuten Toki Eder. Bost gizonezko osatu zuten lehenengo zuzendaritza batzorde hura, eta Jose Sasiain izendatu presidentea, aho batez. Elkartearen eratze akta beste hamabi bazkidek sinatu zuten gero. Eta horietatik lauk

oraindik elkartearen jarraitzen dute: lehenengo zuzendaritza batzorde hartako idazkaria izan zen Teodoro Plazaola, haren arreba Marcelina Plazaola, Antonio Alvarez eta Matilde Arrese.

Egoitza ere sorreratik dute Udalak utzita, baina berritze eta txukuntze lanak bazkideek egin zituzten, auzolanean, Plazaolak gogoan duen legez: "Bertako parrokoa zen maisua, eta harekin auzolanean jardun genuen zapa-  
tu eta domeketan: zangak jo, urak

hartu... Poliki-poliki eman genion itxura". Hala, topaleku txukuna dute orain: "Norberak dauka gilitza gura duenean etortzeko: jokoan egin, txikito bat hartu edo berri-  
ketan jarduteko", argitu du Juan Mari Makazaga zuzendaritza batzorde berriko idazkariak.

### Bidaia eta ospakizunak

Elkarte txikia da Gatzagakoa, baina ez dira geldi egotekoak, Makazagak dioen legez: "Bidaia bi egiten ditugu urtean: udaberrian

kostaldere, aurten Hondarribia aldean ibili gara, eta udazkenean, Errioxara edo Nafarroara joan izan gara. Irailean, bazkaltzeko elkartzeko gara, eta Gabon inguruan karta jokoan jardun eta merien-  
datxoak egiten dugu", eta gainera-  
tu du: "Gauza asko ezin egin, gutxi gaude-eta".

Bazkideen artean sukaldari bikainak daude, gainera. Maritxu Plazaolak eta Beni Altunak erretiratuena arteko sukaldaritza txapelketa irabazi zuten 2010ean, lehenengo Debagoienekoa eta gero Gipuzkoakoa. Hainbat sukaldari-  
k eta adituk osatutako epai-  
mahaiak gisatu onenaren saria eman zien orduan. Eta Plazaola eta Altuna bikotea briska jokoan ere Debagoieneko txapelduna izan zen 2011n.

### Atzetik erreleboaren zain

Hemeretzi bazkide bakarrik izanda, zuzendaritza batzorde berritza ez da samurra. Gatzagan, baina, erretiratu gehiago daude, Makazagak onartutako moduan: "Beste horrenbeste bai, behintzat! Baina batzuk gazte sentitzen dira oraindik eta ez dute gura, eta beste batzuek... Zer egin ba? Aurrera gaudenok!". Makazaga bera hamalau urtean egon zen orain dela urte batzuk, eta, adinean aurrera joan arren, berriro sartu behar izan du. "Horretarako ditugu arazoak, berritze-  
ko. Baina orain erretiratu egin berri-  
dira herrian hainbat eta uste dut bakarren bat sartuko dela hurrengo tokatzen denean".

## Zuzendaritza batzorde berria

Hona hemen izendatu duten zuzendaritza batzorde berria: presidentea, Lazaro Barandiaran; presidenteordea, Maritxu Plazaola; idazkaria, Juan Mari Makazaga; diruzaina, Eugenio Abasolo; eta bokala, Beni Altuna.

Orain arteko ibilbidearekin jarraitzeko asmoa dute, eta ohiko jarduerak antolatu; hurrengoan izango da iraileko bazkaria.



Oraintsu berri den zuzendaritza batzordeko kideak. | M.A.

**JUAN MARI MAKAZAGA**  
IDAZKARIA



"Orduan, hamalau bazkide inguru ziren; eta gaur egun, hemeretzi. Gazte batzuek ez dute sartu gura eta zahar batzuek hanka egin dute... Zuzendaritza berritze-  
ko ditugu arazoak. Baina uste dut laster berriak etorriko direla".

**TEODORO PLAZAOLA**  
IDAZKARI OHIA



"Hasieran gutxi geunden, eta sartzeko esandakoan ezezkoak jaso genituen. Bazkariren bat eta irteeraren bat edo beste egiten genuen, orduan dirurik ere ez zegoen-eta. Gero, nagusitzen joan zen jendea eta elkartera sartzen".



## UDAKO AZTERKETA BEREZIA

### Olio SINTETIKO aldaketa + olio-filtroa + aire-filtroa + 11 punturen azterketa

Gainera, autorako parasol bat opari

Eskaintza baliagarria abuztuaren 31ra arte iragarki hau eromanda.



PREZIO BAKARRA  
GASOLINA ETA DIESELA  
MARKA GUZTIAK

# 99€

BEZa barne

www.giauto.info

REGISTRESE EN myOpel.es

Elgoibar

Olaso Kalea, 25  
20870 ELGOIBAR  
943 74 40 12

Bergara

B° Olabarrena s/n  
20670 BERGARA  
943 76 33 44

Olaberria

B° Yurre, Poligono Karabi, s/n  
20270 OLABERRIA  
943 88 51 50

Anoeta

Poligono Bentalde, 3  
20270 ANOETA  
943 65 00 49

GIAUTO

www.giauto.info

JARRAITU:





Ferixalekuan ezarriko da proba modura TAO sistema, baina Udalaren asmoa da erdigune osora zabaltzea. | JOKIN BEREZIARTUA

## TAO Ferixalekura urrian, goizez zein arratsaldez

Bestalde, San Josepe berriro urbanizatzeko lehen lanak aurten hasiko dira

**JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE**  
Martitzeneko osoko bilkuran onartu zuten behin betiko TAO sistema erdigunera ekartzea. Hasiere baten Ferixalekura bakarrik ekarriko dute, proba modura: "Erdiguneko errealitatea eta unibertsitate ingurukoa ez da berdina, eta, horregatik, proba modura Ferixalekuan jarriko dugu. Hala ere, gure asmoa da erdigune osora zabaltzea", adierazi du Inazio Azkarragaurizar alkateak.

Ekain hasieran onartu zen behin-behineko ordenantza eta ordutik hona bi alegazio jaso dira. Bata, herritar partikular baten egoiliar txartela jasotzeko eskaera; atzera bota dute, esparrutik kanpo dagoelako. Bestea, berriz, Ibai-Arte merkatari elkar-teak jarri du: "Merkatarien eskae-

ra zen sistema indarrean egotea arratsaldean ere, eta onartu egin dugu. Beraz, goizez zein arratsaldez egongo da TAO Ferixalekuan", argitu du Azkarragaurizarrek. Hala, hasierako asmoak aldatu egin ditu Udal Gobernuak.

EAJk eta PSE-EEK kontra bozkatu dute. Sozialistek zein jeltzaleek proba eginda dagoela uste dute eta ez dute ulertzen zergatik ez den erdigune osora aldi berean zabaltzen.

### San Josepe, aho batez

Bestalde, San Josepe auzoa berriro urbanizatzeko lanak aurten hasiko direla jakinarazi du Udalak. Osoko bilkuran aho batez onartu zen proiektua gauzatu ahal izateko hasierako desjabetze espedientea. Lanon helburuak dira oinezkoen zein autoen zir-

kulazioa hobetzea eta auzoko espazio libreak zabaltzea. Proiektua bost fasetan egingo da: "Auzotarrengan izan dezakeen eragina murrizteko eta Udalak obra zati-ka finantzatzeko". Bada, lehen fasea aurten hasiko dute eta lehen fase horrek San Josepe eta San Andres kaleak elkartzen diren puntutik San Josepeko etxebizitzaren parerainoko guneari eragingo dio. San Josepe kalearen hasieran espaloi berri bat egingo dute, eskailerak irisgarritasun irizpideetara egokitu eta errepi-dea zabalduko dute apur bat. Gainera, biribilgune bat eraiki gura dute San Josepe goiko aldean, autobusek eta hodakinen bilketarako kamioiek arazo barik buelta eman dezaten.

Lehen fasearen aurrekontua 661.593 euro izango da.

## Poloniako folklorea gaur Monterongo parkeko agertokian

**J.B. | ARRASATE**

Poloniako dantzez eta folklozez jantziko da gaur (egubakoitza) Monteron parkeko agertokia (22:30). Izan ere, Udazabal ekimenaren barruan, Warszawian-ka taldearen ikuskizuna dator Poloniako unibertsitatearik handieneko ordezkaria dena. Bestela esanda, Varsoviako unibertsitatekoa.

### Hezkuntza, saioko parte

Hezkuntza folkloreak eta kulturaren bidez ulertzen dute han eta horregatik ikuskizunaren parte izango dira, besteak beste, lurraldeko dantzak, Poloniako ohituretan oinarritutako antzezlanak eta Eguberriarekin zein Pazkoarekin zerikusia duten jarduerak. Hainbat hezkuntza-programa ekoitzi dituzte eskolako umeendako, eta hiriburuko ohitura eszenografiak ere sortu izan dituzte.

### Ospe handiko ikuskizuna

Goi mailako ikuskizuna denaren adierazle da ospe handiko jaialdi-tara gomendatu izan dutela, Polonian bertan zein nazioartean. Beraz, munduko hainbat txokotan ezagunak dira ekarri ohi dituzten Poloniako jantzi ederrak -Polonian eginak guztiak ere-, kantu liluragarriak eta dantzak.

Horren erakusle, baita ere, bisitatutako herrialdeen zerrenda luzea: Bulgaria, Belgika, Frantzia, Grezia, Herbehereak, India, Japonia, Kanada, Mexiko, Alemania, Taiwan, Turkia, AEB, Britainia Handia, Italia, Espainia...

Beraz, gaur arrasatearrek izango dute aukera ikuskizun eder horrekin gozatzeko. Kalean bertan eta doan, gainera, Udazabal ekimeneko eskaintzak dituen bereizgarriak dira-eta bi horiek.



Warszawianka folklore ikuskizunaren une bat. | ARRASATEKO UDALA

## Palestinaren eta Israelen arteko gatazka dela-eta, udal talde guztiek adierazpen instituzionala atera dute

**JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE**

Palestinako Gaza eskualdeak eta Israel Estatuak bizi duten arazoaren aurrean adierazpena adostu dute udal talde guztiek; hau da, Bilduk, EAJK, PSE-EEK eta Aralarrek.

Laburbilduz, herritar zibilen heriotzak ekiditeko eta gatazkaren konponbiderako "elkarrizketa inklusiboa" proposatu dute Arrasateko alderdi politikoek: "Sufirimendu itzela eta etengabeko ezengorkotasuna sortzen dituen gatazka honen konponbidea elkarrizketa inklusiboko prozesu batetik etorriko da, estatu palestinar bideraga-

ri bat errekonozituko duena", adierazi dute.

### Modu baketsuan

Eta besteak beste, esan dute "su etena iragarri eta gero, palestinar-israeldarren arteko elkarrizketa berriro hastearren alde" agertzen dela Udala, "nazioarteak behar bezala lagunduta, eskualdean bake eta egonkortasun eszenatoki bat erakitze aldera, izan ere, sinetsita gaude gatazkaren konponbidea modu baketsuan erabaki behar dela, zuzenean alde biek negoziatuz, interbentzio militar oro erabat bazterturik".



JOKIN BEREZIARTUA

**Maalako jaiak jendetsuak eta beroak izan dira aurten ere**

Madalena jaiak ospatu zituzten martitzenean Maalako Arrabalean. Hasteko, umeendako askotariko jolasak izan zituzten: lasterketak korrikan zein zakuekin, *piñata*, batak besteari puxikak apurtzeko jolasa... Gero, txistulariak, Mery May musikariaren kontzertu jendetsua, auzo afaria -52 lagun elkartu ziren-, dantzaldia eta su artifizialak izan zituzten. Jende asko ibili zen eta giroa bero-bero egon zen, batez ere iluntzetik aurrera.

# Uztailaren 26a da bihar, Ferreriasko jaien eta kubatar festaren egun handia

Kale afarian 70 bat lagun espero dira eta bazkari kubatarrerako txartelak salgai daude gaur arte

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Badator uztailaren 26a, badatoz Ferrerías kaleko jaiak. Eta horrekin batera, urtero moduan, kubatar festak ere bat egingo du Arrasateko kale berezietakoaren jaiekin. Ferreriasko jaien antolakuntzan diharduen Peio Urretak aurreratu duenez, "aldaketatxo bi" daude egitarauan: zapatua izanik, meza San Frantziskon egingo da; eta, bestetik, Arrasateko Gau Alai taldeak girotuko du afafostea, Kai-xo taldea izan beharrean.

## Afarian, goi mailako menua

Auzotarrendako afarian 70 bat lagun espero dituzte: "Urteroko auzotar kopurua espero dugu. Oraindik [martitzenean] hogeitatu lagunek eman dute izena, baina jendea azken orduan ibiltzen da urtero. Eguaztentera arte eman dugu aukera, catering enpresari zenbat mahai-lagun izango garen

lehenbailehen esan behar zaio-eta", adierazi du Urretak.

Menua goi mailakoa izango da: hasierako beroak eta hotzak, pateak, ganbak berakatzekin, piperrak bakailaoz beteta, oilasko-izterrak, limoi-sorbetea, kafea eta kopa. Hori guztia, 22 eurotan.

## Kubako iraultzaren aldeko jaiak

Era berean, azken urteetako ohi-turari eutsiz, iraultza kubatarra ospatzeko egitarau zabala prestatu dute gaztetxeek. Besteak beste, Kubako jakiez osatutako bazkaria egingo dute bihar gaztetxean, eta izena emateko azken eguna da gaur; Irati eta Osorik tabernetan erosi ahal izango dira txartelak, zortzi eurotan. Eta noski, urtero moduan, mojitorik ez da falta izango.

Urtero egon ohi da giroa, baina aurten, zapatua izanik, jende gehiago espero dute.



Piñata jolasa da Ferreriasko jaietako klasikoetako bat. | JOKIN BEREZIARTUA

## FERRERIAS KALEKO JAIK

**08:00** Suziri jaurtiketa.

**12:00** Txistularien kalejira.

**17:00** Haurrendako jolasak eta txokolate-jana.

**19:00** Erraldioen konpartsa txikia.

**19:00** Txistularien kalejira.

**19:00** Meza San Frantzisko elizan.

**21:00** Kale afaria.

**23:00** Dantzaldia Gau Alai taldearekin.

## KUBATAR FESTA GAZTETXEAN

**14:30** Bazkari kubatarra. Txartelak salgai Irati eta Osorik tabernetan, zortzi eurotan.

**17:30** Salsa ikastaroa, Bergarako gaztetxeo lagunekin.

**19:00** *Castropotea* musikarekin eta mojitoarekin.

**00:00** Linbo txapelketa internazionalista.

**03:00** Salsa txapelketa.

# Ferrerías kaleko jaiak

## Egitaraua:

**08:00** Etxafleruak.

**12:00** Txistularien kalejira.

**17:00** Haur jolasak eta txokolatada.

**19:00** Erraldoia konpartsa txikia eta txistularien kalejira.

**19:00** Meza San Frantziskon.

**21:00** Kale afaria.

**23:00** Dantzaldia "Gau Alai" taldearekin.

ondo pasau!

Arrasate  
**UZTAILAK**  
**26**  
zapatua



**ILEA**  
ILE-APAINDEGIA  
943 79 87 62

**TRASKILOK**  
  
Ferrerías 28  
Tel.: 943 799655

**IRATI**  
TABERNA  
Ferrerías kalea 27  
Tel.: 943 79 56 11

**Ziara**  
Mikropigmentazioa  
  
**AKER**  
Tattoo & Piercing  
Tfn: 943799284  
Ferrerías 44 behea

**GORKA**  
*ileapaindegia*  
Ferrerías 35  
Tel.: 943 771378

# Alokairu soziala sustatzeko programa abiatu du Udalak

Etxe hutsak alokairuan ipintzeko zenbait laguntzak osatzen dute

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Alokairu soziala bultzatzeko programa jarri du martxan Udalak. Herrian hutsik dauden etxebizitzak alokairuan jartzeko hainbat laguntza batzen dituen programa da, eta etxe-jabeei etxea alokairuan jartzeko erraztasunak eskaintzen dizkiena.

Jaione Isazelaia alkateak eta Luis Laskurain Suradesako gerentek martitzenean eman zituzten programaren xehetasunak. Isazelaia azaldu zuenez, "Gipuzkoan etxe huts gehien duten herrien artean dago Bergara -iaz 800 inguru errolda barik-, eta, arazo horri irtenbidea emateko, duela urte bat %150eko errekarua ezarri genien etxebizitza hutsei, Ondasun Higiezin Zergan". Baina azpimarratu zuen: "Gure asmoa ez zen inolaz ere izan dirua batzea. Nahi zena zen etxe hutsak merkatura ateratzea. Nahi genuen errekaru hori izatea bultzagarri bat". Eta programa berriak horren osagarri izan nahi du. Eusko Jaurlaritzarekin eta Suradesarekin elkarlanean garatu dute eta etxe hutsak merkaturatzeaz gain, "herritarrei etxebizitza eskubidea bermatzea" du helburu Isazelaia-aren esanetan, eta baita "etxebizitza merkaturatzeko bizigarritasun baldintzak betetzeko obrak egitea bultzatzea ere".

## Hiru modalitate

Programak hiru modalitate ditu. Horietako bi Bizigune eta ASAP programak dira, Jaurlaritzarenak,



Zenbait etxebizitza Domingo Irala kalean. | MONIKA BELASTEGI

baina programa horien bitartez etxebizitza alokairuan jartzea erabakitzen dutenei, erraztasunak emango dizkie Udalak; hau da, osatu egingo ditu programa horiek.

Biziguneren kasuan, Udalak honela osatuko du programa, Isazelaia-aren esanetan: "Efizientzia energetiko ziurtagiria lortzeko diru laguntzak emango ditugu; obren tasetan %50eko hobaria emango dugu, herriko dendetan gastatzeko bonutan; eta obrak egiteko interesik gabeko 10.000 eta 15.000 euro arteko kreditua ere emango dugu". Azken horren harira, Isazelaia azaldu zuen interes gabeko mailegua izango dela eta itzuliko dela, Jaurlaritzak

etxe jabeari ordainduko dion errentatik. Alkateak gehitu zuenez, hori izan da programan "zaitasun handien" eman dien zatia, izan ere, "Jaurlaritzarekin ondo lotu" nahi izan dute, eta gehitu zuen: "Alokabideko teknikoekin elkarlanean formula juridiko egokia aurkitu dugu, usufukto-lagapena".

ASAP programari dagokionez, berriz, kontratuak agentzia bidez egiten dira eta horren osagarri ere, bi laguntza eskainiko ditu Udalak: alde batetik, efizientzia energetikoa ziurtagiria lortzeko diru laguntza, eta, beste aldetik, obren tasetan %50eko hobaria, herriko dendetan gastatzeko bonutan.

## Udalak garatutako 3. aukera

Etxebizitza hutsak mobilizatzeko programaren baitako hirugarren modalitatea Udalak berak garatu du eta Suradesaren bitartez bideratuko da.

Modalitate horren ezaugarriak dagokienez, Bizigune eta ASAP modalitateak bezala efizientzia energetikoa ziurtagiria lortzeko diru laguntza eta obren tasetan %50eko hobaria emango ditu Udalak. Baina beste hiru laguntza ere baditu: "Alokairuan eman nahi den etxea Udal webgunean iragartzeko aukera; etxearen ohiko oinarritzako aseguruan arrisku primak kontratatzeako diru laguntza; eta Suradesak eskainiko duen aholkularitza juridikoa,

kontratua egiteko". Programa horretan, etxe jabeak gehienez 400 euro kobratu ahal izango ditu errenta gisa.

Suradesari dagokionez, etxebizitza ikuskatzeaz arduratuko da bizigarritasun baldintzak betetzen diren ikusteko, eta, egokiak ez badira, egin beharreko lanen txostena egingo dutela azaldu zuen Laskurainek. Gehitu zuen, era berean, lanak arrazoizko prezioan egiten direla egiaztatuko dutela eta era berean, kontratu eredu estandarra ere emango dutela.

Programan interesa duten herritarrek ere artatuko dituzte Suradesan: eguaztenetan, 09:30etik 13:00etara udaletxean; eta astelehenean barikura, Arrasaten, Mankomunitateko egoitzan.

Bestalde, Isazelaia zehaztu zuenez, programa pilotua da, eta Mankomunitatean zein kanpoan "oso harrera ona izan du eta programarekiko interesa erakutsi dute beste herri batzuk".

## EAJ ez dago ados

Martitzenean emandako azalpenen aurretik, astelehenean egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zuten hutsik dauden etxebizitzak alokatzeko laguntzen programa arautuko duen ordenantza. Gobernu Taldearen aldeko botoekin eta EAJren kontra-koekin egin zuen aurrera. Alderdi sozialistak ordezkarria ez bilkuran izan.

Ander Alberdi zinegotziak eman zituen EAJk ordenantzaren kontra bozkatzeko azalpenak. Esan zuenez, programa berria "zuritze morala" baino ez da, "justifikazio bat, dirua batzea helburu duen etxe hutsen gaineko %150eko errekaruarengatik". Alberdik gehitu zuenez, Eusko Jaurlaritzak baditu duela urte asko zerbitzu hori eskaintzen duten programak: "Bizigune eta ASAP daude, eta uste dugu programa berriarekin zerbitzuen eskaintza bikoiztu baino ez dela egiten", esan zuen.

## Zabalik dago GKEek eta Gizarte Zerbitzuetan diharduten elkarteek laguntzak eskatzeko epea

GKEek eta Gizarte Zerbitzuen arloan diharduten elkarteek abuztuaren 6ra arte eska ditzakete diru laguntzak. GKEen kasuan, laguntzak eska daitezke garapen bidean dauden herrialdeetako bizilagunen baldintza sozial, ekonomiko eta kulturalak hobetzeko helburua duten programetarako eta herrialde horiekiko sentsibilizazio ekintzetarako. Gizarte Zerbitzuetan diharduten elkarteek dagokienez, laguntzak Bergaran garatzen diren jarduerak zehatzak, eta denboran jarraian, finantzatzeko erabiliko dira, elkarteak sustatzeko eta herritarren arteko elkartasuna bultzatzeko helburuarekin. Oinarriak eta eskaera orriak [www.bergara.net](http://www.bergara.net)-en.

## Zaborraren, estolderiaren eta uraren 2. hiruhileko tasak ordaintzeko epea zabalik, irailaren 11ra arte

Helbideratutako ordainagiriak baimendutako finantza erakundeetan eta zergapekoak agindutako kontu korrontean zordunduko dira uztailearen 11n. Helbideratu gabekoak, berriz, zergapekoak adierazitako helbideetara bidaliko dira eta ordainketa egiteko bi modu egongo dira: batetik, Udaleko diru bilketa zerbitzuan, 08:30etik 13:30era; bestetik, banketxeetan, kutxazainetan, banku elektronikoetan edo Udalaren zerbitzu telematikoaren bidez, [www.bergara.net](http://www.bergara.net) helbidean. Borondatezko epea amaitutakoan, errekaruarekin kobratuko dira ordaindu bako zergak.



## Laskurain familiakoen topaketa

Laskurain familia egun berezia ospatzeko batu zen aurreko zapatuan, mahaiaren bueltan. Antzuola eta Bergara artean dagoen Txangala auzoko Eguzkitza baserrian elkartu ziren, Lehen Eguzkitza Eguna ospatzeko. Egun osoa eman zuten elkarrekin: 60 senitarte inguru batu ziren, lau belaunaldi; hau da, "0 urtetik 81 urteraino", argazkian ikus daitekeen moduan. Primeran pasatu zuten eguna, familian.

# Irailean ekingo diete Askarruntzeko trafiko hobekuntzei

AMAI TXINTXURRETA | BERGARA

Diputazioarekin elkarlanean diseinatu du Bergarako Udalak Askarruntz auzorako mugikortasun hobekuntzak; zirkulazio aldaketa batzuk egingo dituzte, autoen abiadura moteldu eta arriskua txikitzeko. Hauxe da proposamena: gaur egun bi noranzko dituen errepidea norabide bakarrek errepide bezala jarriko da; beraz, hortik igoko lirake autoak. *Bide beltza* bezala ezagutzen den errepideetik jaitziko dira gero.

Zirkulazioa ere baretu egingo dute, eta, horretarako, hainbat aldaketa egingo dituzte: abiadura mugak jarriko dituzte, gaur egungo bi noranzkoetako errepidea estutu egingo dute, norabide bakarrek bezala jarriko dute eta oinezkoen babesguneak jarriko dituzte.

Horrekin guztiarekin zirkulazioa baretu egingo dutela espero dute, eta lanak irail inguruan hasia: "Diputazioak lanak esleitu behar ditu lehenengo, eta lanekin laster hasia espero dugu. Gure nahia irailean egitea izango litzateke", azaldu du Jaione Isazelaia alkateak.

## Auzotarrak pozik

Auzoan egingo diren zirkulazio aldaketa horien berri eman zuen martitzenean alkateak, udaletxean, eta herritarrek zalantzak argitzeko aukera izan zuten bertan.

Auzotarrak pozik zeuden horrenbeste urtean egindako eskaerari erantzuna emango zaiolako, azkenean, eta alkatea ere pozarren zegoen, batez ere auzotarrengatik, euren nahia bete egingo delako.

# Argiteria efizienteagoa lortzeko berriztapenak herriko hainbat puntutan

Kruz Gallastegin, Angiozarren, Azkunetan eta Mairadon ere egingo dira egokitzapenak

I.G. | BERGARA

"Energia erabilera arduratsua lortu nahi dugu". Horrela laburtu du Jose Ignazio Madañaga zinegotziak Udala egiten ari den argiteria aldaketa. Egin diren egokitzapenen artean daude San Martzial bideko aparkalekuan eguzki energia hornitzen diren hiru farola berriak eta Eskusarte kalean jarritako led bidezko bederatziak. Uberako kanposantura bideko farolak ere led argidunak dira, alde zaharrean erakusgai jarritakoak aprobetxatuta.

Led argiteriaren aldeko apustua herriko beste txoko batzuetan ere igarriko da. Kruz Gallastegi kaleko 3, 5, 7 eta 9.

zenbakietan jarriko diren hamar luminariak led argia izango dute. "Aurten jarriko da baita ere Angiozarko, Azkunetako eta Mairadoko argiteria", zehaztu du zinegotziak. Aldaketa horietarako, Udalak 32.297,16 euro bideratu ditu.

## Kontsumo arduratsua

Udalak hainbat neurri hartu ditu azken urteotan gure herrian energia kontsumo arduratsua bideratzeko. Tartean daude, besteak beste, ur-hornikuntzan barneratutako egokitzapenak eta udal-argiterian egindako aldaketak, azken horretan teknologia berriagoen aldeko apustua eginda.

# Opor sasoian merkataritza eta industrietako hondakin bilketak aldaketak izango ditu

I.G. | BERGARA

Gaur eta abuztuaren 15ean ez da goizeko kartoi komertzialaren (saltoki eta tabernak) bilketarik egingo; gainontzeko egunetan zerbitzuak ez du aldatarik izango.

Industrian aldiz, gaur ez da jasoko errefusa eta kartoia, eta

uztailaren 31n, aldiz, organikoa. Hurrengo egunean errefusarekin batera jasoko da organikoa industrialdean. Zerbitzu berezi hori erabiltzeko, informazio bulegoarekin kontaktuan jarri beharko da.

Abuztuaren 15ean ez da errefusa eta kartoia batuko.



Errekalden antzetzuko duten *El carnaval del conde* sainetea. | DONOSTIAKO MUSIKA HAMABOSTALDIA

# Herria zaintzen gelditzen diren horientzako olgeta

Abuztuaren 22an 'El carnaval del conde' sainetea taularatuko dute Errekalden

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Abuztua exodo eta oporren hila-betea den arren, hainbat arrazoiengatik herrian gelditzen direnak ere egon badaude. Haiek, baina, hondartzara edo inguruak ezagutzera egingo dituzten txangoez gain, herrian ondo pasatu eta disfrutatze aukera ugari izango dituzte.

Opor garaia den arren, gertuko eta sasoiko ekoizle eta erosilek azoka izango dute abuztuaren 6an; eta horren ondoren, Usondon kontzertua egingo da.

## Auzoetako jaiak

San Martin jaiak iristen diren bitartean, herriko auzoetako jaien txanda izango da. Abuztuaren 30ean ospatuko duten arren, hilaren 10ean San Lorentzo eguna izango da. Elexamendiko Andre

Mariaren eguna 15ean ospatuko dute, San Roke 16an, San Bartolome 24an eta 29an, 30ean eta 31n Osintxu jaiak.

Herritik irten gabe, hilaren 22an (18:00), Turismo Bulegoaren eskutik, Bergara ezagutzeko bisita gidatua egingo da. 20:00etan, Real Sociedad Vascongada de Amigos del Pais elkartearen 250. urteurrenaren harira, Peñaflo ridako kondeak idatzitako *El carnaval del conde* sainetea antzetzuko dute (20:00) Errekalde jauregian. Eta 23an, 24an eta 25ean, Bergara Hiria futbol txapelketa jokatu da Agorrosinen eta Ipintzan.

## Abuztuko eguaztenak

Udan sartuta, kultura eskaintza kalera ateratzen da, eta Bergarako parkeak horren erakusle

izango dira. Abuztuko lau asteetan, kontzertu eta ikuskizunak egingo dira Bergarako parke ezagunenetan, eta ekimeneko lehen hitzordua astelehenean, hilak 4, izango da.

## Berumuga zikloaren agurra

Egubakoitz gauak girotu dituen musika beltzaren zikloa gaur agurtuko da. Hilabetez aste bukaeraren sarrerari doinua jarri eta gero, Luis Coloma And Paul San Martin bikotearen emanaldiarekin itxiko ditu ateak.

Isiltasunak Espoioia hartu baino lehen, baina, azken emanaldi hori berezia izango da oso. Jolas modura antolatu duten kontzertuan, musikari bakoitzak bere pianoa izango du oholta gainean. Hutsik egin ezin den proposamen originala.

# Eslalom kopatik oso pozik itzuli dira

Beti Busti piraguismo taldeko infantilek, Espainiako Promes Gazteen Eslalom Kopan, hamaika talderen artean hirugarren postua eskuratu zuten. Indibidualki, C2 modalitatean, Iker Manso eta Unai Otadui piragunistek lehen postua eskuratu zuten; gainontzeko taldekideek ere aurreko postuetan bukatu zuten.





Orain dela bi urteko Duruko eguna. | GOIENA

## Duruko eguneko ospakizunak: bertsoak, musika, herri kirolak...

I.G. | OÑATI

Bi urtean behin antolatzen duten Duruko Eguna ospatuko dute asteburu honetan. Domeka izaten da egun nagusia, baina biharamunetik hasiko dira ospakizunetan. Hain zuzen, zapatuan mendiko bizikleta lasterketa egingo dute, 17:00etan, eta futbol partidua jokatu dute, 18:00etan. Ondoren, txokolate-jana izango dute.

### Egun osoko festa

Domekan, 11:00etan ekingo die ospakizunei, Aierdiko aterpean egingo dute mezarekin. 12:00etan, herri kirol erakustaldia egingo dute Unamendiko gainean: tron-tzan, txinga eramaten, aizkoran...

Herri kirolak amaitu bezain pronto, pintxo-poteoa egingo dute, bertsoariak (Beñat Gaztelumendi, Egoitz Aizpuru eta Andoni Goitia) eta trikitilariak lagunduta. Pintxo-poteoa orain dela hogeitaz urte hasi zuten, bertako aterpeak ezagutzeko asmoz. Aurten, Belaskua, Zarzabal, Goiko Benta eta Aitzarte bisitatuko dituzte. 13:00etan, herriko hiru artzainek (Azpilleta, Errota eta Urzabal) erakustaldia egingo dute, Zarzabal aterpean inguruan dagoen zelaietan. Bazkaria, berriz, 15:00 aldera izango da Aierdiko aterpearen alboan dagoen bordan. Bazkalostean, bertsoak, musika eta festa izango dira gauera arte.

## Euskararen presentzia handitu nahi dute jatetxe eta tabernetan

Abuztuaren 31ra arte, Udalak bultzatutako 'Menuak euskaraz' kanpaina egongo da martxan

I.G. | OÑATI

*Menuak euskaraz* kanpaina jarri du abian Udaleko Euskara Zerbitzuak herriko hainbat taberna eta jatetxerekin batera. "Konturatu ginen herriko ostalaritzan eta merkataritzan jarritzen ziren errotulazio edo ohar asko gaztelera hutsean zeudela eta menuak ere hala zeudela", adierazi du Nerea Zubiak, Euskara zinegotziak. Hain zuzen, Udaleko Euskara Zerbitzuak herriko jatetxe eta tabernetako menuak, ogitartekoak eta pintxoak iragartzeko erabiltzen diren euskarriak aztertu ditu eta emaitzak honako hauek izan direla azaldu du Zubiak: "Menuaren kartela kanpoan duten establezimenduen %70ek dute gaztelera hutsean eta barruan dagoen pintxo zein menu eskaintzaren %35ek". Bestalde, beste datu bat ere nabarmendu nahi izan du zinegotziak: "Oñatiko biztanleriaren %80tik gorak daki euskaraz".

### Harrera ona

Ostalarien aldetik kanpainak harrera ona izan duela dio Udaleko ordezkariak. "Begi

onez ikusi dute. Azken batean, laguntza eskaintza bat izan da". Zehazki, Udaleko Euskara Zerbitzuetik testuak itzultzeko, zuzentzeko edo zalantzak argitzeko laguntza eskaini zaie ostalariei. Kanpainan hamabost jatetxe eta taberna eman dute izena, baina oraindik ere har daiteke parte.

### Erabilera sustatu

Zubiak esan du, baina, kartelak aldatzearena lehen urratsa izan dela. "Bezeroak eurak euskaraz eskatzera bultzatu nahi ditugu". Hala, kanpainan parte hartzen duten establezimenduetan euskaraz eskatzen duten bezeroen artean bi laguntzako afaria zozketatuko da. Bestalde, udan herrira etorriko diren turistek euskarazko paisaia linguistikoa ikustea ere garrantzitsua dela ere badiu. "Kanpotarrek beste hizkuntza bat dugula ikustea garrantzitsua da; ez da herriarrentzako bakarrik". Hain zuzen, horregatik erabaki dute abuztu bukaerara arte luzatzea kanpaina. Irailetik aurrera, bestalde, beste fase bati ekingo diote merkatariekin.

# Erdiguneko piboteen ordutegi berria ez da guztien gustukoa

Kale Zaharreko, Kale Barriko eta Atzeko kaleko zamalan ordutegia ordu bat atzeratu du Udalak, Mugikortasun Planaren baitan, behin-behinerako

T. MADINA / I. GOITIA | OÑATI

Oñatiko Udalak landu duen Mugikortasun Planaren barruan, murriztu egin du, behin-behinean, Kale Zaharreko, Kale Barriko eta Atzeko kaleko zamalanen ordutegia. Helburua da kale horietan sartzeko motordun ibilgailuak zamalanen egitera bakarrik sartzea. Erabakiak, baina, ez du erantzun bera izan bizilagunen eta merkatarien artean; izan ere, bizilagunek begi onez ikusten duten arren, goizean goizetik zabaltzen duten establezimenduak ez daude ados.

### Neurria hiru kaletan ezarri da

Joan den astean sartu zen indarrean Oñatiko Kale Zaharrean zamalanetarako ordutegi berria. Ordura arte, berez oinezkoendako den kale horretan, 08:00etan jaisten zen motordun ibilgailuak sartzeko oztopatzen zuen pibotea, eta 12:00etan jarri. Orain, baina, 09:00etan kentzen dute. Zamalanen ordutegia, ordea, ez da Kale Zaharrean bakarrik murriztu, Atzeko kalean eta Kale Barriko ere ordutegi bera jarri dute eta asteon.

Hain zuzen, ordutegi-murrizketa hori Udalaren Mugikortasun Planaren baitan hartutako neu-

ria da eta helburua da kale horietan sartzeko motordun ibilgailuak zamalanen egiteko sartzea. Izan ere, Udaletik diotenez, udaltzainek egiazatu ahal izan dute Kale Zaharrean, esaterako, autoa aparkatzen duten herritar asko kafea hartu edo gosaltzera joaten direla, eta horrek oztopatu egiten duela benetan zamalanen egiteko sartzeko kamioi eta furgoneten bidea eta baita bizilagunena ere.

### Murrizketaren alde eta kontra

Erabakia ez da guztien gustukoa izan. Bizilagunek onurak ikusten dizkiote, besteak beste, askotan traban izaten dituztelako autoak etxera sartzeko edo etxetik irteko. "Auzokoa izanda, onuragarria da niretzat ordutegia murriztea, goizean umeak eskolara eroateko erosagoa delako", adierazi du bizilagun batek. Beste bizilagun batek nabarmendu du bermatu beharko litzatekeela kalea irekita dagoenean sartzeko diren ibilgailuak zamalanen egiteko sartzeko direla.

Goizean goiz zabaltzen duten dendari eta ostalariek ez daude konforme ordutegi berriarekin. "Bidea itxita badago, bezero

batzuek etortzeari uzten diote. Ordubete atzeratzearen erabakia oso kaltegarria da guretzako. Gero, esaten dute komertzioek bizia ematen diotela herriari, baina gure aurka doazen neurriak hartzen dira", adierazi dute Kale Zaharreko merkatariek. Honako hau gaineratu dute: "Udaltzainek eraman beharko lukete kontrola. Egon daitezela goizeko lehen ordu horietan hemen eta kontrola deztela autoak zertara etortzen diren". Bestalde, Udalak erabakia eurekin kontsultatu gabe hartu duela ere badiote, eta hori ez zaie gustatu. "Denon artean erabaki behar dugu, bizilagun zein merkatarien iritzia hartu behar da kontuan, denok bizi behar dugu eta elkarrekin kalean". Hain zuzen, Kale Zaharreko merkatariek eurek eskatuta, bilera egin zuten astelehenean Udaleko ordezkariarekin, euren iritzia helarazteko.

Udal Gobernu taldeak, bestalde, gogorazari dute erabakia Mugikortasun Planaren arabera hartu dela, eta gaineratu neurria ez dela behin betikoa, behin-behinekora baizik. Hala, kale horietako bizilagun eta merkatariekin lanean jarraitzeko asmoa dutela esan dute.



Udaltzainak pibotea jaisten goizeko bederatziatan, Kale Zaharrean. | IRATI GOITIA

### Acesma elkarteak antolatuta, Kubako egun nazionala bihar

Kubako egun nazionalaren ospakizuna egin dute bihar, Acesmak antolatuta. 11:00etan ekingo diote festari kubatar eta latindar musikarekin, Foruen plazan. Hainbat herrialdeko produktuak erosteko postua ere egongo da bertan. Horretaz gain, kalejira, umeentzako ekintzak, dantzak eta bazkaria ere egingo dituzte.

### Lizargarate elkartearen 50. urteurrena ospatuko dute abuztuaren 24an

Lizargarate eguna abuztuaren 24an ospatuko dute. Aurtengoa berezia da, gainera, Lizargarate elkartearen 50. urteurrena ere bada eta. Egun osoko egitaraua antolatu dute: hamarretakoa, herri kirolak, bazkaria, erronomia eta beste hainbat ekitaldi. Bazkarirako txartelak Urbia eta Arrano tabernetan eta Lizargaraten bertan egongo dira salgai.

### Abuztuari agur esateko, Surf Festa abuztuaren 30ean

Dagoeneko uda sasoiaren ohiko hitzordu bilakatu den Surf Festa egingo dute abuztuaren 30ean, *Kalean* egitasmoaren egitarau barruan. Egun osoko ospakizuna izango da. Goizean Usakon salto lehiaketa egingo dute. Arratsaldean, berriz, sardina erreka egingo dituzte eta musikaz disfrutatzeo aukera ere egongo da.



Kultura Saileko kideak paella banatzen herritarrei Andramaixetan. | M.A.

## Paella bi Andramaixetan, "gutxiago itxaroteko"

6 eta 14 urte arteko gaztetxoek 'Bizikleta festa' izango dute abuztuaren 16an

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Oporrak ate joka dituzte askok, baina oporretan kanpora joan aurretik Andramaixen berri eman gura izan du Kultura Sailak, beste behin. Hala, astean banatu dute egitaraua etxerik etxe.

### Nobedade bi

"Adin guztietarako ekintzak bideratzen saiatu gara. Egunez: kale animazioa, umeendako antzerkiak... Eta gauetz, kontzertuak; hor ere adin guztiek gustuko duten emanaldiren bat ekartzen saiatu gara", argitu du Zigor Quintanillak, Kultura zinegotziak. Eta jaien aurrekontua da 69.229 eurokoa.

Ikurrinari agurra eginda hasi dituzte jaiak abuztuaren 14an, eta aurten, Ane Unanue izango da alkate txikia eta Beñat Larraña-

ga alkateorde txikia. Tradizio bihurtu diren ekitaldiak ez dira falta izango jaietan: mus txapelketa, salbea, Milagroko bandaren emanaldia, txirrindulari lasterketa, profesionalen arteko pilota partiduak, sokamuturra eta herri bazkaria. Ohiko ekitaldiak bai, baina nobedadeak ere bai. Bi aipatu ditu Quintanillak: "Batetik, txirrindulari lasterketarekin batera ume eta gaztetxoendako lasterketak izango dira. Eta bestetik, herri bazkaria gertatzeko beste enpresa bat hartu dugu; bi ontzitan egingo digu hark paella, eta, hala, gutxiago itxaron behar-ko da bazkaltzeko".

Horiez gain, kontzertuak dira nobedade: 14an, Anje Duhalde; 15ean, Hesian talde nafarra; eta 16an, erromeria giroa plazan eta

rock kontzertuak txosnagunean. "Hilaren 17an mariatxiak izango dira, neska taldea. Hala, saiatu gara, batetik, euskal taldeen eta, bestetik, emakumeen presentzia bermatzen", dio zinegotziak.

### Gazte Ekimenak osatua

Gazte Ekimeneko kideen proposamenekin osatu dute egitaraua. Haiak abuztuaren 13an hasiko dituzte jaiak *mozkorra* tomatearen igoerarekin; eta kontzertu sorta handia iragarri dute jaietarako: herriko rock taldeak; Las tea Party DJak; Euskabaret; Arkada Social, The Potes eta Niña Coyote eta Chico Tornado; eta Aldats eta Batek Daki. Horiez gain, egingo dituzte gazte afaria; euskal preso eta iheslarien aldeko bazkaria; eta jolasak plazan.

## Palestinari laguntzeko eskatuko du PSE-EEK

Mozioa aurkeztu du astelehenean egingo duten ohiko osoko bilkuran eztabaidatzeko

M.A. | ARETXABALETA

Ohiko osoko bilkura egingo du udalbatzak astelehenean, hilaren 28an, 18:00etan.

### Hitzarmena Galdianorekin

Hitzarmen baten sinadura eta mozio bi izango dituzte eztabaidatzeko. Hitzarmena da Udalaren eta Galdiano S.A. enpresaren artekoa eta Ibarra kiroldegiko lanei dagokio. Horiez gain, kontu-hartzaileak hainbat jakinarazpen egingo ditu. Eta galderak

eta eskaerak egiteko aukera ere egongo da astelehenean, ohiko bilkura delako.

**Palestinari herriari elkartzasuna**  
Mozio bat EAJ alderdiak aurkeztu du, eta *eus* domeinuaren gainekoa da.

Bigarren mozioa, oster, PSE-EEKo zinegotzi den Jorge de Castrok aurkeztutakoa da: Palestinari laguntzeko eskaera, hain zuzen ere. Zera dio: "Palestinari herriarekin bat egin eta Gazan

umeen eta zibilen aurka egiten dabilzan sarraskia gaitzesten dugu; eta Israelgo gobernuari eskatu erasoak lehenbailehen gelditzeko eta palestinarren lurraldetik ateratzeko". Era berean, Udalari eskatuko dio 2014ko aurrekontutik laguntza bideratzeko hara larrialdietarako laguntza moduan Gazan bizi duten egoera arintze aldera. Mozioa onartuz gero, de Castro zinegotziak proposatu du osoko bilkuran bertan adostea alderdi guztien artean zenbat diru bidali. Eta laguntza humanitarioaren ardura duten nazioarteko erakunde bitartez bideratuko dute hori gero.

Gainera, aretxabaletarrak animatu gura ditu palestinari herriari elkartzasuna adierazteko egingo diren ekintzetan parte hartzeko.

## Eguraldiak ez lagundu arren, udaleku "bikainak" izan dira

M.A. | ARETXABALETA

Hiru aste egin dituzte herriko udalekuan 4 eta 12 urte arteko 301 neska-mutikok, eta martitzenean bukatu zituzten, jaialdia eginda. Ikuskizun polita eskaini zien talde bakoitzak gainerako lagunei eta senideei; abesti ezagunen doinuekin egin zuten dantzan Herriko Plazako agertokian: Txirri, Mirri eta Txirribitonen *Saturnino*, Gati-buren *Alkondarie* eta beste hainbat. Hiru asteotan lagun izan dituzten 31 begiraleek ez zuten gutxiago izan gura, eta pirata jantzita eta ezpatak airean zituzeala agertu ziren kantuan eta dantzan.

### Barruko ekintza gehiago

Eguraldia ez dute lagun izan egun askotan: "Ondorioz, beste batzuetan baino ekintza gehiago egin ditugu barruan; ludotekan eta gaztelekuan dagoen sukaldean, esaterako. Kokalekuak aldatu egin ditugu, baina egin barik ez dugu ezer utzi", jakinarazi du Lur Delgadok, arduradunetako batek. Hala, herri inguruko auzotara irteerak egin dituzte, Galartzara gaua pasatzera joan dira eta Garaion (Araba) izan ziren guztiak elkarrekin joan den egubakoitzean. "Ez dugu inolako arazorik izan, eta bikain pasatu dugu", gaineratu du Delgadok.



Neska-mutikoak, mozzorrotuta, jaialdiko ikuskizunari begira. | IRATXE BENGOA



PORTASOLGO BATZORDEA

## "Eskerrik asko auzotarrei!"

Jaien ondorenak zapora gozoa utzi du Portasolen. Antolatzaileek eskerrak eman gura dizkiete auzotarrei eta Udalari, eta gogorarazi zozketako zenbakiak: 2.442; 4.169; eta 2.401. Argazkian, jaietan xakean jardun zuen mutiko kuadrilla: Oier, Galder eta Aitor, txapeldunak; eta Harri, Ibai, Xabi eta Ibai, sariak eskuetan dituztela.

### Ibarra kiroldegiak abuztuaren 11tik 17ra hartuko ditu oporrak

Uztailaren 26tik abuztuaren 31ra bitartean udako ordutegia izango du Ibarra kiroldegiak: astelehenez zapatuta, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara; eta domeketan eta jaiegunetan, 09:00etatik 14:00etara.

Abuztuan, oster, itxita egongo da astebete: 11tik 17ra bitartean.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

**ALTZARIAK**  
**DISEINUA**  
**APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

# Iparragirre-Guenetxeari babesia emateko elkarretaratzea egin dute

Auzitegi Nazionalak deitu ditu 1981ean sinatutako deklarazioa berresteko

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Auzitegi Nazionalan deklaratu dute asteen Iparragirre-Guenetxea sendiko lau kidek. Larraitz Iparragirrek gogorarazi duenez, 1981ean, familiako bost kide atxilotu zituzten, eta Gasteizko Polizia Nazionalaren egoitzan hamar eguneko inkomunikazioa jasan ostean, poliziek idatzitako deklarazioa "mehatxupean eta abokatu barik" sinatu zuten.

33 urte geroago, Auzitegi Nazionalan deituak izan dira horietako lau, lekuko moduan deklaratzeko. Garai hartan *Araba* komandoko kide izatea leporatzen dioten Lorenzo Aiestaran epaitzen dabilta egunotan Auzitegi Nazionalan. Eta hain justu, 1981ean sinatutako deklarazioa berresteko deitu zituzten eguaztenean eta eguenean.

## Ama Bergararik

Anai-arrebek Madrilera joan behar izan zuten. Hasiera baten, 81 urteko Maria Luisa Guenetxea ama ere Madrilera joateko deituta zegoen, baina helegitea aurkeztu eta, azkenean, Bergarako epaitegian deklaratu zuen, bideo-konferentzia bidez. Azken horren harira, honako hau salatu du



Plazan egin zuten elkarretaratzea, martitzen arratsaldean. | MIRIAN BITERI

Larraitz Iparragirre alabak: "Orain dela bi urte ere egon zen deituta, eta Madrilera joan behar izan zuten. Orain, behintzat, lortu dugu Bergararik deklarazioa; bidegabekoa iruditzen zitzaigun".

Eskoriatzako Presoen Lagunak deituta, familiari babesia helarazteko eta konponbide demokratikoaren bidean pausoak ematen jarraitzeko konpromisoa berresteko elkarretaratzea egin zuten martitzenean plazan. Honako hau arbuiatu zuten: "Batetik, Euskal Herrian egun bizi dugun

egoeran ez du inongo zentzurik horrelako ekimen judizialak egiteak. Bestetik, salatzea deklarazio horiek torturapean hartu zirela, eta, gainera, gero konstituzionala ez zen lege baten menpean".

## Mozioa ere onartuta

Elkarretaratzea egitearekin batera, mozioa ere aurkeztu zuten; martitzeneko osoko bilkuran jardun zuen udalbatzak horren gainean. Bilduko eta Elizateetako ordezkarien babesia jaso zuten, eta zinegotzi jeltzalearen abstentzioa.

# Puri Regidorrek zinegotzi kargua hartu du eta Iñaki Madinabeitiak, osterara, utzi

Udalbatzak ohiko osoko bilkura egin zuen martitzen arratsaldean

M.B. | ESKORIATZA

Udako oporren aurreko azken osoko bilkura egin zuten martitzenean. Besteak beste, Iñaki Madinabeitiak Elizateetako zinegotzi karguari uko egin izanaren berri eman zen han; eta baita zerrendako hurrengo hautagai Dorleta Aperiibaik kargua hartzeari uko egin diola ere. Zinegotzi kargua hartu zuena Puri Regidor izan zen; EAJ-PNVko zinegotzi berria da, Aitor Urrutiaren ordeza.

Kargu uzte horiek eragina izan dute udal batzorde informatzaileen

eta hainbat erakunde eta elkarten osan, eta martitzenean, izendapen berriak ere egin ziren. Aurrerantzean, Puri Regidor izango da EAJ-PNV udal taldeko bozeramailea, eta Urrutiak parte hartzen zuen erakundeetarako udal ordezkari ere izendatu zuten. Elizateetako elkarteko bozeramaile eta bestelako izendapenak irailean zehaztekoan geratu ziren.

## %0,3ko igoera

Bestalde, udal haur eskolako zerbitzuaren erabiltzaileek hurren-

go ikasturtean ordaindu beharreko tarifak ere onartu zituen udalbatzak, aho batez. %0,3ko igoera izango dute horiek. Zaharren egoitzan Jose Arana patronatuak egindako obrak gizartearen interesekotzat jotzearen alde ere agertu ziren zinegotzi guztiak; horri esker, obra tasan %95eko hobarria izango dute.

Bestetik, Ezker Anitzak Gazako egoerari buruzko mozioa ez zen eztabaidatu, Juan Luis Merino zinegotzia ez zelako izan osoko bilkuran.

# Eratu eta Kashbad taldeekin agurtuko dute bihar Errekan Gora jaialdia

M.B. | ESKORIATZA

Amaiera borobila emango diote bihar, zapatua, Aitzorrotz Kultura Elkarteak antolatutako Errekan Gora jaialdiari. Kashbad eta Eratu taldeak arduratuko dira horretaz.

Santa Mariñe plazan joko dute, 22:00etan. Eratu taldekoak izango dira agertokira igotzen lehenak; haiek amaitzean, *Arrakala* izeneko lan berria aurkez-

tuko dute Kashbad taldekoek. Aitzorrotzekoek jakinarazi dute barra zerbitzua jarriko dutela, 20:00etan hasita.

Orain arte Errekan Goran parte hartu duten taldeen balorazioa ere egin du Iñaki Kortazar antolatzaileak. "Oso pozik" daudela jakinarazi du, kontzertu guztiek "bere tokia" izan dutelako eta harrera "ezin hobea" izan dutelako.

# Abuztuaren 4tik 8ra bitartean bisita gidatuak egingo dituzte Ibarraundikoek

M.B. | ESKORIATZA

Aurten ere bisita gidatuak gertatu dituzte Ibarraundi museoek. Abuztuaren 4tik 8ra bitartean izango dira horiek: hain justu, astelehenean, abuztuak 4, Zubiaterako labea ikusteko aukera izango da; martitzenean, Elorretako errota; eguaztenean, Ibarraundi museoa;

egunean, Eskoriatzako herria; eta egubakoitzean, Aitzorrotz. Azken horretan, ingurune horretan egiten diharduten lanak azalduko ditu Iñaki Sagredo historialariak.

Bisita guztietarako hitzordu bikoitza dago: 11:00etan, euskaraz izango dira azalpenak, eta 12:00etan, gazteleraz.

# Urtero moduan, abuztuan ordutegi berezia izango dute udal zerbitzuek

M.B. | ESKORIATZA

Ordutegi berezia dute udal zerbitzuek. Udaletxea 10:00etatik 13:00etara dago zabalik. Bestalde, kultura etxea itxita dago abuztuan; eta baita liburutegia ere, uztailearen 31tik abuztuaren 24ra. Uztailearen 30era arte eta abuztuaren 25etik 10:30etik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara egon-

go da hori zabalik. Ibarraundiko ateak ere itxita egongo dira abuztuaren 9tik 31ra, biak barne.

Kiroldegia dagokionez, abuztuan, astelehenean egubakoitzera 10:00etatik 14:00etara egongo da erabiltzaileen eskura. Azkenik, Hondakinen Bulegoaren ordutegia, astegunetan, 10:00etatik 15:00etara da.

## OHARRAK

### IKASTAROA

Gorosarri landetxean positiboa izaten ikasteko ikastaroa dago martitzenean, goizez eta arratsaldean. Interesatuak etzi, domeka, baino lehen eman behar dute izena 607 11 53 97 telefono zenbakian edo [teresa.aranzibia@jario.es](mailto:teresa.aranzibia@jario.es) posta elektronikoa.

### JOLASGUNEA

Udaleku irekiak atzo amaitu baziren ere, Santa Mariñe pla-

zako jolasgunea eguaztenean arte zabalik egongo dela jakinarazi du Udalak (hilak 30). Kiroldegiko obrak direla eta, umeendako gunea egokitu dute aurten; egunero, 18:00etatik 20:00etara bitartean, mahai-futbolak, sareak, saskiak, ping-ponga eta baloiak daude erabiltzari plaza horretan; bero egiten duen egunetan, uraren ihintzagailua ere zabaltzen da, haurrek jolas egin dezaten.

**LENIZ**  
ESKORIATZA



## KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika



# Zupideko biribilgunea aurten egin gura du Udal Gobernuak

Udalak, Gipuzkoako Aldundiarekin adostasuna lortu ostean, lurak eskuratuko ditu biribilgunea egiteko

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Azaroan hasi gura ditu Udalak Zupideko biribilgunea egiteko lanak. Herriak azken 25 urteetan eskatu eta desiratu izan du hori. Aurten, Diputazioarekin lortutako adostasunari esker posible izango dela azpimarratu zuen Ima Beristain alkateak martitzeneko osoko bilkuran: "Hiru urte daramatzagu lanean, eta aurten lortu dugu adostasuna Aldundiarekin. Hala, Zupide baserriko lurak eskuratuko ditugu. Urte bukaerarako egitea posible izango dela uste dugu".

Hirigintza teknikari Valen Moñuxek dio biribilgunea txikiagoa izango dela: "Aurreikusitako lehenengo obra oso garestia zen eta oraingoa karril bakarrekoa izango da. Hainbat irtenbide aztertuta, proiektua ondo egokitzera erabaki da. Karril bakarra izatea nahikoa dela aztertu da; beraz, biribilguneak 27 metroko diametroa izango du".

Begarako noranzkoan datorrenak Antzuolan sartzeko errepeida zeharkatu behar du. "Egun, biribilgunea da irtenbiderik onena. Hiru sarrera ditugu herrian eta biribilgune bat ere ez. Ezinbestekoa da Zupidekoa egitea. Autobusendako sarrera egokia da eta herrian ere ez lirake sartuko. Herriko zirkulazioa asko hobetuko da; izan ere, aurrera begira zirkulazioan aldaketak egiteko aukera eskaintzen du".



Zupideko biribilgunea egingo dute erretratuko GI-632 errepeida zatian. | M.A.

## Diru laguntza itzuli beharra

1998an, Olaran berritzeko Europako diru laguntza jaso zen: 174.000 euro inguru. 2006an, ordea, Europatik etorritako ikuskaritza batek atzera bota zuen laguntza, zenbait baldintza ez zirelako betetzen. Orain, hamaika urteren ostean, kopuru hori itzuli beharra dauka Udalak, derrigor. "Soberakina daukagu, zintzilik zegoen ordainketa hori egiteko. Behartuta gaudete eta epe laburrean egin behar da, gainera". Horregatik, urgentziatzeko kreditu aldaketa onartu zen osoko bilkuran.


## Bide bakarrekoko biribilgunea

Horixe da proiektuaren lehen trazatua. Hainbat irtenbide aztertuta, bide bakarrekoa izango da biribilgunea.

Horrelako errepeida eta obra batendako nahikoa dela azaldu du Valen Moñuxek.

400 metro karratuko azalera dauka desjabetuko den lursailak. Eta lanek irauten duten bitartean, 200 metro karratu okupatuko dira.

Irailean jarriko da proiektua jendaurrean eta herritarrek alegazioak aurkezteko epea ere zabalik izango dute.



ANTZUOLAKO UDALA

## Iñaki Agirre: "Futbolak urte hauetan eman didan handiena lagunak dira"

Antzuola futbol taldeak aldaketekin hasiko du denboraldi berria; lau jokalaririk garrantzitsuk taldea utzi dute eta entrenatzaile berriak izango ditu

M.A. | ANTZUOLA

Iñaki Agirrek, hamar urteren ostean, Antzuolako taldeari agur esan dio, 28 urterekin: "Pena eman dit, baina urratsa egin beharra dago". Taldea goian utzita eta helburua beteta doa kapitain ohia: "Orain dela lau urte futbolak utzi gura nuen, baina klubak eskatuta jarraitu dut. Izan ere, beheko kategorietatik ez zetorren jokalaririk. Horregatik, jarraitzea erabaki nuen. Baina iaz igo ostean erabakia hartuta nuen: aurten azkena izango zen". Infantiletatik gazte mailara arte Urolan aritu zen. "Antzuolan ez zegoen talderik eta horregatik joan nintzen Urolara. Gazte mailatik berriro Antzuolara etorri nintzen, lagunekin batera aritzeko".

Futbolak asko eman diola dio. "Futbolak eman didan handiena



Agur esan duten jokalariei agurra egin zieten. | IÑAKI AGIRRE

lagunak dira. Zaila da errotik moztea futbolarekin dudan harremana, eta, horregatik, tarteka entrenatzera ere joango naiz Eztalara", gaineratu du.

## Baja garrantzitsua

Baina Agirre ez da taldea utzi duen jokalaririk bakarrik. Josu Zubikarai eta Josu Asensio betaranoek ere agur esan diote taldeari. Aipa-

tu behar da Jon Iturbek Beasainen jokatu duela aurrerantzean. "Atezain gaztea da Iturbe eta aukerak ditu. 22 urte ditu, eta ea han ikasteko aukera daukan".

Antzuolarendako baja garrantzitsua diren arren, taldea ondo ikusten du Agirrek datorren denboraldiari begira.

## Murua eta Garin entrenatzaile

Jon Murua eta Ekain Garinek hartuko dute Antzuolaren gidaritza aurrerantzean. Ilusioz eta gogotsu daude arrasatearrak. Jokalariak oso gustura daude eta harrera bikaina egin diete bi entrenatzaileei. "Dagoeneko entrenamenduak egin dituzte Muruarekin eta Garinekin. Herriko jaien aurretik egin zuten lehen. Ondo egingo dituzte lanak".

Bai Murua eta baita Garin ere eskarmentudun jokalaririk dira. Gainera, Mondran entrenamendu saio asko egindakoak dira biak ala biak.

Oraindik fitxaketak izan ditezkeela dio Agirrek. "Urtea luzea egiten da eta jokalaririk beharra dago; oraindik ez dago taldea osatuta; kapitaina zein izango den ere ez dago erabakita", dio.

## NIRE USTEZ

ALAITZ JAUREGI



## Gora Antzuolako jaixak!

Ointxe jaixak bukatu ditudugula-eta (sanfermiñetan bezela), datorren urtekuak preparamen hasi beharko gara. Egia esan, beti izen dia berezixak Antzuolako jaixak, eta aurtengueak be holaxe izan dia. Eta badakizue zer? Bai jaixak aurrera etartzeko, bai ekintzak antolau eta egitteko, bai hau eta bai bestia egitteko gutxi batzuk jardun dabela jo eta fuego lan eta lan. Hori da meritua!

Eguneko zortzi lanorduak 24 bihurtzen jakue. Zenbat ardura, zenbat burukomin, zenbat gau lorik egin barik, egitteko daren gauzei bueltak emuten, azken momentuko ezustiei konponbidia topatzen.

Herritarrok beti kejavu izen gara (neuregandik hasituta): "Hau hobeto zan beste modu batera egittia, hau ez jakula gustau, bestia ez dakit zer...".

Hobe giñuke beste batzuk borondate eta ilusiño guztia egin dabena eskertzia, erei esker egitten baitia herriko jaixak. Eta bide batez be, aber danok hurrengo urtietan pixkatxo bat gehixau inplikatzaren garen (neu lehena) jaixak, urtero bezela, onak, alai eta aberatsak izan deixen, hobeto esanda: sekula baiño jai hobiai izan deixen. Beraz (peloteo pixkat egittia ez jaku bape geizki etorriko-eta), milla esker: Jone, Valen, brigada, alkate, kontzejal, gaztetxe, langille, ez langille eta parte-hartzaille guztioi!

Gora Antzuola eta antzuolarrak! Gora!

## Udal zerbitzuek ordutegi berezia izango dute abuztuan

Udal ordutegi berezia izango du abuztuan. Hala, bulego orokorrek eta gizarte zerbitzuak goizeko bederatzietatik eguerdiko ordu bata arte zabalik egongo dira herritarren zerbitzura.

Bake epaitegiak normal jardungo du; ohikoa den moduan, eguenetan 09:00etatik 14:00etara egongo da zabalik, hain justu ere.

Liburutegia eta udal gimnasioa itxita egongo dira abuztuan.

Herriko kirol instalazioak, aldi -pilotalekua eta Eztala futbol zelaia-, abuztuan egun osoz zabalik izango dira herritarrek erabiltzeko.



Soriako hiriburutik gertu obretan dagoen instalazioa.



Galdarak bertatik bertara bisitatu zituzten.

# Biomasa ereduak ezagutzen, bertan ezarri aurretik

Biomasa Batzordeak Olvegako (Soria) instalazio bat bisitatu zuen: "Oso aberasgarria izan da"

**JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO**  
Martitzenero udaletxean elkartzen den Biomasa Batzordeko kide gehienek eta proiektuarekiko interes berezia duten herritarrek Soriako Olvega herrira egin zuten bisita hilaren 18an. Biomasa

Batzordea Udaleko ordezkariak eta herritarrek osatzen dute; Udaletik joan ziren Ramon Aju-ria alkatea, Mendietako zinegotzi Martin Ibabe, Ingurumen teknika-ria, aparejadorea, Aramaio Basarri Barri egitasmoko ordez-

kari Aitor Larrañaga eta udal idazkari Eñaut Azkoaga.

Olvegan martxan duten *District Heating* instalazio bat ikustera joan ziren, egurrezko ezpalarekin berotutako ura garraiatzeko sarea bertatik bertara ezagutzera: "Instalazio horrekin Olvegako hainbat eraikin publiko, ikastetxe, enpresa eta zenbait etxebizitza pribatu ur beroaz hornitzen dira egun. Bertako instalazioa kudeatzen duen enpresako teknikari batek euren esperientzia eta aspektu teknikoak azaldu zizkigun", adierazi dute. Bertan, bederatzi megawatteko potentzia dute, hiru megawatteko galdaretan banatuta. Gero, eraikitzen ari diren beste instalazio bat bisitatu zuten, hiriburuan. Azaldu dutenez, planta berri horrek hamalau megawatteko potentzia izango du, eta, eraikin publikoek

gain, etxe pribatu batzuk ere hornituko ditu.

## Bateragarriak diren ondorioak

Izan ere, bisitaren helburua izan da dagoeneko martxan dauden instalazioetatik ikastea: "Beste gune batzuetan arrakastatsua diren esperientzietatik ikasi gura dugu, ikasitakoa etorkizunean Aramaio proiektuan aplikatu ahal izateko".

Bisitarekin pozik geratu ziren: "Oso aberasgarria izan zen. Hala-ko proiektu bat martxan jarri aurretik, beste esperientzia arrakastatsua batzuk ikustea ondo datorkigu, eurek izandako oztipo edo akatsak ekiditen saiatzeko. Bide batez, gure proiektuarekin bateragarriak izan daitezkeen ondorioak atera ahal ditugu".

## Potentzia, alde nabarmenena

Olvegako proiektua eta Aramaion ezarri gura dena ez dira berdi-

nak, baina "lotura handiak" dituzte: "Olvegako planta hornitzeko bertako edo ingurueta-ko egurra erabiltzen dute. Horrek lotura handia dauka gurean martxan jarri gura den proiektuarekin, energia berritzaile eta jasangarria kontsumitzeaz aparte bertako egur baliabideak erabiltzea delako asmoa". Potentzia da alde nabarmenena; Sorian eskaria askoz handiagoa da: "Han kontsumoa askoz altuagoa da, baina halako potentzia izateko lekua ez da handia. Bestalde, oraindik obretan dagoen instalazioan hilabete bakar baten egindako aurrerapena itzela izan da. Lan nekeza egin dute, besteak beste, bezeroak lotzen eta Udalaren baimenak lortzen. Baina hilabete bakarrean horrenbeste aurreratu izanak arreta eman zigun". Irailean hasiko da herritarrak sentsibilizatzeko kanpaina.



Bisitaren ostean bazkaria egin zuten, bueltatu aurretik. | ARGAZKIAK: ARAMAIOKO UDALA



Aurtengo udalekuan parte hartu duten haur eta begiraleen talde argazkia, pilotalekuan. | ANA MUÑOZA

# Ekintza berriekin, "oso ondo" egon dira udalekuak

Eguraldia ekintza bakarra zapuztu du; Otxandioko igerilekuetarako irteera izan da arrakastatsua

**J.B. | ARAMAIO**  
Martitzenean amaitu ziren udalekuak. Hilaren 9a ezker 111 umek -azken orduan lau haurrek eman zuten izena- askotariko ekintzez gozatu dute: "Aurten ere oso ondo egon dira", dio Ana Muñoz arduradunak. Eguraldia beste urte batzuetakoa baino eskasagoa izan arren, ekintzetan ez du apenas eragin: "Irteera bat ez dugu egin, Andra Mari ermitara egin behar zena. Otxandioko igerilekuetara egin ditugun irteeretan,

adibidez, sekulako eguraldia izan dugu. Arrakastatsua den ekintza denez, garrantzitsua da eguraldi ona egitea; aurten, primerakoa egin du".

## Ekintza asko landa eremuan

Ekintzei dagokienez, landa eremuan egindakoak nabarmendu ditu Muñozak; horren adibide da Gantzagako ortu ekologiko batera egindako irteera: "Hainbat umek ortua dute etxean, baina ekologikoa ez. Konturatu dira

ezberdina dela, eta asko ikasi dute". Horrez gain, txikienek brokoliak landatu zituzten. Bestalde, Ur eta Zikin Eguna ere "asko" gustatzen zaie umei, udalekue-tako arduradunaren arabera.

## Azken festa ere, "oso ondo"

Martitzenero azken festan munduko askotariko arrazez moztortu ziren, taldeka. Ikuskizuna Bizente Goikoetxea plazan eskaini zuten eta "oso ondo" egon zen: "Oso denbora laburra izaten dugu koreografiak prestatzeko eta ikusi da begiraleek lan handia egin dutela. Umeak gustura ibili dira, eta baita ikusleak ere".

Espero baino lehenago amaitu zuten. Hala, askari handia (merendola) parkean egin ostean, jolas librerako tarte ere izan zuten. Datorren urtera arte!

## Santiago jaiak gaur Gureian: Xabi Igoaren eta Paula Amilbururekin bertso bazkaria, besteak beste

Gaur, Santiago eguna, jaiak ospatuko dituzte Gureia auzoan. Adin eta gustu guztiak asetzeko moduko egitaraua prestatu dute auzotarrek: meza (12:00), trikitalariek girotutako poteoa (13:00), bertso bazkaria Xabi Igoa eta Paula Amilburu bertsolari aramaioarren eskutik (14:30) eta umeendako jolasak bazkalostean. Antolatzaileen arabera, 25 bat lagun espero dituzte bazkarian; umeendako jolasak honako hauek izango dira, betiere, eguraldia laguntzen badu: ur jolasak, *Altxorraren bila* eta askotariko tailerrak.



XABI IGOA

## Santa Marina jaiak, "giro onean"

Joan den aste bukaeran Santa Marina jaiak ospatu zituzten Arexolan. Egubakoitzean, Sebastian Lizasok eta Aitor Mendiluzek girotutako bertso afarian 85 bat lagun elkartu ziren. Zapatu eguerdiko ziklismo proban 30 txirrindulari inguruk hartu zuten parte. Auzotarren arabera, "oso giro onean" joan dira aurtengo festak.

## ELGETA

# Hondakinendako ekarpen-guneen banaketa gertu dago

Egokitutako ekarpen-gunea aldatu gura dutenek irailaren 5era arteko epea dute eskaera egiteko

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Udalak eta Debagoieneko Mankomunitateak lanean dihardute Elgetan hiri-hondakinak biltzeko sistema berria ezartzeko. Erabakita dago, esate baterako, ekarpen-guneak zortzi izango direla eta, gutxi gorabehera, gaur egun duten kokapena izango dutela.

Tartean txipa duten edukiontziak egongo direnez, nork bere ekarpen-gunea erabili beharko du, eta Udalak eginda dauka banaketa nork zein ekarpen-gune erabili beharko duen. Hain zuzen, Udalak egunotan banatuko ditu eskuorriak etxerik etxe; aldaketarik eskatu nahi izanez gero, berriz, irailaren 5era arte dute herritarrek.

## Lehen aldaketak udazkenean

Abuztuan, ekarpen-guneak dimentsionatuko ditu Elgetako Udalak. Iraileko lehenengo hamabostaldian hasi dituzte sistema berria herritarrei aurkezteko ekimenak. Besteak beste, informatzaileak ibili dira herrian.

Eta, gauzak ondo bidean, iraileko bigarren hamabostaldirako aurreikusten du Udalak kuboen eta txipen banaketa.

Martitzenean elkartuko da udalbatza uztaileko osoko bilkura egiteko. Eta, besteak beste, bilketa sistema berria ezartzeko onarpen ofiziala egitea izango dute mahai-gainean.

## Kafe antzokiaren esleipena

Udalbatzak martitzenean mahai gainean izango duen beste gaietako bat Espaloia kafe antzokiaren esleipen berria da.

Sebastian Rodriguezek, Batirtze Arantzabalek eta Virginia Imazek osatutako lantaldea da lehiaketa publikora aurkeztu den bakarra. Onartuz gero urtero berritu daitekeen lau urterako esleipena izango litzateke.



Salbador eguna, orain dela bi urte. | LEIRE KORTABARRIA

## Salbador eta San Roke jaiak izango dira abuztuan

L.Z. | ELGETA

Santiago eguna da gaur, eta ospakizuna dute Goimendi auzoan. Egun osoko egitaraua prestatu dute, 11:00etan hasita. Meza eta soka-dantza egingo dituzte lehenengo. Bertsolariak,

trikitilariak eta herri kirolen erakustaldia ere egongo dira.

### Salbador eta San Roke

Abuztuan beste bi jai ospatuko dira Elgetan: Salbador eguna eta San Roke eguna. Salbador

eguneko bazkarirako txartelak salgai daude Haizea eta Patxi tabernetan. San Roke eguneko bazkarirako txartelak, berriz, Haizea tabernan, Maialde landetxean eta Ugari dendan egongo dira salgai laster.

### SANTIXAU EGUNA

#### UZTAILAK 25

11:00 Meza, ermitan.

12:00 Soka-dantza.

12:30 Bertsolariak eta trikitilariak.

13:00 Umeendako jokoak.

18:00 Herri kirolak.

19:00 Bertsolariak eta erromeria. Tartean, zozketa.

### SALBADOR EGUNA

#### ABUZTUAK 6

12:00 Meza, ermitan. Ondoren, mokadutxoak, buruhandiak eta bolo-jokoa.

14:00 Txikiteoa auzoko tabernetan.

15:00 Auzo-bazkaria. Bazkalostean, Jose Gardoki soinu-jolea.

### SAN ROKE EGUNA

#### ABUZTUAK 16

00:01 Su-artifizialak eta iazko argazkiak ikusgai.

11:00 Etxafuegoak.

12:00 Meza ermitan. Ondoren, pintxoak.

13:30 Triki-poteoa.

14:30 Bazkaria.

17:00 Erromeria.

## Eskolako lanak, azken txanpan

Azken txanpan dira herri eskolako lanak. 2 urteko umeen gelak itxura berria du: handiagoa eta zabalagoa da. Irailean talde handia hartuko du gela horrek, eta ezinbestekoa zen handitzea. Kanpoko aldean, berriz, ur-filtrazioak saihesteko lanak egiten ari dira Goitu enpresako beharginak.



## LEINTZ GATZAGA

## Gatzaren negozioa bideragarri ikusten du Leintz Gatzagako Udalak

Gatza ateratzeko aukeraren bideragarritasun plana landu, eta orain entregatuko dute

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Udalerriko gatz fabrika bideragarri dela uste du Gatzagako Udalak, eta, negozioa berrabiaraziz gero, lanpostuak sortuko lituzkeela ere bai.

Horixe ondorioztatu dute gatzarekin atzera ere negozioa lor daitekeen aukera aztertze hila bateotan landu duten bideragarritasun planetik. Hala, orain, landutakoaren errepasoa

egin, eta abuztu aurretik Debagoieneko Mankomunitateari aurkeztuko diote emaitza. Izan ere, Debagoiena Eraldatzen izeneko proiektu orokorraren zati bat da Leintz Gatzagako gatz fabrikaren gainean landutako proposamena.

### Ur-gaziko iturburu bakarra

"Hainbat atal landu ditugu bideragarritasun planean: gaur egun-

go egoera zein den, gatzaren merkatuaren egoera zein den eta gatzaren ekoizpenaren eta gatzaren salmentaren analisisa", jakinarazi du Eugenio Otsoa alkateak.

Bada, bideragarritasun plana Mankomunitateari entregatu ostean, hark Debagoiena Eraldatzen proiektu osoa Gipuzkoako Foru Aldundiari emango dio, eta erakunde horrek izango du gaierikiko azkeneko berba. "Gipuzkoan ur-gaziko iturburu dugun herri bakarra izanda, eta hortik gatza ateratzeko baliabide guztiak eskura izanda, Gipuzkoarendako eta Debagoieneko oso proiektu interesgarria dela uste dut. Gurean jatetxeena da dugun jarduera ekonomiko nagusia, artisautzarekin lotutako negozio txiki batzuekin eta ganaduarekin lotutakoekin batera; beraz, oso ondo

legoke halako zerbaitek aurrera egitea", azpimarratu du Gatzagako alkateak.

"Gatz ekologikoa aterako genuke, lanpostuak sortuko lirateke eta, gainera, konbinatu ahal izango litzateke gatzaren negozioa gaur egungo Gatz Museoaren jardun turistikoarekin. Uste dut denon artean zerbait onuragarria egin ahal izango genukeela", gaineratu du Otsoak.

### Museoa, abuztuan ere zabalik

Bien bitartean, Gatz Museoak jarduera turistikoarekin segituko du, azken urteotan moduan. Abuztuan, gainera, ez ditu atea itxiko, eta ohiko ordutegiarekin jardungo du. Bisiten ardura Eugenio Otsoa alkateak berak, Kultura zinegotzi Iñaki Agirreurretak eta Turismo teknikari Iraitz Lazkanok izango dute.

## Abuztuan ez da medikurik izango Leintz Gatzagan

Irailean 3ra arte, gatzagarrek izaten duten mediku zerbitzua eten egingo da, oporreratik. Hau da, ez da medikurik izango Gatzagan bertan. Osasun kontuetarako Eskoriatzako anbulatoriara jo beharko da, 08:00etatik 15:00etara bitartean (943 71 44 52). Eta 15:00etatik 17:00etara tokatzen bada mediku beharra, orduan Aretxabaletako anbulatoriara jo beharko da (943 71 19 59). Eta 17:00etatik aurrera tokatuz gero, Arrasateko Eskualdeko Ospitalera (943 03 53 00).

Bestalde, eta udal zerbitzuei dagokienez, hor ez da aldaketarik izango eta urteko jardun arrunta izango dute.

**FUTBOLA**

# Eibar futbol taldeak Atxabalpe zelaia egokituko du, han entrenatzeko

- ▶ Arrasateko Udalak eta kirol elkarteak urtebeterako hitzarmena sinatu zuten eguaztenean
- ▶ Egoera txarrean dago zelaia; eta lanak amaitu arte, Bergarako Agorrosinen arituko dira armaginarik

IRATI GOITIA | ARRASATE

Arrasaten dagoen Atxabalpe futbol zelaia erabiliko du Eibarrek entrenamenduetarako. Horrela hitzartu du kirol elkarteak Arrasateko Udalarekin.

**Urtebeterako akordioa**

Eguaztenean sinatu zuten hitzarmena Inaxio Azkarragaurizar Arrasateko alkateak eta German Albistegi Eibar Kirol Elkarteak Administrazio Kontseiluko kideak. Ekitaldian izan ziren Joserra Askasibar Arrasateko Udaleko Kirol zinegotzia eta Gorka Unamuno Atxabalpeko obrak zuzenduko dituen arkitektoa ere.

Urtebeterako akordioa da sinatu dutena eta urtero berritzeko aukera izango dute bi aldeek. Hitzarmenaren arabera, Eibarrek entrenamenduetarako bakarrik erabili ahal izango ditu Atxabalpeko futbol zelai zaharreko instalazioak: zelaia eta aldagelak. Ez, ordea, errekatik hurbilen dauden harmailak, ezin daiteke-eta egoera onean daudela bermatu.

Eibarrek entrenamendu saioetarako zelai baten beharra zuen, eta halaxe esan zuen Belastegik sinadura ekitaldian: "Guk badaukagu gure zelaia, baina egunero han entrenatuz gero, hondatu egingo da. Beraz, entrenatzeko propio erabiliko dugun zelaia



Azkarragaurizar eta Albistegi hitzarmena sinatzen eguaztenean. | JAGOBA DOMINGO

behar genuen. Libre zegoena eta belar naturalekoa. Izan ere, badugu zelai artifiziala ere, baina entrenatzaileak belar naturalekoa nahi du".

**Eraberritze lanak**

Eibarrek 600 euro ordainduko dizkio, hileroko, Arrasateko Udalarik eta bere gain hartuko ditu

Atxabalpe konpontzeko lanak. Izan ere, futbol zelaia ez da 2007az geroztik erabiltzen eta oso egoera kaxkarrean dago. "Orain sartuko da Laziturri enpresa zelaia eta aldagelak ondo jartzera, eta pentsatzen dugu azaro edo abendu bueltan Arrasaten entrenatzen hasiko garela; akaso, baita lehenago ere", zioen Albistegik. Eiba-

rrek hartuko ditu bere gain memorien eta bestelako gastuak: argindarra eta abar. Instalazio horien mantentze-lanak ere bere gain hartuko ditu.

Arrasateko alkateak positiboki baloratu du armaginekin eginiko akordioa: "Pozgarria da; izan ere, erabili gabe egon da gune hori urte askoan. Udalak

biltegi bezala erabili izan du eta nahiko utzita egon da. Beraz, errekuiperatzea poztekoa da".

**Bien bitartean, Agorrosinen**

Lanak amaitu bitartean, Bergarako Agorrosinen entrenatuko dira Garitonoren mutilak. Uztailaren 14an hasi zituzten armaginek denboraldi-aurreko saioak.

**ESANAK**

**"Libre zegoen, belar naturaleko zelaia behar genuen entrenatzeko"**

GERMAN ALBISTEGI  
EIBAR KE-KO ADMINISTRAZIO  
KONTSEILUKO KIDEA

**"Utzita zegoen gunearen erabilera errekuiperatzea pozgarria da"**

INAXIO AZKARRAGAUZAR  
ARRASATEKO  
ALKATEA

**DATUA**

**600**  
EURO

Eibarrek 600 euro ordainduko dizkio, hileroko, Arrasateko Udalarik Atxabalpe erabiltzeagatik.

**ATLETISMOA**

## Oso gutxigatik, baina finalerako kanpo geratu da Malen Ruiz de Azua

3,90eko markan balio gabeko bi salto egiteak utzi zuen Ruiz de Azua eguneneko finalerako kanpo

XABIER URZELAI | ARRASATE

Martitzenean amaitu zitzaion Malen Ruiz de Azuari AEBetako abentura (Munduko Junior Txapelketa), eta baita denboraldia ere. Malen Ruiz de Azua ez zen eguneneko finalerako sailkatu, eta 15. sailkatuta amaitu du txapelketa -rankingean 24. lekuan zegoen txapelketa aurretik.

Eugenera (Oregon) joan aurretik jakinekua zen finalean sartzea oso zaila izango zela, eta hori ez lortuta ere posible zela pozik geratzeko moduko lana egitea. Bada, horrela izan da, Arrasatekoak lau metroko marka egin zuen-eta martitzeneko kanporaketa saioan. Baina oso-oso gertu izan zuen finalerako txartela.

Aurreikusitako baino kale gehiago egon ziren martitzenean, eta finalerako txartela ez zen bestetan bezain garesti egon. Hala, 3,60ko eta 3,75eko markak erraz gainditu ostean, Malen Ruiz de Azua 3,90ekoan trabatu zen. Ezin lehenengoan, eta ezin bigarrenetan. Balio gabeko bi salto. Alarma guztiak piztuta, azkarregi esan behar ziolako txapelketari agur. Baina ez; presioa gainetik kendu, eta hirugarrenean ondo gainditu zuen listoa.

Aurrerapauso handia egin zuen hor, hurrengo marka lau metrokoa zelako; hau da, bere marka pertsonaletik oso gertu ibili behar zen [4,02]. Eta hor *hegan* egin zuen, lehenengoan



Ruiz de Azua, Eugenen. | J.PEREZ

**ESANAK**

**"Arantza txiki bat izango du, baina lan ona egin du"**

JONATHAN PEREZ | ENTRENATZAILEA

gainditu zuen-eta listoa. Hurrengo pausoa: 4,10. Hori gainditzeak esan nahi zuen Ruiz de Azuak errekor pertsonala ekarriko zukeela AEBetarik, eta finalean sartuko zela. Hirugarren saiakeran gertu izan zuen helburua, "baina gai zela sinestea falta izan zitzaion", adierazi du Jonathan Perezek, txapelketa *on line*, eta urduri, jarraitu zuen entrenatzaileak.

**Kanpoan, oso gutxigatik**

Hala, 4,10eko markarekin hamika atleta sailkatu ziren, eta azkeneko txartela 4 metroan geratu zirenen artean erabaki behar zen. Hor, 3,90ekoan bi balio gabeko egin zituelako Ruiz de Azuak aukerak galdu zituen, eta Reena Koll estoniarrek egin zuen aurrera. "Pozik geratu da Malen eta bere marka pertsonaletik oso gertu. Badakit Malenek arantza txiki bat izango duela, entrenamenduetan 4 metroko saltoak erraz egiten dituelako. Baina txapelketa batera iritsi eta onena ematea ez da batera erraza, nik ondo dakit hori. Hau ez da matematika hutsa, poliki-poliki egiten da aurrera. Txapelketa ona egin du". Orain, atsedean hartuko du.

**MENDI BIZIKLETA**

## Markel Uriarte Coloradon da, EWSko lasterketan

X.U. | ARRASATE

Aretxabaletako gaztea buru-belarri dabil Enduro World Series barruko lasterketetan parte hartzen. Uztailaren 16an Italian lehiatu zen, eta, eguraldiak bizkarra eman bazion ere -lehenengo egunean bere txanda hasi baino hamar minutu lehenago ekaizta bota zuen, eta zirkuitua zaildu-, 450 lagunetik 79. postuan amaitu ahal izan zuen bi eguneko lasterketa.

Aste barruan, osterara, Orbea Enduro Crew taldeko riderrak AEBetarako bidea hartu du, Coloradon egingo dute-eta EWSko bosgarren proba. Aretxabaletakoa uztailaren 25etik 27ra bitartean lehiatuko da munduko onenekin batera.



Mikel Aristi, Euskadiren maillotarekin. | JOSU URREZTARAZU

## TXIRRINDULARITZA

# Euskadi taldearen desagerpenaren zuzeneko testigu

Mikel Aristik bazekien Burgosko Itzulian amaituko zutela denboraldia, baina ez taldea desagertuko zela

XABIER URZELAI | ARRASATE

Azken ordukorik ez badago, Mikel Aristi Ordiziako Klasikoko irteera puntuan izango da gaur, Euskadi Fundazioaren maillota defendatzen. Bergarakoak ez du izan, inondik inora, hitzordu hori pres-

tatzeko nahi adina lasaitasun, aste barruan taldeko arduradun Migel Madariagak taldea desagertu egingo dela adierazi du-eta. Hala, denboraldia amaitu barik kolokan geratuko da ziklista kuadrilla polit baten etorkizuna; tartean, Aristi-

rena. Nekatuta, eta egoeragatik haserre dagoela igartzen zaio, baina nahiago du geratzen zaizkion lasterketetan buru-belarri jarri, buruari eragiteak ez dio-eta konponbiderik ekarriko: "Azken bi asteak entrenatzen egin ditut, aste-betez Noja aldean atseden hartzen egon ostein. Igartzen dut fresko nagoela, aste barruan motorraren atzean egin ditudan entrenamenduekin pozik geratu naiz, baina ez nago gorputzaldirik onenean".

Izan ere, zaila da lasterketa gutxi izan dituen denboraldian sasoi puntuari eustea: "Gauza bat da ondo entrenatzea, baina benetakorritua lasterketek ematen dute, eta, alde horretatik, Espainiako Txapelketa ezkerro geldidago [ekain amaieratik]".

Ordizian, Getxon eta Burgosen egoteko itzaropena du bergararrak -taldeak Burgosen amaituko du bere ibilbidea- eta ondoren Munduko Txapelketan egon nahi luke, selekzioaz lehian: "Espero dut han egotea, ilusio handia egingo lidake eta horrek motibatzen nau orain".

## Denboraldi zaila

Profesionalki Euskadirekin aurrerapauso bat egin badu ere, denboraldia ez da erraza izan Aristirendako. Profesionalen artean gura baino lasterketa gutxiago izan ditu, eta, hala ere, lan ona egin du: talde-gizona izan da eta, besteak beste, Girondeko Tourrean taldeko erlojupekoa irabazi zuen eta bosgarren izan zen La Cote Picarde proban, Frantzian.

## ATLETISMOA

## Antxintxika eta Goiena batera, krosari begira

Berritasun handiekin dator aurtengo krosa

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Antxintxika triatloi taldearen proba kutuna, Antxintxika krosa, hamarkadara helduko da aurtun, eta, oihartzun handiagoa eta lasterketaren jarraipen zabalagoa egiteko asmoz, aste barruan hitzarmena sinatu dute Mikel Lasak Antxintxikaren izenean eta Xabier Urzelai Goienaren izenean.

Soraluzen hasi eta Bergaran amaitzen den lasterketa geroago eta entzutetsuago bihurtu da azken edizioetan; izan ere, iaz pantaila erraldoi batean lasterketa zuzenean eskaini zuten, eta aurtun pauso bat harago eman gura dute. Goienarekin sinatutako hitzarme-

nari esker, Goiena telebistan, *Goiena.eus* webgunean eta asteleneko *Goiena* paperean estaldura handiagoa izango du hamar kilometroko lasterketak: "Aurtun aurrerapauso bat eman nahi izan dugu, eta horretarako jarri ginen harremanetan Goienarekin". Hala, asmoa da lasterketa hainbat telebista kameraz grabatzea eta, besteak beste, momentuan bertan plazan emaitza erakustea. Bestalde, *streaming*-ez ere emititu nahi da lasterketa zuzenean, *Goiena.eus*-en.

Hamargarren edizioak, gainera, berritasun handiak izango ditu. Hasteko, domekan izango da, eta egun osoko jai bat antolatuta nahi dute.



Mikel Lasa eta Xabier Urzelai, hitzarmena sinatzen. | JAGOBA DOMINGO

## Debagoieneko GREMIOAK

## ARROZTEGIAK

## AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

[blogak.goiena.net/azkarate](http://blogak.goiena.net/azkarate)

## ERAIKUNTZAK

## ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

ARRASATE

Meatzerreka auzoa

Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

[e.arrasate@euskalnet.net](mailto:e.arrasate@euskalnet.net)

## ITURGINTZA

## EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

## OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

[f.oyanguren@ctv.es](mailto:f.oyanguren@ctv.es)

## URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

## LEIHOAK

## ARGI-PLASTIK

ARRASATE

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

## LOREZAINZA

## MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

## MARGOAK

## APAIN MARGO ETA APAINKETA

ARRASATE

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

# Zeu irabazle

Goiena Klubeko txartela erakutsi eta aprobetxatu abantailak.



**EUREKA ZIENTZIA MUSEOA Aisia**  
Mikeletegi 43-45 | Donostia  
Sarrera bat erositako eta kupoia+ Goiena Klubeko txartela erakutsita, sarrera bat doan.



**ALZU, S.L. Ehiza eta arrantza**  
Arantzazuko Ama, 2 | Oñati  
Arropetan %10eko beherapena.



**OÑATI GARAIEA**  
Autoen garaje. Konponketak  
Goribar Auzoa 9 | Oñati  
Oñati %5eko beherapena egiten diren konponketetan.



**ESKO SPORT Kirol denda**  
Intxaurtueta 5 | Eskoriatza  
Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.



**LILURA EDERTZE INSTITUTUA**  
RPS: 299/13  
**LILURA EDERTZE INSTITUTUA**  
Estetika zentroa  
Bidekurutzeta 7 | Bergara  
%15a laser depilazioan: hanka osoa + izterondo (besapekoak opari).  
%20eko deskontua elikagai intolerantzia proban.  
%10eko deskontua mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.  
%10eko deskontua fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.  
Bazkidearentzat eta lagunarentzat



**TXURI URDIN Itzotz jauregia**  
Anoeta Ibilbidea 24 | Donostia  
%20eko deskontua zapatu eta domekatan (ez bada zubi edo oporraldia).  
%10eko deskontua zubi eta oporraldietan.



**GUZTIZ EDER Estetika zentroa**  
Kalebarria 29 | Oñati  
%5eko deskontua argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan (bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik).  
%10eko deskontua gorputz osoan txokolatearekin egindako estalduran eta masajeetan.



**GRACIAN Mertzzeria**  
Bidekurutzeta kalea 6, Bergara  
25 eurotik goragoko erosketetan %20ko deskontua.



**AQUARIUM**  
Otalora 18 | Donostia  
Bi erosi eta bat ordaindu (Sarrena garestiena ordainduko da)



**MIREN GARAI Estetika Etxea**  
Zarugalde kalea 23, 2 ez. | Arrasate  
Aurpegi garbitzeko tratamenduarekin, eskutako tratamendua doan.



**ML Ile-apaindegia**  
Alfonso X Jakintsua plaza 1 behe, Arrasate / Tel.: 943 797 965  
"Nanokeratin System" proteina tratamenduan %20ko deskontua.  
Beste edozein zerbitzuetan %5eko deskontua.



**JAUJA KIROLAK**  
Irizar pasealekua 1 behe, Bergara  
Produktu guztietan %5eko deskontua..



**LONBIDE Oinetakoak**  
Bidekurutzeta kalea 5, Bergara  
Produktu guztietan %10eko deskontua.



**MAGDALENA Gasolindegia**  
Santxolopetegi auzoa | Oñati  
%2ko deskontua gasolindegian erregaia erositako.



**MARKIEGI JANTZI DENDA**  
Olarde kalea 2 | Arrasate  
Produktu guztietan %10eko deskontua.



**KUTTUNA Estetika**  
Aranburuzabala 19, behe | Eskoriatza  
%5eko deskontua zerbitzu guztietan (beste promozio batzuk izan ezik).



**CARAVANAS OÑATE**  
Galdaragintza. Bizikletak  
Otañu Zuhaiztia, 25 | Oñati  
50€-ko erosketatik gero, %10eko deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan. (ez du balio beste promozioetarako).



**NAREN**  
Fisioterapia eta osteopatia zentroa  
Belorrieta 5 behe | Aretxabaleta  
%15eko zerbitzu guztietan (Errehabilitazioan izan ezik).



**NEBRASKA taberna**  
Zarugalde 35 - Arrasate  
Tel.: 943 79 09 39  
MAHOU garagardo botila, euro bat bazkideentzat  
Zapatu eta igandean, edaria + pintxotxo doan  
Interneteko menuetan %5eko deskontua



**NINIKA Loradenda**  
Ramon Maria Lili, 8 | Bergara  
%10eko deskontua artikulu guztietan.



**PORTALOI optika**  
Erdiko kalea 10, Arrasate  
%15eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin eta ez aplikagarria segurtasun betaurrekoetan).



**ALDAPE Jatetxea**  
Iturriotz kalea 41 Arrasate  
Tel.: 943 79 63 69  
Astelehenerik ostiralera eguneko menuan (bazkaria) kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).  
Astebukaerako menuan (bazkaria edo afaria) kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).



**ARGIA Aldizkaria**  
www.argia.com  
%25eko deskontua harpidetzan. (Bazkide berrientzat soilik).



**TABERNA-BERRI Jatetxea\***  
Durana kalea 26, Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 20 67  
Taberna-Berri jatetxeko otorduetan bazkide- txartela erakutsiz gero;  
Astelehenerik igandera, eguneko menuan, bazkarian kafea doan.  
Astebukaeretan, eguneko menuan, afarian kafea doan.



**ZABALA Jatetxea\***  
Labegarieta 14, Bergara  
Tel.: 943 76 42 57  
Zabala jatetxeko otorduetan bazkide- txartela erakutsiz gero; Astelehenerik larunbatera, eguneko menuan, bazkarian kafea doan

\* Eskaintza honek, GOIENA KLUBEKO txartelaren titular bakoitzeko, kafe bat hartzen du barne.

## GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:

Goiena papera: Asteleheneretan ere etxean.

Deskontuak: Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.

Urteko kuota: 50 €. | 943 25 05 05  
kluba@goiena.com | goienakluba.com



**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!

## KULTURA

# Udan, nik lan eta hik jai

- ▶ Udako jai eta kultura ekitaldietako Debagoieneko hainbat kultura eragileren asmoak jaso ditugu
- ▶ Krisiak eraginda, kultura eragileak garaietara moldatu dira, saioen ezaugarriak eta formatuak aldatuta

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Abuztua, opor hilabetea askorendako, baina urteko beste sasoietako lanbidea edo lan egiteko modua aldatzeko hilabetea beste batzuek. Tapia eta Leturia musikarien kantu ezaguna gogoan hartuta, izenburuari buelta eman diogu datozen asteetan agenda beteta duten hainbat debagoiendarren esanak jasotzeko. Zinemagile batekin eta aktore batekin izan gara, baita bi musikarirekin ere.



Xabi Igoa, Aramaioko bertsolaria. | IMANOL SORIANO



Amaia Txintxurreta, DJ lanetan. | IMANOL SORIANO

MANU GOMEZ

ZINEMA ZUZENDARIA

## "Mexikoko jaialdia Oscar sarietarako puntuagarria da"

*To kill time* (Antonio Hernandez) filma errodutzen amaitu berri, Almeriako Mojacarko hondartzan atsedean hartu du Arrasateko zinemagileak, abuztuan ez du eta aspertzeko aukerarik izango. *Das Kind* film laburrekin zinema jaialdiz jaialdi ibiliko da. "Dagoeneko 52 jaialditarako aukeratu izan da eta hamabi dira eskuratutako sariak. Astean, Italiatik bi proposamen jaso ditugu, eta, besteak beste, Bartzelonako eta Ciudad de Juarezko (Mexiko) jaialdietan ere izango gara. Mexikoko nazioarteko 25 jaialdi garrantzitsuen artean dago eta Oscar sarietarako puntuagarria da", dio Gomezek.

Labean sartzeko duen hurrengo proiektua ere abuztuko lanzerrendan du arrasatearrak: "Errepresio frankistari buruzko zinema-ikerketan lan bat da, *Si me quieres escribir* du izenburua, eta fikzioa eta egiazko gertakariak nahastuta salaketa-dokumentala egiteko asmoa dut", aurreratu du zinemagileak.

MIKEL LASKURAIN

AKTOREA

## "Kalekoak sekulako eskolak dira areto barruko lanetarako"

Uztailan moduan, abuztuan ere herriz herri ibiliko da Bergarako aktorea *Konga* kale-antzerkia egiten. Gustuko ditu udako emanaldiak, udako lana gogorragoa dela aitortzen badu ere: "Alde onak dituzte: asteburuetan bakarrik beharrean, astean zehar ere



Mikel Laskurain. | MIRARI ALTUBE

izaten dira; ordutegiari dagokionez, negukoak baino goizago dira normalean; behin lana eginda garagardo bat edo beste hartzen dugu terrazaren batean... Lanerako beste espiritu bat izaten da. Baina txanponaren beste alde ere badauka: ikuslea bertan bertan baduzu ere, ez dago horren adi egoten, aldamenekoarekin berrikerian dago, edo bizkarra ematen dizu... Udako emanaldiak sekulako eskolak dira areto barruko denboraldirako", azaldu du



Gose taldeko Osoron, Ines Osinaga eta Iñaki Bengoa. | GOSE



Manu Gomez zinema zuzendaria filmatze batean. | MANU GOMEZ

Bergarako aktoreak.

Udako lanak familiaren oporrek partekatzen dituela dio: "Euren oporrak errespetatzen saiatzen naiz. Orain, adibidez, kanpin batean daude eta ni handik joaten naiz lanera; eta bukatutakoan, kanpinera berriro".

Kale-antzerkia egiteaz gainera, *Emaztegiaren semea* lanaren gaztelarazko bertsioa prestatzea ere lan-zerrendan du Laskurainek: "Madrilera noa laster, irailean estreinatuko dugun *El hijo de la novia* lana entseatzera".

HARITZ ZUBIATE  
GOSE MUSIKA TALDEA

## "Lan asko eginda, Europara irtetea lortu dugu aurten"

Abuztua ez da Gose musika taldearentzako hilabeterik lanpe-

tuena izaten. Lau kontzertu egin dituzte oraingoan: Lemoan, Berastegin, Gabirian eta Bilboko Aste Nagusian. "Ekainean eta uztailan gehiago izan ditugu: besteak beste, Madril inguruan, Katalunian eta Holandan izan gara; egia, esan oso gustura. Europara irteteko apustua egin genuen, eta, hainbat bidaia eta lan asko egin ondoren, lortu dugu", azaldu du Haritz Zubiate taldekideak.

Taularen gaineko hirukoteaz gainera, beste hiru kidek osatzen dute Gose taldea: "Bulegoko eta *management* lanak Amaiak egiten ditu, eta, normalean, ez da kontzertuetan izaten; Josema soinu teknikaria eta materialaren arduraduna da, eta hark muntatzen du led-pantaila. Nire lana, berriz, furgoneta gidatzeaz gainera, kontzertuetan askotarikoak: manager lanak, muntatze eta batze lanak, musika tresnen ardura izatea...", dio Zubiatek.

AMAIA TXINTXURRETA

ABESLARIA ETA DJ-A

## "Orain dela hamar urte hasi nintzen erromeria taldeetan abesten"

Amaia Txintxurretak, Goienako kazetariak, mikrofonoa eskuetan izaten du urte osoan, eta horrela izango du abuztuan ere, berriak kontatzeko beharrean, kantatzeko bada ere. Orain dela hamar urte hasi zen erromeria taldeetan abesten. Ermuko, Tolosako, Iruñeko eta Altsasuko taldeetan ibili izan da; azken hiru urteetan Ermuko Gauargi taldearekin dabil. DJ moduan ere jarduten du, baina abuztuan erromerietan ibiliko da, gehienetan. "Gauargi erromeria taldean, gaur egun, bi lagun joaten gara: Ermuko Asier Castro eta biok. Hark teklatura eta gitarra elektrikoa jotzen du eta nik, berriz, abestu eta dantzatu egiten dut. Aurrekontuak jaitsi egin direnez, guk ere taldea moldatu dugu", dio abeslariak.

Burgosko Manzanedo herrian izango da bihar, zapatua; eta etzi, domeka, berriz, Bergarako Bolu auzoko jaietan, DJ. Bizkaian, Nafarroan eta Burgosen ditu aurten emanaldi gehienak. Askotariko saioak egiten dituzte: "Kantu-zerrenda izugarri zabala daukagu, askotariko hizkuntza, estilo eta eritmoetakoak, askotariko saioak egiten ditugulako: haurrendako, jaietan, zaharren egoitzetan, ezkontza eta bestelako ospakizunetan...", dio kazetari-ableslariak.

XABI IGOA

BERTSOLARIA

## "Abuztua lasai hartuko dut, iraila gogorra dator-eta"

Ekaina eta uztaila bitartean izan ditu Igoa Aramaioko bertsolariak saio gehien, eta iraileko agenda ere beteta duela esan du. Horregatik, bada, abuztuan saio batzuk dituen arren (Arrasateko Erguin auzoan eta Gasteizko jaietan, besteak beste), abuztuan, lasaitu eta pilak kargatuko dituela dio, irailean Arabako Bertsolari Txapelketako lehenengo saioak jokatuko direla aintzat hartuta.

Jaietako egitarauetako saioak izaten dira, gehienetan, eta formatua, herriaren arabera: ordubeteko saioa eguerdian taularen gainean, berto bazkari edo afariak eta baita bertso-poteoak ere. Igoaren esanetan, krisiak saioen kopuruan eragina izan badu ere, garai berrietara moldatu beharra dagoela dio, eta horren erakusle dela Arabako Bertsozale Elkarteak udarako bi bertsolari formatuko saioak sustatu dituela.



Luis Coloma Trio hirukoteak ikuskizun bizia eta energiaz betea eskaintzen du. | LUIS COLOMA

## Bi piano-jotzaile oholtza berean izango dira Bergaran, Espoloian

Ezohiko kontzertua prestatu dute Luis Colomak eta Paul San Martinek

MAIALEN TORRES | BERGARA

Duela hamar bat urte ezagutu zuten elkar Luis Colomak eta Paul San Martinek, eta, geroztik, hainbat kontzertu eskaini dituzte batera. Orain artekoak Katalunian izan dira, baina gaur, bi piano-jotzaileak batera ikusteko aukera izango da Espoloian, 22:00etan. Gainera, normalean aurrekontu arazoengatik, ez da batere ohikoa bi piano-jotzaile oholtza berean eta piano akustiko banarekin aritzea; beraz, ikuskizunaz gozatzeko aukera bikaina izango da Bergarako.

Berumuga musika zikloaren baitan kokatzen da gaurko kontzertua, eta, antolatzaileen esanetan, Luis Coloma katalanak, hirukoteko beste bi musikariek batera, hasieratik amaierara arte sortzen du bere kontzertuetan "halako giro magikoa", emanaldi bakoitza "esperientzia bakar eta ahaztezin bihurtuz". Hirukotearen erritmoa eta indarra, gainera,

Paul San Martinen bigarren diskoaren doinuekin eta haren ahots "gutziz bereziarekin" nahastuko da oholtza gainean, eta emaitza "dibertigarria" izango dela ziurtatu du San Martinek.

Luis Coloma Jazzaldira etorriko zela jakin zutenean hasi ziren elkarlanean kontzertu bat antolatzeko ahaleginetan, Katalunian egiten zutena horren arra-

kastatsua zela ikusita, Euskal Herrira ekartzea aspalditik baitzuten buruan. Paul San Martinek azaldu duenez, ez dute entsegurako astirik izan, kontzertuaren antolakuntza lanak posta elektronikoz egin baitituzte; beraz, "inprobisazioak bere tartea izango duela ziurtatuta dago". Hain zuzen ere, piano-jotzaile donostiarrek azaldu duenez, horixe



Paul San Martin donostiarra izango da gonbidatu berezia. | PAUL SAN MARTIN

### Abuztuan ere kontzertuak izango dira

Berumuga zikloa gaurko kontzertuarekin amaituko da, baina abuztuan ere bergarrek izango dute zer egin. Kultura egitarauaren baitan, beste ekintza askoren artean, Morauk eta Beñardok kontzertua eskainiko dute. Abuztuaren 6an, urtebeteko lanaren emaitza den *Arrainentzako himnoak* laneko abestiak izango dira entzungai, eta egunerokotasuna ekarriko dute oholtzara bi artistek. Abuztuaren 20an, berriz, Gatos Vizcos taldearen blues, rock eta swing doinuek Irizar parkea beteko dute. Aukera aparta izango da uda giroaz kanpoaldean gozatzeko eta musikari madrildarren eritmoa dantzatzeko.



Eñaut Zubizarreta. | MIRIAN BITERI

### Eñaut Zubizarreta Euskal Herriko Gazte Orkestra "Euskalduna jauregian jotzea oso gauza polita da musikarientzat"

GARAZI AIESTA | ARRASATE

Eñaut Zubizarreta arrasatearra da, musikaria. Gaztetan hasi zen biolontxelo jotzen, eta orain Bartzelonan dihardu musikako gradua ateratzen. Euskalduna jauregian joko du Euskal Herriko Gazte Orkestrarekin, eta pozik agertu da esperientzia horren aurrean.

#### Zer da musikari batentzat Euskalduna jauregian jotzea?

Egia esan, oso gauza berezia da. Duela egun batzuk Victoria Eugenia antzokian jo genuen, eta hori ere ikaragarria izan zen. Baina Orkestrako kideak beti esaten didate Euskalduna jauregian jotzea beste kontu bat dela, ikusgarriagoa da.

#### Zer jasoko du entzuleak?

Bruckner-en Laugarren Sinfonia eskainiko dugu emanaldian, eta esan beharra dago konpositore hau oso trinkoa dela. Sinfoniak ordubete eta hamar minutu inguru irauten du, ez da laburra. Denertiko momentuak ditu, momentu batzuetan sekulako bolumena dago, barrutik ere denok fuertez jotzen dugunean guretzat ere oso berezia da, oso indartsua eta oso trinkoa. Ez da inor aspertuko, ziur!

#### Nola sartu zinen musikan?

Ez dakit, Arrasate Musikalari hasi nintzen eta gero Gasteizko Kontserbatorioan erdi mailako gradua egitea erabaki nuen. Gero, goi mailarako proba bat egin eta Bartzelonan hartu ninduten gradua ateratzeko. Orain, hemen nabil; bi urte falta zaizkit amaitzeko, baina gustura nabil.

#### Eta gradua amaitzen duzunean, ze asmo daukazu?

Ez dakit neuk ere zer nahiko nukeen. Izan ere, orkestra batean sartzea oso-oso zaila da, eta orduan, irakasle, agian... baina, egia esatearren, ideiarik ere ez. Pausoz pauso joango naiz, gustura aritzea da garrantzitsuena. Hori gauza ederra da.

### Ibarreko partaideak Donostiako Zinemaldiko Sail Ofizialean

*Loreak* eta *Lasa* eta *Zabala* euskarazko bi pelikulak lortu dute Zinemaldiko Sail Ofizialerako txartela. Bada, bietan parte hartu du Mariasun Pagoaga aktore arrasatearra. *Lasa* eta *Zabala* pelikulan, gainera, Aitor Mantxola oñatiarra izan du argazki zuzendari moduan bidelagun. *Loreak* pelikulari dagokionez, Moriarti ekoiztetzeko Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga dira zuzendariak, eta Aitor Arregi giduigile oñatiarrak ere parte hartu du gidoiaren sorkuntzan. Aspaldian Sail Ofizialean ez da euskal pelikularik egon.

### Ain\_1 taldea: 'Badoa, badirau' diskoa amaitzen

Ain\_1 taldeak amaitu ditu estudioko bigarren lanaren grabazioak. *Badoa, badirau* titulupean aurkeztuko dute lana. Disko "helduagoa eta landuagoa" dela kontatu dute, baina orain arteko oinarri berarekin. Disko horrekin, ibilbide musikalean etenaldia egingo dutela aurreratu dute, fase bat amaitzen dutelako.



JAGOBA DOMINGO



Jon Maia | Kukai dantza konpainiako dantzaria eta zuzendaria

# "Plazetan sortzen diren harremanak ere dantzaren bitartez interpretatzen dira"

- ▶ 'Gelajauziak' ikuskizuna udaberrian aurkeztu zuten; udan biran dabilta
- ▶ Eskultura, antzerkia, dantza eta musika bateratzen dituen lana da

ANE ELORDI | ARRASATE

Jon Maia dantzari errenteriarra berriz izango da Arrasaten, hark zuzendu eta parte hartzen duen azken proiektua aurkezteko: *Gelajauziak*. Domekan izango da, uztailearen 27an, Herriko Plazan, 22:00etan. Arrasateko plazak dagoeneko jaso ditu Kukai dantza konpainiaren ikuskizun guztiak. Dantzariak adierazi du gogotsu datozela herrira.

**Beste behin ere Arrasateko plazan aurkeztuko duzu zuen lan bat.**

Guretzat, Arrasateko plaza toki kutunetako bat da; hamabi urtean zehar sortutako ikuskizun guztiak aurkeztu ditugu bertan, eta herriarren harrera oso ona izan da, Amaia aretoan zein kalean egindako emanaldietan.

**Askotariko diziplina eta osagaiak bateratzen dituzue.**

Bai, hala da, baina dantza da osagai nagusia eta gainontzeko elementuak horren osagarriak dira. Hainbat sortzailek elkarlanean egindako proiektua da: musika, jantzigintza eta eskulturak. Nork bere lana egin du, baina batera sortu dugu proiektua, aldi berean

sortu ditugu koreografia, musika eta jantziak. Nestor Basterretxearen *Akelarre* eskultura beste osagarrietako bat da.

**Gelajauziak izeneko ikuskizuna nolako da?**

Kukaiaren orain arteko ikuskizunak bezala, dantza tradizionala eta garaikidea bateratzen ditu. *Gelajauziak* ikuskizunak bi zati ditu: batetik, hasieran, dantzariak bikoteka agertzen dira, gehienbat, eta saioan zehar elkartuz doaz, bigarren zatian talde izaera da nagusi, eta taldeak duen indarra da ezaugarri nabarmena. Kaleko emanaldia da, plazako euskal dantzak oinarri dituelako; esaterako, Ipar Euskal Herriko jauziak eta Bizkaiko jotak. Plazetan sortzen diren harremanak ere dantzaren bitartez interpretatu eta erakutsarazten dira. Ikuskizun

**"Arrasateko plaza kutunetako bat da; ikuskizun guztiak aurkeztu ditugu"**

bizia, dinamikoa eta mugimendu asko daukan lana da.

**Cesc Gelabert koreografoaren kolaborazioa ere izan du proiektuak.**

Bai, oso aberasgarria izan da egindako lan prozesua; izan ere, eskarmentu handia eta ikuspegi zabala duen profesionala da. Sakonki landu du proiektua, eta guretzat, taldekideontzat, plazera eta luxua izan da harekin lan egiteko aukera izatea.

**Dantza eta musika eskutik doazen bi osagai dira. Musika ere asko landu duzuen arloa da, ezta?**

Bai; arlo desberdinetatik etortako musikari bi izan ditugu proiektuan kide. Batetik, Sabin Bikandi izan dugu, musika tradizionalan eta folklorea aditua dena, eta bestetik, Xabi Erkizia, musika elektroakustikoan diharduena. Musikari biek bateratuta sorkuntza lana egin dute, koreografiari ondo egokitutakoa. Sabin Bikandiren hitzetan neurri egindako musika da.

**Hilabeteko lanaren emaitza da plazan eskainiko duzuen.**

Bai, proiektuan jende askok hartu du parte, eta sorkuntza pro-



Jon Maia, Kukai dantza konpainiako dantzaria eta zuzendaria. | KUKAI

zesua oso aberatsa izan da. Nahiz eta plazan sei dantzari baino ez diren ikusten, sortzaile askoren elkarlana izan da.

**Aretotik plazarako jauzia egin duzue; aldaketak nabari dira?**

Bai, oso desberdina da areto baten edo plaza baten aritzea. Izan ere,

**"Gure helburua da publikoari gure lanak gertu sentiaraztea"**

aretoan ez dugu publikoarekin erlaziorik, eta plazan lotura zuzena da. Gu dantzan gauden bitartean ikuslearen aurpegia ondoan daukagu. Ondorioz, interpretearen eta publikoaren artean konplizitatea sortzen da, eta erreakzioak sumatzea polita da. Gure helburua da publikoari gure lanak gertu sentiaraztea. Bestalde, eskola ere bada, ezusteko faktore askorekin egiten duzulako topo eta horiei aurre egin behar zaie ikuskizuna aurrera joan ahala, esaterako, mugikorren soinuak edota umeen negarrak.



Hesian taldea. | HESIAN

## McOnak, Hesian eta Arkada Social, Andra Mari jaietan

Askotariko doinu eta musika estiloak izango dira Aretxabaletan; euskal talde eta musikariak nagusi

ANE ELORDI | ARETXABALETA

Aretxabaletako Andra Mari jaiak hasteko hilabete baino gutxiago falta da, eta musika eskaintza aurkeztu dute. Askotariko doinu eta estiloez gozatzeko aukera izango da abuztuaren 13tik 17ra

bitartean. Euskal taldeak izango dira nagusi.

McOnak talde bizkaitarrak irekiko ditu jaiak, 13an, eguztenean. Folk eta rock doinuak eskainiko dituzte kostaldeko gazteek, eta haiekin batera izango

dira Kalaña eta Freedom Boys taldeak, txosnagunean, 22:00etik aurrera.

**Euskal musikari entzutetsuak**

Hesian talde nafarraren kontzertua da musika eskaintza nabarmenetako bat. Izan ere, taldeak aurtengo udan emanaldiak murriztu egin ditu, eta datozen hilabeteetan hiru kontzertu baino ez ditu eskainiko, horietako bat Aretxabaletan, abuztuaren 15ean, Andra Mari egunean. Herriko plazan egingo dute emanaldia, 23:00etan. Taldeak seigarren diskoa argitaratu nahi du urrian, eta buru-belarri dabil proiektu berria prestatzen. Orain, grabazio lanetan dabil rock doinuak lantzen dituen taldea.

**Askotariko doinu eta estiloak**

Zapaturako, abuztuaren 16rako, rock eta punk doinuak daude iragarrita. Txosnetan eskaintza zabala izango da, 22:30ean. Arkada Social taldeko arrasatearrek kontzertua eskainiko dute, eta herri bereko The Potes taldea ere egun berean izango da Aretxabaletan. Niña Coyote eta Chico Tornado arituko dira gero.

## Hilabeteko lanaren ostean, Karenak emaitza onak ditu

Askotariko proiektuen finantzazio kanpainak aurrera eramateko plataforma da Karena

ANE ELORDI | ARETXABALETA

Hilabete da hiru lagunek Karena proiektua abiarazi zutela. Partaideetako bat Ekain Martinez da; izatez donostiarra bada ere, *Aretxabaletartuta* dago, bertan bizi baita. Hilabeteko lana positiboki baloratu du Martinezek; izan ere, *crowdfunding* plataformak izandako harrera ona nabarmendu nahi izan dute, eta, jada, lau proiektu finantzatzea lortu dute. Bidean dira beste zenbait gehiago.

Askotariko proiektuak bereganatu ditu plataformak, berri-tzaileak eta interesgarriak, ezerezean geratzeko arriskua zutenak. Ametsak errealitate bihurtzea da Karenako kideen helburua, eta horretan jarraituko dute. Edozeinek jar ditza-

ke bere proiektuak *Karena.eu* atarian, eta sortzaileek proiektua bideratu eta egokitzea laguntza eskaintzen dute.

**Hilabeteko lanaren fruituak**

Iraileko askotariko proposamenak jaso dituzte. Interneteko atariak gaika multzokatzen ditu proiektuak, eta bakoitzak 40 eguneko epea dauka dirua eskuratu ahal izateko.

Sorreratit sei proiektu izan dira Karenan, eta horietako bik lortu dute finantzazioa: Uribe Kostako Guda Dantza musika taldeak estudioko lana grabatzeko beharrezkoak zituen 700 euroak, eta 860 lortu ditu, bestalde, *Ahotsa.info* Nafarroako hedabide herritarrak ere. Beste zenbait proiektu dirua lortzeko bidean daude.



Unai Mendikute,  
Zirauna Infisport  
taldeko  
maillotarekin.

Unai Mendikute | Txirrindularia eta musikaria

## "Txirrindularitzan sakrifizioa oso handia da; asko ikasten da, eta bizitzaren kontuez ere bai"

ANE ELORDI | ARETXABALETA

Unai Mendikute musikaria eta txirrindularia da; zorionez, edozein gazteren afizioak bere egunerokotasunaren parte ditu. Musika izan nahi du ogibide, eta Musikenen ikasketak amaitzear dago; akordeoia du bidelagun. Bestalde, bizikletari lotuta igarotzen du aisialdia; egun, Zirauna taldeko partaide da 24 urteko aretxabaletarra.

**Zerk bultzatuta diharduzu txirrindularitza talde baten?**

Betidanik gustatu izan zait kirola egitea; bizikletan edota mendian ibiltzea, esaterako. Mendiko bizikletarekin zaletu nintzen lehendabizi, eta ondoren errepidekoa erosi nuen. Pixkanaka, gero eta gehiago gustatzen hasi zitzaidan; Kanpanzar taldean hasi nintzen.

Urtebete pasatxo egin nuen han, eta gero, Zirauna taldeko partaide egin nintzen, lehiatzen hasi eta lasterketak egiten.

**Bizikletan, afizionatu mailan diharduzu; nolako da zure egunerokotasuna?**

Ziraunan exigentzia maila Kanpanzar taldean baino handiagoa da, aste normal baten sei edo zazpi egun egin ditzaket bizikletan. Zaindu ere gehiago zaindu behar da; lehen, desberdin ikusten nuen bizikletak eskatzen duen dedikazio maila. Asko ikasten da, bizitzaren kontuez ere bai; txirrindularitzan sakrifizioa oso handia da. Argi daukat zaletasuna dela txirrindularitza, nahiz eta ahalik eta ondoen egin, jakinda beti nondik natorren, musika eta akordeoi mundutik.

**Txirrindularitza etorkizunean ogibide izatea baztertzen duzu?**

24 urte ditut dagoeneko, eta badaikit profesionala izatea oso zaila dela, eta, goi mailako musika ikasketak bukatuta, nire bidea hori izango da. Oso zaila da txirrindularitza bizi izatea; ahalik eta ondoen egitea da nire lana. **Musika eta kirola bateratzea zaila... prestaketa lanak egiteko nola kontuz zara?**

Karrerako hasierako hiru urtetan Donostian bizi izan naiz, eta gero Aretxabaletan, joan eta etorrian nengibilen; goizez eskolak, eta arratsaldean bizikletarekin entrenatzera, beti saiatzen nintzen tarte bat ateratzen, nahiz eta batzuetan ezin nuen. Bestalde, Gasteizen urtean bi kontzentrazio handi egin ditugu, eta, gai-

nontzean, nor bere aldetik ibili da entrenatzen. Hemen, bailarako hainbat afizionatu batera irtezen gara, talde desberdinetan ibili arren.

**Nolatan hasi zinen akordeoia jotzen?**

Txikitan hasi nintzen, 5 edo 6 urterekin. Juan Jose Orobengoa izan nuen irakasle, eta gustatu egiten zitzaidan jotzea; poliki-poliki, gero eta gehiago gustatzen hasten da. Gero, Aretxabaletako Akordeoi Orkestran sartu nintzen, eta egun, herriko umeen irakaslea naiz, akordeoia jotzen erakusten dut.

**Musika eta kirola bateratuta, uda aldean oporrak izateko aukerarik baduzu?**

Ez dago oporrik. Akordeoia ikasi egin behar dut, irailean ikasketak bukatzeko azken azterketa daukadalako. Bizikleta sasoi da uda, sei karrera ditut abuztuan, eta uztaile bukaera arte ere beste

zenbait lasterketa izango ditut. Beraz, horietarako prestaketa lanak ere egin beharra dago.

**Etorkizunari begira zeintzuk dira zure egitasmo edo erronkak?**

Orain, akordeoi irakasle lanetan nabil, eta presio txikia daukat ikasketak bukatzeko. Behin titulua esku artean izanda pentsatuko dut ze bide hartu: kolaborazioak egin, tokiren baten edo talderen batekin jo, akordeoi txapelketaren baten parte hartu, kanpora joan edo eskolak eman. Erronka txiki bat badut: lehiaketa batera ondo prestatuta joan eta postu onean geratzea. Bestalde, txirrindularitzari dagokionez, zaletasuna da eta izaten jarraituko du. Oraindik bi edo hiru urte baditut horretaz disfrutatzen, eta hori egingo dut. Profesionala izatea zaila da, gaztetatik gainontzekoak baino hobea izan behar duzu eta aukerak murrizten dira, baina afizionatutan pozik jarraituko dut.

### PERTSONALA

**Txirrindulari gustukoena:** Iban Baso.

**Txirrindularitza talde gustukoena:**

Trek factory.

**Txirrindularitzarekin lotutako**

**ametsa:** Gauzak ahalik eta ondoen egin, eta ahal dudana guztia ematea.

**Txirrindularitza proba gustukoena:**

Aretxabaletako lasterketa.

**Musikari gustukoena:**

Glenn Gould piano jolea.

**Talde gustukoena:** Gatibu.

**Musika estlo gustukoena:** Edozein

## 1. ETXEBIZITZAK

## 103. ERRENTAN EMAN

**2014-2015 ikasturtea Donostian.** Donostiako alde zaharrea, bi ikaslerentzako aproposa den buhardilla bat ematen da errentan. Urritik ekainera. 520 euro hilean. Interesatuok deitu telefono zenbakietara: 616 01 40 17

**Arrasate.** Erdigunean, guztiz berrituta dagoen etxebizitzak ematen da errentan. Bi logelakoa. Guztiz jantzia. Interesatuok deitu telefono zenbakietara: 635 71 79 57

**Arrasate.** San Andres auzoan etxebizitzak ematen da errentan. Pisu argitsua, guztiz altzariztatua, kanpoaldea ematen duena, hiru logela, bainugela, sukalde independentea, egongela eta balkoi zabala. Hirugarren solairua. Igogailurik gabe. Interesatuok deitu telefono zenbakietara: 634 70 98 01 edo 943 04 49 74

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Alde zahar inguruan etxe txiki edota atiko bila dabilen neska euskalena. Hilabetean 450 euro inguru oraindiko nituzke gehienez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 665 71 69 10

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, erdigunean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 691 16 96 43

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan. Hilean 500 euro ordain ditzaket. Ebert Sanchez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 648 00 86 55

**Arrasaten.** Arrasaten errentan hartzeko etxebizitza bila gabiltzan bikote bat gara. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 674 13 91 59

**Bergara.** Etxebizitza bila nabil. Batendako moduko edo partekatua izatea berdin dit. Kontratuarekin komeni. Urgentea da. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 672 685 777

**Oñati.** Bikote euskalduna errentan hartzeko etxebizitza bila. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 685 79 73 00

**Oñati.** Oñatiko bikote euskalduna errentan hartzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 685 79 73 00

## 105. ETXEA OSATU

**Aretxabaleta.** Araba ibilbidean bi logela ematen dira errentan. Batek bainugela du barruan. Biek dute balkoia eta argitsuak dira. Kontraturarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 678 73 66 54 edo 662 38 14 18

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Biteri kalean, etxebizitzako gune orokorrak erabiltzeko aukerarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 619 88 60 30

**Donostia.** Antigua auzoan, Ondarreta hondartzatik 50 metrora eta EHU-tik 8 minutu oinez, beste bi ikaslerekin 2014-2015 ikasturtean etxebizitza osatzeko kide bila gabiltza. Etxebizitzak hiru logela (armairu eta ikas-mahaiekin), bi komun, guztiz hornituriko sukalde, jangela, egongela, terraza eta trastelekua ditu. Hilean 350 euro, gastuak barne (komunitatea, zabor tasa, ura eta berokuntza). Interesa izanez gero, deitu zenbaki hauetara: 630 11 53 02 (Maialen) edo 638 33 29 37 (Ane) edo 646 34 75 49 (Edurne).

## 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Antzuolan umeak zaindu.** Antzuolan 4 urteko bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko esperientzia duen emakumea behar da. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 606 27 87 47 edo 606 26 71 53

**Antzuolan umeak zaindu.** Antzuolan bi ume, 8 eta 2 urtekoak, zaintzeko pertsona bat behar da. Irailaren 1ean hasteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 615 79 27 35 edo 943 78 62 25

## 402. ESKAERAK

**Antzuolan umeak zaindu.** Haur hezkuntzan eta umeekin esperientzia handia duen neska prest Antzuolan umeak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono honetara: 665 74 25 66

**Arrasate.** Emakume euskalduna plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 54 17 27

**Bergara edo inguruak.** Bergarako emakume ardutsu eta esperientziaduna etxeko lanak egiteko prest: garbiketara, pertsona nagusien edota umeen zaintzara. Deitu 607 45 68 13 edo 943 76 15 94 telefonora.

**Bergara eta inguruak.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko orduka edo etxean bizi izaten. Atari eta abarren garbiketara, erakuntza peoi eta abarretan ere aritu naiteke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 602 07 12 06

**Bergara eta inguruak.** Psikologian lizentziatutako neska euskalduna, haurrak zaintzeko irrikaz. Esperientzia handia du. Interesatuok deitu telefono honetara: 615 73 68 07

**Bergara.** Adinertaineko emakumea, informeak dituen, umeak eta nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 610 34 97 88

**Bergara.** Mutila lan bila dabil, nagusiak zaintzeko, baita baserrietan ere. Esperientziaduna eta dokumentuak egunean dituen. 631 15 19 94 edo 688 69 07 28

**Bergara.** Pertsona ardutsua eta informeak dituen garbiketara lanak egiteko prest. 696 27 25 34

## ZURE IRAGARKIAK

## IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00 arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

## PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

## - Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

## Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

## - Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

## 1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu  
102. Erosi  
103. Errentan eman  
104. Errentan hartu  
105. Etxeak osatu  
106. Bestelakoak

## 2. GARAJEAK

201. Saldu  
202. Erosi  
203. Errentan eman  
204. Errentan hartu  
205. Bestelakoak

## 3. LOKALAK

301. Saldu  
302. Erosi  
303. Errentan eman  
304. Errentan hartu  
305. Bestelakoak

## 4. LANA

401. Eskaintzak  
402. ESKAERAK  
403. Bestelakoak

## 5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso  
502. Eman  
503. Bestelakoak

## 6. MOTORRA

601. Saldu  
602. Erosi  
603. Alokatu  
604. Bestelakoak

## 7. ANIMALIAK

701. Saldu  
702. Erosi  
703. Eman  
704. Bestelakoak

## 8. DENETARIK

801. Saldu  
802. Erosi  
803. Eman  
804. Hartu  
805. Trukatu  
806. Galdtu  
807. Aurkitu  
808. Bestelakoak

## 9. HARREMANAK

901. Agurrak  
902. Harremanak  
903. Deiak  
904. Bestelakoak

## 10. RELAX

**Bergara.** Psikopedagogia eta Haur hezkuntzako ikasketak dituen neska batek umeak zainduko litzuzke irailtik aurrera. Esperientziaduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 669 64 64 27

**Bergaran, Arrasate edo Oñati.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna eta sei hilabetez San Juan de Diosen lan egindakoa, erizaintza ofizial moduan. Gauetan ere lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 639 66 57 88 edo 943 78 62 19

**Debagoiena.** Emakumea garbiketara lanak egin edo haurrak zein pertsona nagusiak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636 50 76 11

**Debagoiena.** Bertako emakumea gertu nagusiak zaintzeko Debagoienean. Esperientziaduna naiz. Abuztuan ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

**Debagoiena.** Emakumea batek nagusiak zaintzen edo garbiketara lanak egingo luke Debagoienean. Bertakoa naiz eta esperientzia daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

**Debagoiena.** Emakumea batek nagusiak zaintzen edo garbiketara lanetan lan egingo luke Debagoienean. Bertakoa naiz eta esperientzia daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 633 84 65 30

**Debagoiena.** Nagusiak eta umeak zainduko litzuzke, baita garbitasun lanak egin ere. Gauak ospitalean pasatzeko ere gertu nago. Esperientziaduna. Informeak ditut. Autoa daukat eta euskalduna naiz. Erabateko prestasuna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 671 35 22 60

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu, garbiketara edota etxeko lanak egingo litzuzke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 619 88 60 30

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta langilea gertu ume eta nagusiak zaintzeko edota garbiketara lanetarako gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 686 60 52 43

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta langilea gertu umeak zaintzeko. Interesatuok deitu honetara: 663 63 79 64

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak eta umeak zaintzen edo garbitasunean aritzeko gertu. Astelehenean ostiralerara, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Orduka ere bai. 688 484 776

**Debagoiena.** Neska arduratsua, erreferentzia onekoa, nagusiak eta umeak zaindu edo garbiketara egiten aritzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egunez edo orduka. 654 24 07 05

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketara egin eta nagusiak zaintzeko, etxean bertan bizi izaten. 662 23 10 47

**Debagoiena.** Neska gertu lanerako: garbiketara, umeak zaintzen, sukaldean edo tabernan, nagusiak zaintzen eta abar. Etxean bertan bizi izaten, egunez edo baserrietan ere bai. Gidabaimena eta autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 697 20 00 86

**Debagoiena.** Neska gertu lanerako: sukalde laguntzaile, garbiketara, nagusiak eta umeak zaintzen eta abar. 663 40 92 67

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 686 71 77 93

**Debagoiena.** Neska gertu ume eta nagusiak zaintzeko edota garbitasun lanetan aritzeko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Baita asteburuetan ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 645 01 05 84

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: denetarik garbiketara, ume eta nagusiak zaindu edo etxean, ospitalean edota egoitzan, gidari, banatzaile eta abar. Interesatuok deitu honetara: 696 32 13 69

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: sukalde laguntzaile, nagusiak zaintzen, ostalaritzan eta abar. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 636 11 23 40

**Debagoiena.** Neska nagusiak zaindu edota garbitasunean jarduteko gertu. Etxean bertan bizi izanda, egunez zein orduka. Deitu 610 99 70 46 telefonora.

**Tabernan Iana.** Neska gaztea irailetik aurrera asteburuetan tabernan lan egiteko prest. Esperientziaduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 637 85 88 27

## 5. IRAKASKUNTZA

## 501. JASO

**Ingelesa.** 2014-2015 ikasturte osoan zehar, irailetik aurrera, etxean, Arrasaten, DBH 2-ko mutiko bateri ingeleseko eskolak emateko mutil baten bila gabiltza. Astean bi orduz, arratsaldez, egunak zehazteke. Jaioterrikoen semea bazara, hobe. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 65 73 49

## 7. ANIMALIAK

## 703. EMAN

**Txakurkumeak.** Sei txakurkume ematen dira opari. Border collie mestizoak dira. Uztail hasieran jaiotakoak. 688 92 00 86

## 8. DENETARIK

## 802. EROSI

**Eskoriatza.** Lursaila erosiko nuke, herritik gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 76 34 40

**Esku-soinua.** "Reducida" erako esku-soinua erosiko nuke. Deitu 657 79 53 62 edo 943 76 35 06 telefono zenbaki honetara.

## 804. HARTU

**Bizikletak.** Botatzeko dagoen edo erabiltzen ez duzun bizikleta baduzu, nik jasoko nuke. Berdin da zein egoeratan dagoen. Inaki. 699 06 23 95

## 805. TRUKATU

**Hizkuntza trukea.** Alemaniako eskolak jasoko nituzke eta gaztelaniazkoak emango nituzke trukean. Alemaniera oinarriko maila daukat. 663 65 76 06

**Hizkuntza trukea.** Ingelesa praktikatu gura nuke eta trukean euskara edota gaztelania erakutsiko nituzke. Aretxabaletakoa naiz. Deitu 628 51 22 78 telefonora.

## 806. GALDU

**Trizikloa Oñatin.** Uztailaren 14an, arratsaldean, Ugarkalde parkean umearen trizikloa utzi genuen ahaztuta. Norbaitek aurkitu edo hartu badu, mesedez deitu zenbaki honetara. Eskerrik asko Deitu 615 70 08 74 telefonora.

## 9. HARREMANAK

## 904. BESTELAKOAK

**Autoan Debagoienetik Bastidara.** Egunerako autoz Bastidara joan behar du irailtik aurrera. Inguru haletara doan norbaitek nagusiak gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 680 34 29 60

ASTEAGOIENAN

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 25	ZAPATUA, 26	DOMEKA, 27	ASTELEHENA, 28	MARTITZENA, 29	EGUAZTENA, 30	EGUENA, 31
12:00 Debagoiena zuzenean	10:00 Kantari	10:00 Kantari	10:30 Berriak	10:30 Berriak	10:30 Berriak	10:30 Berriak
12:30 Aho bizarririk gabe	11:00 Debagoiena zuzenean	10:55 Zorion Agurrak	11:00 Ibilean	11:00 Jaiak: Antzuolako jaiak	11:00 Kontzertua	11:00 Sukaldean
13:20 Erreportajea	12:00 Amaia DJ	11:00 Kontzertua	11:30 Tertulia	11:45 Udakoak	12:10 Ikusmira	11:30 Tertulia
13:55 Zorion Agurrak	12:30 Zorion Agurrak	12:15 Jaiak: Antzuolako jaiak	12:00 Udakoak	12:30 Berriak	12:30 Berriak	12:30 Berriak
14:00 Debagoiena zuzenean	12:35 Ur eta lur	13:00 Debagoiena zuzenean	12:30 Berriak	13:05 7 Akorde	13:00 Onein	13:00 Ibilean
14:30 Berriak	13:10 Ikusi irratia	14:00 Zorion Agurrak	13:00 Onein	13:30 Amaia DJ	13:30 Auzorik auzo	13:35 Aniztasunean bizi
15:00 Amaia DJ	14:00 Tertulia	14:05 Astea iruditan	13:40 Jaiak: Antzuolako jaiak	14:00 Tertulia	14:00 Tripa-zorri	14:00 7 Akorde
15:30 Onein	14:30 Zorion Agurrak	14:15 Udakoak	14:30 Berriak	14:30 Berriak	14:30 Berriak	14:30 Berriak
16:00 Debagoiena zuzenean	14:35 Astea iruditan	15:30 Zorion Agurrak	15:00 Udakoak	15:00 7 Akorde	15:00 Onein	15:00 Onein
16:30 Berriak	14:45 Debagoiena zuzenean	15:35 Amaia DJ	15:45 Ikusmira	16:00 Kontzertua	16:00 Berriak	16:00 Berriak
17:00 Udakoak	15:45 Ikusmira	16:10 Ikusi irratia	16:00 Auzorik auzo	16:30 Berriak	17:00 Erakusleiho	17:00 Onein
17:50 Ur eta lur	16:00 Jaiak: Antzuolako jaiak	17:00 7 Akorde	16:30 Berriak	17:00 Ikusmira	17:30 Udakoak	17:30 Erreportajea
18:25 Astea iruditan	16:45 7 Akorde	17:25 Zorion Agurrak	17:00 Erreportajea	17:15 Udakoak	18:10 Ikusmira	18:30 Berriak
18:30 Berriak	17:15 Tertulia	17:30 Astea iruditan	18:00 Tertulia	18:00 Amaia DJ	18:30 Berriak	19:00 Amaia DJ
19:15 Jaiak: Antzuolako jaiak	17:50 Erreportajea	17:35 Kontzertua	18:30 Berriak	18:30 Berriak	19:00 Amaia DJ	19:30 7 Akorde
20:00 Debagoiena zuzenean	18:55 Astea iruditan	18:45 Ikusmira	19:00 Amaia DJ	19:00 Tripa-zorri	19:30 7 Akorde	20:00 Aniztasunean bizi
20:30 Berriak	19:00 Debagoiena zuzenean	19:05 Onein	19:30 Tripa-zorri	19:30 7 Akorde	20:00 Auzorik auzo	20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Tertulia	19:30 Tertulia	20:00 Sukaldean	20:00 Auzorik auzo	20:30 Berriak	21:00 Berriak
21:30 Berriak	20:30 7 Akorde	20:00 Jaiak: Antzuolako jaiak	20:30 Berriak	21:00 Kontzertua	21:00 Erakusleiho	21:00 Jaiak: Antzuolako jaiak
22:00 Jaiak: Antzuolako jaiak	21:00 Debagoiena zuzenean	20:45 Ehunmilak	21:00 Berriak	21:30 Jaiak: Antzuolako jaiak	21:30 Auzorik auzo	22:00 Amaia DJ
22:45 Debagoiena zuzenean	22:00 Jaiak: Antzuolako jaiak	22:10 Astea iruditan	21:00 Ehunmilak	22:30 Berriak	22:00 Tertulia	22:30 Berriak
23:15 Berriak	22:45 Astea iruditan	23:15 Tertulia	22:30 Berriak	23:00 Auzorik auzo	22:30 Berriak	23:00 Berriak
23:45 Jaiak: Antzuolako jaiak	22:55 Tertulia	23:45 Astea iruditan	23:00 Auzorik auzo	23:30 Ibilean	23:00 Aniztasunean bizi	23:30 Ehunmilak
00:30 Kontzertua	23:30 7 Akorde	23:50 Debagoiena zuzenean	23:30 Ibilean	00:00 7 Akorde	23:30 Erreportajea	01:00 Amaia DJ
	00:00 Debagoiena zuzenean	00:50 Kontzertua	00:15 Aniztasunean bizi	00:30 Berriak	00:30 Berriak	

LABUR

**Albistegiak egunero Goiena telebistan 10:30ean hasita**

Abuztuan Goiena telebistak Debagoieneko albisteen berri jasoko du. Astelehenerik egubakoitzera bitartean 10:30ean eskainiko da lehen aldiz eta bi ordu eskainiko da *Berriak* saioa 00:30ak arte. Aurkezle gabeko saioa izango da.

**Arrasate Irratian musikarekin disfrutatzen aukera**

Ez du etenik izango abuztuan Arrasate Irratiak. Eguneko 24 orduetan musika eskaintza zabalago izango da irratian. Zuzeneko saioekin irailaren lehen itzuliko da irratia; *Uda giroan* irratiairekin, hain zuzen. Bitartean, askotariko musika entzungai irratian.

EZTEIAK



**Amaia eta Sergio**

Amaia Landeira eta Sergio Uriarte uztailaren 26an San Lorentzoko ermitan ezkonduko dira. "Ondoren, guztiok batera Gure Ametsa jatetxean bazkari batekin ospatuko dugu. Zorionak, bikote! Musu handi bat familiaren, lagunaren, kuadrirangiko kideen eta bikoteen partetik!".



**Garbiñe eta Jonas**

Garbiñe Agiriano eta Jonas Nuñez zapatuan ezkonduko dira Arrasateko Udaletxean. Ondoren, familiarekin eta lagunekin ospatuko dute. "Osasuna, maitasuna eta zorionak, lagunaren partetik!".



**Haymar eta Sonia**

Haymar Dalmau eta Sonia Segovia arrasatearrak uztailaren 19an ezkondu ziren Dorletan. Bazkaria Oñatiko Soraluze jatetxean egin zuten. "Zorionak, bikote! Musu handi bat, familiaren partetik!".



**Carli eta Nerea**

Uztailaren 25ean Carli eta Nerea ezkondu zirela 25 urte bete dira. Zorionak eta ondo pasatu zuen 25. ezkontza-urteurrenean, San Lorentzoko lagunaren partetik. Musu handi bat, bikote!



**Toni eta Eli**

Toni Aramendia eta Eli Palma uztailaren 26an ezkonduko dira Arrasateko Urbarriko Itxaropenaren Amaren elizan. "Zorionak, bikote, zuzen familiaren eta lagunaren partetik!".



**Patxi eta Luci**

Bergarako Patxi eta Luci uztailaren 22an ezkondu ziren, duela 25 urte. Zapatuan, lagunekin afaria egingo dute, eta, hori baino lehenago, sorpresatxo. Kuadrillakoen partetik, zorionak eta musu handi bat.



## ESKER ONA

**Maria Teresa  
Letamendi Arrazola**

Oñatin hil zen 2014ko uztailaren 15ean, 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko, sendikoen izenean.

Oñatin, 2014ko uztailaren 25ean.

## ESKER ONA

**Iñaki  
Aranzabal Zuburruti**


Oñatin hil zen 2014ko uztailaren 21ean, 65 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko, sendikoen izenean.

Maite zaitugu.

Oñatin, 2014ko uztailaren 25ean.

## ESKER ONA

**Jesus Mari  
Biain Garcia**

2014ko uztailaren 17an hil zen, 65 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko, sendikoen izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, uztailaren 26an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi, alde zuretik, eskerrik asko.

Oñatin, 2014ko uztailaren 25ean.

## ESKER ONA

**Libe  
Urizar Larrañaga**

Andoni Azpiazu 'Txistu'-ren alarguna

Bergaran hil zen 2014ko uztailaren 10ean, 77 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2014ko uztailaren 25ean.

## ESKER ONA

**Alexander  
Urrutia Orobengoa**

Gasteizen hil zen 2014ko uztailaren 19an, 68 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko, sendikoen izenean.

Haren aldeko meza domekan izango da, uztailaren 27an, 12:30ean, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian. Bertaratuko zaretenoi, alde zuretik, eskerrik asko.

Arrasaten, 2014ko uztailaren 25ean.

## ESKER ONA

**Teodora  
Apaolaza Garmendia**

Jorge Elorzaren eta Pedro Etxanizen alarguna

Uztailaren 22an hil zen, 88 urte zituela.

Eskerrik beroenak, azken egunotan, ondoan izan zaituztegun guzti-guztiori, adierazi diguzuen babesagatik eta gertutasunagatik eta gure samina zuena egin izanagatik. Mila esker. Teodoraren familiaren eta maite izan duten guztien izenean, bihotz-bihotzez, besarkada bero bana.

Antzuolan, 2014ko uztailaren 25ean.

## OROIGARRIA

**Patri  
Bideluze Zangitu***Maittia*Lierni eta Oier.  
Antzuolan, 2014ko uztailaren 25ean.

## OROIGARRIA

**Patri  
Bideluze Zangitu**

Antzuolan hil zen 2013ko abuztuaren 5ean, 49 urte zituela.

*Nahiz eta gureartetik urrutira joan,  
beti izango zaitugu gure bihotzetan.*Antzuolako kuadrilla.  
Antzuolan, 2014ko uztailaren 25ean.

## OROIGARRIA

**Teodora  
Apaolaza Garmendia**

Jabier Etxaniz Goienako kidearen ama

Bat egiten dugu  
senideen saminarekin.**goiena**Goiena Komunikazio Taldea.  
Antzuolan, 2014ko uztailaren 25ean.

## OROIGARRIA

**Iñaki  
Ubierna Inmaz**

2003ko uztailaren 29an hil zen, 44 urte zituela.

*Gogo barmekoa izan da gure maitasuna  
heriotzak askatuko ez duen lotura  
zu baitzinen nire bizitza, nere argia eta poza  
zurekin elkartu arte, maitia, behar dut zure laguntza.*Zure Marilu.  
Oñatin, 2014ko uztailaren 25ean.

## OROIGARRIA

**Iñaki  
Larrañaga Guridi**

1954-07-26 / 2014-05-05

*Gure lankide, gure lagun, jada zure hutsunea nabari dugu...  
Agurrik ez dugu esan nahi, gero arte bat baizik.  
Gogoan izango zaitugu beti.  
Betiko gurekin, Iñaki.*PMG Polmetasako lankideak.  
Arrasaten, 2014ko uztailaren 25ean.

## OROIGARRIA

**Arantzazu  
Uson Guridi**

Arrasate Herri Eskolako gurasoa

Bat egiten dugu  
senideen saminarekin. **arrasate**  
Herri EskolaArrasate Herri Eskola.  
Arrasaten, 2014ko uztailaren 25ean

## HILDAKOAK

**Jabier Umerez Urrutia.** Oñatin, uztailaren 4an. 79 urte.  
**Urbano Bengoa Arkauz.** Leintz-Gatzagan, uztailaren 10ean. 99 urte.  
**Libe Urizar Larrañaga.** Bergaran, uztailaren 10ean. 77 urte.  
**Isidro Uriarte Biguri.** Oñatin, uztailaren 11n. 84 urte.  
**Jesus Astoriza Isusi.** Elgetan, uztailaren 11n. 87 urte.  
**M. Teresa Letamendi Arrazola.** Oñatin, uztailaren 15ean. 84 urte.  
**Jesus Mari Biain Garcia.** Oñatin, uztailaren 17n. 65 urte.  
**Eusebi Beain Biain.** Bergaran, uztailaren 17an. 82 urte.  
**Ramon Nogeiras Gioto.** Oñatin, uztailaren 18n. 82 urte.  
**M. Arantzazu Uson Guridi.** Arrasaten, uztailaren 18an. 32 urte.

**Alexander Urrutia Orobengoa.** Arrasaten, uztailaren 19an. 68 urte.  
**Victoriana De la Cruz de Tena.** Bergaran, uztailaren 19an. 56 urte.  
**Rogelia Cambron de la Bella.** Bergaran, uztailaren 20an. 92 urte.  
**Benita Arana Pagaldai.** Arrasaten, uztailaren 20an. 91 urte.  
**Isaac Vega Garcia.** Arrasaten, uztailaren 20an. 76 urte.  
**M. Cruz Manso Balmala.** Arrasaten, uztailaren 21ean. 73 urte.  
**Iñaki Aranzabal Zuburruti.** Oñatin, uztailaren 21ean. 65 urte.  
**Teodora Apaolaza Garmendia.** Antzuolan, uztailaren 22an. 88 urte.  
**Cristina Garcia Diez.** Arrasaten, uztailaren 23an. 79 urte.  
**Nieves Otadui Maidagan.** Arrasaten, uztailaren 23an. 81 urte.

## OROIOLORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea**Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:  
NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua  
AUKERA DEZAKEZULA BETI.*maribi 617 44 21 55  
BERGARA

## ZINEMA

## GASTEIZ

## BOULEVARD

## Sex tape: algo pasa en las nubes

Egubakoitza eta zapatua: 00:35.

Zapatua eta domeka: 16:35.

Egubakoitzetik eguenera: 18:35, 20:35, 22:35.

## Anarchy: la noche de las bestias

Egubakoitza eta zapatua: 00:35.

Zapatua eta domeka: 16:55.

Egubakoitzetik eguenera: 18:05, 20:15, 22:25.

## El amanecer del planeta de los simios

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:10, 22:50, 00:25.

Zapatua eta domeka: 16:30.

Egubakoitzetik domekara: 19:10, 21:50.

Domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

Astelehenetik eguenera: 17:30, 19:10, 20:00, 21:50, 22:30.

## El amanecer del planeta de los simios 3D

Egubakoitza eta zapatua: 23:50.

Zapatua eta domeka: 15:50.

Egubakoitzetik eguenera: 18:30, 21:10.

## Aviones: equipo de rescate

Zapatua eta domeka: 16:00.

Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 19:00, 20:00.

## Tarzan

Zapatua eta domeka: 16:10.

## Aviones: equipo de rescate 3D

Zapatua eta domeka: eta astelehenetik eguenera: 17:00.

## Bajo la misma estrella

Egubakoitza eta zapatua: 00:30.

Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 19:30, 22:00.

## El abuelo que salto por la ventana y se largo

Egubakoitza eta zapatua: 00:45.

Egubakoitzetik eguenera: 20:15, 22:30.

## La cueva

Egubakoitza eta zapatua: 00:45.

Egubakoitzetik martitzenera, eta eguenera: 21:00, 22:45.

## Malefica

Egubakoitzetik eguenera: 18:05, 20:10.

Zapatua eta domeka: 16:00.

## Mil maneras de morder el polvo

Egubakoitza eta zapatua: 00:35.

Egubakoitzetik eguenera: 19:55, 22:15.

## Juntos y revueltos

Egubakoitza eta zapatua: 00:35.

Egubakoitzetik domekara: 22:15.

## Pancho

Egubakoitzetik martitzenera, eta eguenera: 18:10.

## Rio 2

Egubakoitza eta zapatua: 15:30.

## Las aventuras de Peabody y Sherman

Domeka: 15:30.

## X-Men: dias del futuro pasado

Egubakoitzetik eguenera: 22:00.

## 8 apellidos vascos

Egubakoitza eta zapatua: 00:45.

## Campanilla, hadas y piratas

Zapatua eta domeka: 15:45.

Egubakoitzetik eguenera: 17:45.

## Transcendence

Astelehena, martitzena eta eguenera: 21:00.

## Perdona si te llamo amor

Eguaztena: 17:00.

## Juntos y revueltos

Astelehenetik eguenera: 22:15.

## FLORIDA

## Amanecer en el planeta de los simios

Egubakoitzetik domekara: 17:15, 19:45, 22:30.

Zapatua eta domeka: 12:00.

Astelehenetik eguenera: 17:15, 19:45.

## Corazon de leon

Egubakoitzetik domekara: 17:30, 22:30.

Astelehenetik eguenera: 17:30.

## Voy a ser mama

Egubakoitzetik eguenera: 20:00.

## Bajo la misma estrella

Egubakoitzetik eguenera: 17:30.

## El abuelo que salto por la ventana y se largo

Egubakoitzetik domekara: 20:00, 22:30.

Astelehenetik eguenera: 20:00.

## Anarchy: la noche de las bestias

Egubakoitzetik domekara: 17:45, 20:15, 22:30.

Astelehenetik eguenera: 17:45, 20:15.

## Campanilla, hadas y piratas

Egubakoitzetik eguenera: 16:45.

Zapatua eta domeka: 12:00.

## Marsella

Egubakoitzetik domekara: 16:45, 20:40, 22:30.

Astelehenetik eguenera: 16:45, 20:40.

## Barbacoa de amigos

Egubakoitzetik domekara: 22:30.

Astelehenetik eguenera: 20:15.

## Malefica

Egubakoitza, eta astelehenetik eguenera: 17:30.

Zapatua eta domeka: 12:00.

## Violette

Egubakoitzetik domekara: 20:00, 22:30.

Astelehenetik eguenera: 20:00.

## Aviones: equipo de rescate

Egubakoitza, eta astelehenetik eguenera: 16:45, 18:30.

Zapatua eta domeka: 12:00, 16:45, 18:30.



KUKAI.INFO

## ARRASATE Kukai taldearekin 'Gelajauziak'

Kukai konpainiak eta Cesc Gelabert koreografoak herri dantzei beste begirada bat emateko batu dituzte indarrak. Oraingo honetan, Basterretxearen *Akelarre* eskultura izango dute hizpide. Doako emanaldia izango da.

Etzi, domeka, Herriko plazan, 20:00etan.

## NON-ZER

Emaguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

UZTAILA 25  
ABUZTUA 31

## MUSIKA

## OÑATI Jam saioa

Oñatiko musikarien eskutik jam saioa egingo dute. Gaur, egubakoitza, Antixenan, 22:00etan.

## ARETXABALETA Bitz eta Papalagi taldeak

Bitz eta Papalagi talde oñatiarrek punk-rock doinuez girotuko dute Haizea taberna. Doako emanaldia izango da.

Bihar, zapatua, Haizea tabernan, 19:00etan.

## OÑATI Hardcore gaua

Rotten Notes gasteiztarrek hardcore grind musika lantzen dute. Eurekin batera egongo dira ohol-tzan Obstruccion Nasal eta HC taldeak. Doako emanaldia. Bihar, zapatua, Antixenan, 21:00etan.

## OÑATI Mundu Unplugs The Ramones

Iñigo Munduate *Mundu* musikari donostiarrak proiektu berri batekin dihardu. Ramones taldearen 40. urteurrena bete da, eta, hori aprobetxatuz, Munduatek taldearen berrikuspen akustikoa proposatzen du. Doan. Abuztuaren 3an, Pako tabernan, 19:30etan.

## BERGARA Morau eta Beñardo

Biek ala biek kontzertua egingo dute Usondo parkean, doan. Abuztuaren 4an, Usondo parkean, 20:00etan.

## JAIK

## ELGETA Santixau jaiak Goimendin

Goimendu-Azula auzoan egingo dituzte jaiak. 11:00etan meza izango dute, eta hortik aurrera egun osoko egitaraua: umeendako jokoak, bertsolariak, trikitalariak, herri kirolak... Gaur, egubakoitza, Goimendi-Azulan, 11:00etan.

## BERGARA Basalgoko jaiak

Santio jaiak ospatuko dituzte Basalgon aste bukaeran. Gaur:

meza, txirrindulari igoera, Xabier Amuritzaren eta Amets Arzallusen saioa eta erromeria egingo dituzte, besteak beste. Bihar: meza, luntxa eta auzoko erretiratuen eta jai batzordekoen bazkaria. Gaur, egubakoitza, eta, bihar, zapatua, Basalgon.

## ARRASATE Ferrerías kaleko jaiak

Egun osoko egitaraua prestatu dute: txistularien kalejira (12:00), umeendako jolasak eta txokolate-jana (17:00), erraldoien konpartsa txikiaren kalejira (19:00), meza San Frantzisko elizan (19:00), kale-afaria (21:00) eta dantzaldia Gau Alai taldearekin (23:00). Bihar, zapatua, Ferrerías kalean, 08:00etan.

## BERGARA Santa Ana jaiak

Bolun ospatuko dituzte Santa Ana jaiak. Bihar, zapatua, Bolun, egun osoan.

## DANTZA

## ARRASATE Foklore jaialdia

Warszawianka dantza taldea Poloniako unibertsitate handieneko ordezkaria da. Errepertorioan ditu, besteak beste, Poloniako dantzak, hango eskualdeetako antzezlanak eta Gabonekin eta Pazkoekin lotutako jarduerak. Arrasateko emanaldian, Poloniako tradizioaren zati bat erakutsiko dute. Doan. Gaur, egubakoitza, Monterronen, 22:30ean.

## OSPAKIZUNAK

## OÑATI Duruko eguna

Duruko eguna ospatuko dute aste bukaeran eta askotariko ekintzak

## KRITIKA

## Historia eta fikzioa batzen

Film honekin denboraldia bukatzen dugu, eta *Dos vidas* ez da pelikula

gogoangarria. Gustura ikusteko filma da, ondo kontatutakoa, baina ez da geratzen ikuslearen oroimenean. Badira film aspergarriak, bide berriak topatu nahi duten zuzendariak eta bide erdian geratzen diren lanak. Azken atal honetan koka dezakegu Georg Maasen lana. Azken urteetan askotan aipatu den lapurtutako haurren istorioa kontatzen da. Herrialde guztietan ezkutuan mantendu nahi diren istorioak daude. Il. Mundu Gerraren bukaeran, Norvegiar, nazien eta Norvegiako emakumeen artean izandako harremanen ostan haur asko jaio ziren. Amak baztertu egiten zituzten, eta haurrak beste familia batzuetan utzi, edo, politikaren interesak jarraituz, espioi lanak egiteko erabili. Hori guztiori agertzen da *Dos vidas* filmean. Alde batetik, ezezaguna edo ia ezkutuan egon diren gaiak edo egoerak argira ateratzen dira, eta, beste alde batetik, dokumentalen osagaien aldetik ihes egin nahian,

## DOS VIDAS ★★☆☆☆

Zuzendaria: Georg Maas.

Herrialdea: Alemania.

Aktoreak: Juliane Köhler, Liv Ullmann, Sven Nordin.

zuzendariak *thriller*-en osagaiekin jokatzeko du, bi alderdiak erabiliz lan interesgarri bat egiteko.

Errealitatearekin eta fikzioarekin jokatzeko, zuzendariak kritika egin nahi du; hau da, gutxi ezagutzen diren istorioak kalera aterata. Horrela, bi film desberdin ditugu: informazio aldetik, ondo datorkigun Europan gertatutako istorioak ezagutzeko, baina, horrez gain, fikzioa ere nahasten da.

Gutxi gorabehera, dena modu egokian kontatzen du Georg Maasek. Oreka mantentzen du. Baina guztia nahiko neurtuta badu ere, filmak ez du lortzen erdi mailatik gora egitea. *Dos vidas* interesgarria da, baina ez liluragarria. Ikusle zorrotzak ez bazarete, gustura ikusiko duzue pelikula, baina ez dizue arrastorik utziko pelikulak. Ikusi eta gero ez da gogoan geratzen.

ANTONIO ZABALA



SOKA ZIRKO

egingo dituzte. Zapatuan, mendiko bizikleta lasterketa (17:00) eta futbol partidua (18:00); eta domekan, meza (11:00), herri kirolak eta ardi gazta dastatzea (12:00), kalejira (13:00) eta bazkaria (15:00).

Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, Durun.

#### ARRASATE Kubatar iraultzaren aldeko jai

Egun osoko egitaraua osatu dute gaztetxean: 14:30ean, bazkari kubatarra; 17:30ean, salsa ikastaroa; 19:00etan, *Castropoteoa*, musika eta mojitoekin; 00:00etan, linbo txapelketa; eta 03:00etan salsa txapelketa.

Bihar, zapatua, gaztetea, egun osoan.

#### OÑATI Kubako egun nazionalaren ospakizuna

Acesma elkarteak askotariko ekintzak egingo ditu: 11:00etan kubatar eta latindar musika eta herrialde askotariko produktuen salmenta; 12:15ean umeendako ekintzak; 13:00etan euskal dantzak eta folklore kubatarra; 14:30ean bazkaria; eta 20:00etan elkartasun saskiaren zozketa.

Bihar, zapatua, Foruen plazan, egun osoan.

#### OÑATI Lizargarate eguna

Lizargarate elkartearen 50. urteurrena ospatuko dute abuztuaren 24an. Egun osoan trikiti doinuak izango dira nagusi. Bazkarirako txartelak salgai daude Urbia eta Arrano tabernetan eta Lizargaraten bertan.

Abuztuaren 24an, Lizargaraten.

#### OÑATI Surf festa

Egun osoko egitaraua prestatu dute: salto lehiaketa Usakon goizean eta sardina-jana eta musika arratsaldean.

Abuztuaren 30ean, Usakon eta Kale Zaharrean.

### ERAKUSKETAK

#### ARETXABALETA Margo ikastaroko ikasleen lanak

Ainhoa Cabero irakaslearekin margo ikastaroa egin duten ikasleek euren lanak ikusgai ipini dituzte.

Uztailaren 30era arte, Arkupean.

#### BERGARA Celia Eslavaren eskulturak

Asteon inauguratu dute Eslavaren eskulturak batzen dituen



IMANOL SORIANO

#### ESKORIATZA Errekan Gora: Kashbad eta Eratu taldeak

Errekan Gora musika zikloa bukatzeko kontzertua egingo dute bi taldeek. Kashbadek aurten kaleratutako *Arrakala* diskoko kantuak joko ditu eta Eratu taldeak, aldiz, *Ispilu iluna* delako lanekoak. Doako emanaldia izango da.

Bihar, zapatua, Santa Mariñe plazan, 22:00etan.

erakusketa. Aroztegi aretoan ikus daitezke lanak, martitzenetik domekara arte.

Abuztuaren 10era arte, Aroztegin.

#### BERGARA Iñaki Olazabalen eskulturak

Olazabalen lanak abuztuaren ipiniko dituzte ikusgai: abuztuaren 14tik irailaren 7ra arte, martitzenetik domekara arte.

Abuztuaren 30etik irailaren 7ra arte, Aroztegin.

### UMEAK

#### BERGARA Sun Magoak

Sun Magoak *Xistera magikoa* ikuskizuna egingo du neska-mutikoendako.

Abuztuaren 13an, kultura etxean, 20:00etan.

### ANTZERKIA

#### OÑATI Malas Compañías eta 'Txatarra'

Umorea, antzerkia, objektuen manipulazioa eta akrobazia bateratzen dituen lana "ikusgarria, dibertigarria eta hunkigarria" dela diote taldeko kideek.

Abuztuaren 31n, Foruen plazan, 19:00etan.

### DEIA

#### ANTZUOLA Erreka garbitzeko

Antzuolako erreka garbitzeko irteera egingo dute. Herriar guztiak gonbidatu dituzte. Garbiketaren ostean bazkaria egingo dute.

Bihar, zapatua, Herriko plazan, 09:30ean.

#### OÑATI Estanpazio tailerra

Kamisetak, poltsak, apaingarriak eta arropak apaintzeko tailerra egingo dute gaztetxean.

Uztailaren 28an, Antixenan, 10:00etan.

### BATZARRA

#### OÑATI Justizia trantsizionalari buruzko batzarra

EHUrekin elkarlanean, justizia trantsizionalaren printzipio eta kontzeptuak aztertuko dituzte, Espainia eta Euskal Herriko testuinguru espezifikoetan, beste herrialdeetako esperientziak aintzat hartuta. Inaugurazio ekital-

diko hitzaldia Paco Etxeberria auzitegi-medikuak egingo du. Uztailaren 28an, Lege Soziologia Institutuan, 10:00etan.

### LEHIAKETA

#### ARRASATE Argazki lehiaketa

Ernaik euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko argazki lehiaketa antolatuko du. Preso eta iheslarien aldeko aldarrikapenak agertu beharko du argazkian eta pertsona bakoitzak bi erretratu bidali ahal izango ditu, gehienez, [ernaiarrasate@gmail.com](mailto:ernaiarrasate@gmail.com) helbidera, irailaren 15a baino lehen. Irailaren 15era arte.

#### OÑATI 'Batetik bestera'

Gaztelekutik egin dute deia. Oporretako argazkiak eskatzen dituzte: originalak eta freskoak. Aurkeztutako lanekin erakusketa egingo dute irailean, eta ikusleen botoekin aukeratuko dituzte bi argazki irabazleak.

Irailera arte, gaztelekuan.

### IRTEERA

#### ESKORIATZA Donostiako su artifizialak ikusteko irteera

Eskoriatzako Olazar erretiratuaren elkarteak irteera antolatu dute abuztuaren 13rako, Donostiako su artifizialak ikusteko. Intere-

satuek elkartearen bulegoan eman behar dute izena.

Uztail bukaera arte, Olazarren.

### DIRULAGUNTZAK

#### ESKORIATZA Diru laguntza eskaerak

Garapen jasagarria eta gizarte garapena sustatzeko eta gazte egitasmoetarako laguntzak eskatzeko epeak zabalik daude, hila- ren 30era arte eta irailaren 3ra arte, hurrenez hurren, udal erregistroan. Garapenetarako laguntzak axtrokitan ordainduko dituzte. Gazteen egitasmoetarako 600 euro ditu Udalak.

Izen-ematea, udal erregistroan.

# Gora datuak!

**GOIENA TELEBISTAK 2.000 IKUS-ENTZULE GEHIAGO**

CIES erakundeak egindako maiatzeko azken neurketaren arabera, Goiena telebistak 10.000 ikus-entzule ditu, egunero, astean barrena, Gipuzkoan; ia izko abenduan baino 2.000 ikus-entzule gehiago.

**Eskerrik asko zuri, bertakoa eta sasoiak aukeratzearren.**



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA **goiena**



# goiena

2014-07-25

BUKATZEKO

## Gipuzkoan barrena 'Pedalka' bizikletaz

- ▶ Goienako kazetari Julen Iriondok 300 kilometro egin ditu Gipuzkoan, bost egunean, bizikletarekin
- ▶ Bizikletaren erabilera sustatzeko ekimenen berri jaso du eta hainbat txirrindulari ezagunekin izan da

**AMAIA TXINTXURRETA** | ARRASATE  
Astelehenean abiatu zen Goienako kazetari Julen Iriondo Oñatitik, bizikletaz, Gipuzkoako txokoak ezagutzera. Egunero 60 kilometro inguru egin ditu; gaur, egubakoitza, itzuliko da etxera.

Kamera eskuetan hartuta, hainbat erakundek eta enpresak bizikletaren erabilera bultzatzeko erabiltzen dituzten ekintzak ezagutu ditu eta ziklismoaren alorreko pertsona ezagunekin ere izan da kazetari oñatiarra.

Donostiako Bizikletaren Behatokiaren berri jaso du, adibidez. Donostiako Udalak Mugikortasunaren Departamentuaren, Cristina Enea Fundazioaren eta Kalapie Hiriko Txirrindularien Elkartearen elkarlanaren ondorioz sorturiko tresna da behatokia, eta bidegorrien erabilera bultzatzeko egiten duen lanaren berri jaso du Iriondok. Beste modu bateko ekimenak ere ezagutu ditu; ekintzailetasunetik jaiotako Txita, esaterako. *Azken milia* bezala ezagutzen den banaketa iraunkorreko sistema martxan jarri zuten gazte ekintzaile batzuek, eta kanpotik Donostia-ramaten dituzten paketeak hiri barruan bizikletaz banatzen dituzte modu azkarrago eta ero-



Txomin Perurena txirrindulariarekin. | JULEN IRIONDO



Bidegorria atzean duela, Tolosan. | J.I.

soagoan. Bizi-taxi zerbitzua ere ezagutu du; turistek hiria ezagutzeko edo, beste barik, hirian mugitzeko balio duena.

Jende ezagunarekin ere izan da: Txomin Perurena txirrindulari profesionala izandakoarekin, Leire Olaberria Ikaztegieta

txirrindulariarekin eta Ainhoa Murua triatletarekin.

### Twitterretik jarraipena

Uneoro kazetaria non zebilen jakiteko aukera ere izan da asteen zehar Twitter bitartez, *#GipuzkoaPedalka* traolarekin.



Iriondo, Bizi-taxi zerbitzua probatzen. | J.I.



Ikaztegieta Leire Olaberria txirrindulariarekin. | J.I.

### Telebistan ikusgai, laster

Datorren ikasturtean Goiena telebistan eskainiko den *Pedalka* saioaren bigarren denboraldian ikusi ahal izango da guztia. Lehenengo Alpeetako bidaiarekin osatu zen, eta oraingoan gertuko parajeak erakutsiko ditu.

### AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO



Opor giroan, gertaera latzak

Aspaldian opor-sasoia nabarmen luzatu da. Lehen, abuztua zen hila-bete bakarra. Orain, uztailearen erditik irailaren erdira zabaldu dugu. Aspaldi gaude opor giroan. Eta giro honetan urtero gertatzen dira gertaera latzak. Bakan batzuek giro hau baliatzen dute erabaki eta ekintza gordinenak gauzatzeko.

Israel Gazan egiten ari den sarraskiaren aurrean erreakzionatzeko erreflejo eskasa izan dugu. Begira gaude, ikusle hutsak izateko eskubidea izango bagenu bezala. Opor-giroan harrapatu gaitu erasoak.

Bateragune auziko kideek kartzelan jarraitu beharko dute krudelki ezarritako kondena osoa bete arte. Mendekuan oinarritutako erabakia opor usainean etorri da, urte luzea pasa duenean erabakitzeko.

Kutxak Fundazio Bankario izateko prozesua hasi du asteazkenean, 5 hilabete dituen. Hauek ere opor-giroa baliatu nahi izan dute aspaldiko lapurreta gogorrenari ekiteko.

Litekeena da zutabe hau argitaratu orduko 35/02 auziaren sententzia kalean izatea. Pertsona, elkarte eta taberna askoren etorkizuna jakinarazi dezake Auzitegi Nazionalak.

Eta irailaren erdia iritsi baino lehen gehiago izango dira horrelakoak. Oporretan bai, baina adi eta lorik hartu gabe egon beharko dugu geuk ere opor-sasoian.

# ABUZTUAN ERE INFORMATUTA

Informazio guztia uneoro *Goiena.eus* atarian eta Goiena telebistan



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena